

**IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA
MASTER EN ESTUDIOS FEMINISTAS Y DE GÉNERO**

2017-2018 Ikasturtea

Ikerketa lana

**Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten
eragina:
Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak**

Egilea:

Onintza Legorburu Larrea

**Tutorea / Tutor/a:
Jone Miren Hernández García**

2018ko Iraila

*“Ezin geinken eon pentsatzen beti beste batzuk ingo dabenik. Geuk hartu
bijotxaneu aurre!”*

María Luisa Mendizabal “Amañi”

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
1.1. HELBURU ETA HIPOTESIAK.....	7
1.2. METODOLOGIA	8
1.2.1. DOKUMENTUEN AZTERKETA	9
1.2.2. BEHAKETA	10
1.2.3. ELKARRIZKETAK.....	11
A) PARTAIDEAK	11
2. GENERO IDENTITATEAREN ERAIKUNTZA	15
2.1. GIZARTE TEOKRATIKOA ETA MISOGINIAREN PARADIGMA	16
2.2. MODERNITATEA: SUBJEKTU MASKULINOAK VS OBJEKTU FEMENINOAK	17
2.3. GENERO SISTEMA: ANTROPOLOGIATIK AZALPEN EZBERDINAK	19
3. HIZKUNTZA ETA GENEROA UZTARTUZ	22
3.1. MINTZAIRA FEMENINOA ETA MASKULINOA	22
3.2. DOMINAZIOAREN IKUSPEGIA ETA DESBERDINTASUNARENA.....	24
3.2.1. DOMINAZIOAREN IKUSPEGIA	25
3.2.2. DESBERDINTASUNAREN IKUSPEGIA	26
4. EUSKARA ETA GENEROA PAREZ PARE	28
4.1. EMAKUMEAK EUSKARAREN TRANSMISORE ETA ZAINZAILA	28
4.2. EUSKARAREN GALERAREN ERRUA: “ <i>NESKATXAK EZ DUTE EUSKARAZ ITZEGIN NAI</i> ”	32
4.3. GAUR EGUNGO EUSKARAREN ERABILERAREN EGOERA	34
4.3.1. EUSKARAREN ERABILERAREN FEMINIZAZIOA	36
4.4. EUSKARA SEXISTA AL DA?.....	39
5. EUSKARAREN TRATAMENDUAK: HITANOA	43
5.1. HIZKUNTZA-TRATAMENDUAK.....	44
5.2. HITANOAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK	46
5.3. HITANOAREN ERABILERA BALDINTZATZEN DUTEN ALDAGAIK	47
5.4. HITANOAREN ERABILERAREN EGOERA EUSKAL HERRIAN.....	50
5.4.1. HITANOAREN INGURUKO PERTZEPZIO ETA USTEAK.....	53
ANALISIA: GENEROAK BALDINTZATZEN OTE DU HITANOAREN ERABILERA ANTZUOLAN?	57
6. IKERKETAREN KOKALEKUA: ANTZUOLA	57
7. ANTZUOLAKO HIZKUNTZA ERREALITATEA	59
7.1. HITANOAREN ERABILERA ANTZUOLAN.....	61

7.2.	HIZKUNTZA MUDANTZA	65
7.3.	HIZKUNTZ-PRAKTIKAK: ZEIN EGOERETAN EDO ZER PRAKTIKEKIN LOTUTA ERABILTZEN DA HITANOA?	70
7.3.1.	NOLA ERABILTZEN DA? HITANOAREN ERABILERA DESEGOKIA	77
8.	NOKAREN GALERAREN INGURUKO DISKURTSOAK	78
8.1.	TRANSMISIOAREN ETENA	78
8.1.1.	TRANSMISIO INFORMALA	79
8.1.2.	TRANSMISIO FORMALA	82
8.2.	EUSKARAREN GALERA: EMAKUMEAK “ERRUDUN”	83
8.3.	EREMU PUBLIKO ETA PRIBATUAREN ARTEKO BANAKETA	86
9.	HIZKUNTZ SOZIALIZAZIOA	88
9.1.	HITANOAREN ERABILERA ARAUAK ETA HAUEN APURKETAK	89
9.2.	HITANOAREN INGURUKO USTE ETA BALIOAK	92
10.	HITANOAREN INGURUKO PARADIGMA BERRIA	99
10.1.	HITANOA “PEDIGRI” ADIERAZLE	99
10.2.	HITANOA EMAKUMEAK AHALDUNTZEKO TRESNA?	104
11.	ONDORIOAK	107
12.	BIBLIOGRAFIA	114
13.	ERANSKINAK: ELKARRIZKETA GIDOIAK	122

1. SARRERA

Batzuetan pentsatu ohi dut, badagoela pertzepzio bat, non hizkuntza izate neutro gisara ikusten den. “Hizkuntza, hizkuntza da, ez gehiago, ez gutxiago!”. Baina lan honetan ikusiko dugun bezala, hizkuntza (ere) gizartearen isla da. Hizkuntzek barnebiltzen dituzte ideologiak, botere harremanak eta hierarkiak; hizkuntza komunikazio tresna baino askoz ere gehiago baita.

Umetatik izan dut euskararenganako arra. Etxetik jaso, amarengandik zehazki, bera baita, gure etxeko “euskara talibana”. Nerabezaroan konturatu nintzen hizkuntzen arteko hierarkia bat bazegoela, eta euskara hierarkia horren atze xamarrean aurkitzen zela. Bergarako institutuan, eta nerabezaroan horren ohikoa den “onartua” izate nahi horretan, nahiko lan izan genituen. Gu ez baikinena “guay”. Gu antzuolarrak ginen, herri txiki eta euskaldun batekoak. Beti euskaraz aritzen ziren horiek, eta gaztelera modu nahiko traketsen dominatzeko ahaleginetan ibiltzen zirenak.

Euskararen bidea nahiko maldatsua izan dela esan genezake, hau ere, eta niri nerabezaroan gertatzen zitzaidan bezala, bere lekuaren bila ibili baita. Zelabait onartua izateko ahaleginetan. Badirudi eta urte eta lan askoren poderioz, euskarak aurkitu duela bere lekua, nolabait legitimatu ahal izan dela hizkuntza erabilgarri gisara.

Baina gaur gaurkoz lekurik topatu ezinean hitanoa darabilkigu. Hein handi batean, hitanoa da euskararen tratamendu informala, berdinen artean eta goitik beherako harremanetan erabili ohi dena. Sexu-generoaren araberrako bereizketa da hitanoaren bereizgarri nagusietako bat, eta emakumeari edo gizonari egin, aldatu egiten dira aditz-formak. Azken hamarkada hauetan behera egin du nabarmen hitanoaren erabilerak; gizonezkoen artean toka¹ egitea Euskal Herriko txoko askotan oraindik ohikoa bada ere, bai emakumeek hika egitea bai emakumeei hika egitea gero eta gutxiago aditzen den fenomeno da. Hala nola, noka² ere, nahiko galzorian legokeela esan genezake.

Euskal Herriko txoko ezberdinetan bezalaxe, Antzuolan ere nahiko antzeko gabilta. Hau da, gizonezkoen hizkuntza tratamendu bihurtzen ari da hitanoa orokorrean. Hau horrela, eta errealitate honen aurrean, orain dela pare bat urte, ni eta

¹ Gizonei zuzentzeko erabiltzen den hitanoaren forma.

² Emakumezkoen zuzentzeko erabiltzen den hitanoaren forma.

beste bi lagunek hitanorako trantsizio moduko bat hasi genuen; trantsizio hau izan delarik lan honen bultzatzaile nagusietako bat.

Guk etxean betidanik eta modu arrunt batean jaso izan dugu hitanoa, baina ez dugu sekula berau hitz egin lagun artean. Lagun batek behin eta berriz errepikatzen zidan, ez duela ulertzen eten hori. Hau da, berak argi zeukan, gu mutilak izan bagina geure artean hitanoz hitz egingo genukeela. Hau horrela, eta master honetan aukera ikusi nuen unean, pentsatu nuen polita litzakeela genero rolak eta hitanoaren erabilera uztartzea. Pertzepzioa bainuen, hitanoaren erabilerak eta noketaren galerak, genero rolekin nolabaiteko zerikusirik izan zezaketela.

Honen bestez, ondoko galderari erantzutea izango da lan honen helburuetako bat: Zer nolako eragina izan dute genero rolek, noketaren galeran eta toketaren biziraupenean?

Horretarako eta atal honetako azpipuntu gisara, lehendabizi lanaren helburu eta hipotesiak azalduko ditut. Baita helburu eta hipotesi hauek lortzeko, ze metodologia erabili den ere.

Segidan, hizkuntza eta generoaren uztartekaz arituko naiz. Batik bat atzerrian, bi aldagai hauek uztartuz egin diren ikerketak eta sortutako teoriak azalduz. Ondotik, euskara eta generoaren inguruan jardungo dut. Batetik, nolabaiteko errebaso historiko bat eginaz, emakumeak euskararen inguruan izan duten paperaz. Eta bestetik, gaur egungo euskararen erabileraren egoera aztertuz. Eta marko teorikoaren hirugarren atalean, hitanoa bera izango dut mintzagai. Honen ezaugarri teknikoak; berau erabiltzea baldintzatzen duten aldagaiak; hitanoaren Euskal Herriko egoera eta tratamenduaren inguruko uste eta balioak jomugan hartuz.

Behin lana ulertzeko marko teoriko apropos bat osatuta, analisisia letorke. Analisisian lehendabizi ikerketaren kokalekua den Antzuolari buruzko hainbat informazio emango dira. Ondoren, Antzuolako hizkuntz errealitateari buruzko deskribapen bat egingo da. Bertan, Antzuolako hitanoaren erabilera; zukatik hitanorako saltoa, eta hitanoari lotutako hizkuntza praktikak izango direlarik hizpide.

Nokaren galeraren inguruko diskurtsoek osatuko dute ondorengo puntua. Jarraian, hizkuntza sozializazioaren gainean hitz egingo dut. Hau da, hizkuntza bat ikasten dugunean, honen erabileraren gaineko arauak ere barneratzen ditugu. Baina

baita, hizkuntza edota tratamendu bati atxikitzen zaizkion uste eta balioak ere. Beraz, puntu honetan, eta sozializazio baten bidez, Antzuolan hitanoaren inguruko ze erabilera arau dagoen eta errespetatzen ote diren edo ez aztertuko da. Baita maila ideologiko batean, hitanoari ze uste edota balio atxikitzen zaizkion ere.

Eta amaitzeko, gazteen diskurtso eta pentsamenduak aztergaitzat hartu, eta analizatu ahal izan den hitanoaren inguruko paradigma berri bat azalduko da. Lanaren bukaera, ondorioek osatuko dutelarik.

Ikerlanean murgildu aurretik, eskerrak ematea nahiko nuke zidor honetan bidelagun izan ditudan hainbat laguni. Mila esker lehendabizi Jone Mireni, jakintza iturri amaigabea izateagatik. Tio Imanoli, nire ikasketa ibilbideko zuzentzaile eta aholku-emaila ofiziala izateagatik. Ahizpari, udan zaintza lanez arduratu eta niri denbora oparitzeagatik. *Olaran Coworking Centre*-koei, deskantsutako kafe, zigarro eta hizketaldiengatik. Aitari, gizonak aldatu litezkeela ikustarazteagatik. Amari, berak bizitzan eskainitako erremintengatik ez balitz, lan hau ez bailitzatekeen posible izango. Eta azkenik, ikerketan parte hartu duzuen pertsona orori.

1.1. HELBURU ETA HIPOTESIAK

Antzuolan noketaren galera nabarmena izan da azken bi belaunaldietan. Toketak aldiz, osasuntsu jarraitzen du gizon heldu zein mutil gazteen artean. Badut susmoa genero rolek, nolabaiteko eragin nabarmena izan dutela hizkuntzaren fenomeno honetan. Beraz, ikerketa honen **helburu nagusia** genero rolek noketaren galeran eta toketaren biziraupenean izan duten eragina aztertzea izango da.

Baina ikerketa honek izango ditu beste helburu espezifiko batzuk ere:

- Hitanoa zein egoera eta zein praktikarekin loturik erabiltzen den analizatzea.
- Antzuolan hikaren inguruan existitzen diren uste eta balio nagusiak ezagutzea, eta hauetan aldaketarik eman den aztertzea.
- Antzuolako hainbat emakume gazteren kasua aztertuz, hauek zukatik nokarako saltoa nola bizi (izan) duten aztertzea.

Ikerlan honen ardatza, honako **hipotesi nagusia** hau izango da: Genero rolek noketaren galeran eta toketaren biziraupenean eragin zuzena izan dute.

Baina lanak baditu baieztatu edo ezeztatuko diren beste hipotesi batzuk ere:

- Hitanoari lotutako hizkuntza-praktikek, emakume zein gizonen hitanoaren erabilera baldintzatuko dute.
- Hitanoa hein handi batean zakartasun eta baserritartasunarekin lotua izan da Antzuolan. Bestetik, konfiantza, gertutasun eta errespetu falta batekin ere uztatu izan da. Eta honek, hau da, hitanoari lotu izan zaizkion uste eta balio hauek hizkuntza tratamenduaren erabileran eragina izan dute, batez ere, noketaren galeran zerikusi nabarmena izan dutelarik, eta emakumeen erabilera urrian oro har.
- Gaur egun, Antzuolako gazteen artean hitanoa nolabaiteko “pedigri” batekin lotzen da, eta honen aurrean emakume zein gizonen erabileran jarrera ezberdinak hartuko dituzte.
- Antzuolako hainbat emakume gazterentzat, zukatik nokarako saltoa ahalduzko prozesu baten baitan kokatzen da.

1.2. METODOLOGIA

Arestian aipatutako, helburuak lortzeko asmoz eta hipotesi ezberdinak baieztatu edota ezeztatzeko xedez, metodologia kualitatiboa izan da ikerketa aurrera eramateko aukeratutako metodologia; honek eskaintzen dituen teknika ezberdinak baliatuz.

Baina, ikerlanarekin hasteko, honen lehendabiziko pausua lanaren ildoak finkatzea izan da, hau da, nolabaiteko gidoi bat burutzea. Hitanoa eta generoaren inguruko gaia jorratzen nuen lehenengo aldia izaki, gaian zentratzeko asmoz hainbat dokumentu irakurri ditut. Behin lehendabiziko hartu eman bat izan ostean ikerketa objektuarekin, hainbat hipotesi, helburu, marko teorikoan lantzeko gai eta analisisian sakontzeko ildo erabaki dira.

Hori horrela, eta metodologia kualitatiboa baliatuz helburu eta hipotesiei erantzun bat emateko, hiru teknikaren bidez aurrera eraman da lana: dokumentuen azterketa, behaketa eta sakoneko elkarrizketak.

1.2.1. DOKUMENTUEN AZTERKETA

Marko teorikoan aipatu den gisara, hiketaren eta generoaren arteko lotura ez da egin sarritan. Ez akademiatik, ezta euskalgintzako militantzia guneetatik ere. Hau da, hiketaren erabilera, edota honen erabilerarik eza, ez da ikertu betaurreko moreek ematen duten perspektibatik. Hori horrela, eta hitanoaren beraren gaiaren inguruan ere, bibliografia gutxi dagoen honetan, marko teoriko edota testuinguraketa mardul bat egitea erabaki da.

Dokumentuen azterketaren teknikaren bidez, genero sistemaren eraikuntzaz idatzia dagoena, ekarri nahi izan da marko teorikoko lehen puntura. Hizkuntza eta generoa ardatz dituen lan batean, ezinbestekotzat jo baita, genero identitateen eraikuntza nondik eta nola ematen den azaltzea.

Bestalde, atzerrian hizkuntza eta generoaz idatzi dena ere jaso nahi izan da lanean. Hitanoa euskararen tratamendu bat baldin bada ere, eta berariazko ezaugarri espezifikoak baldin baditu ere, pentsatu da, beste hizkuntza batzuen azterketetatik eratorritako teoriak, baliagarriak izan litezkeela hitanoa eta generoaren arteko azterketarako. Marko teorikoko bigarren puntu honetan aztertutako teorien artean, Robin Lakoff antropologo Estatu Batuarraren teoriak pisu handia izango du ondoren egingo den analisisian.

Bestetik, ikerlanak Antzuolako ikerketaren gaur egungo erabilera aztertzen duen neurrian, garrantzitsutzat jo da sakoneko bilakaera historiko bat aztertzea lanaren baitan; ezinbestekoa baita oraina ezagutzeko, iraganari erreparatzea. Honen bestez, eta euskara eta emakumeen arteko lotura aztertzen duen bibliografia nahiko mardula izaki, historikoki emakumeak eta euskarak zer nolako lotura izan duten aztertu da. Hala ere, gaur egungo euskararen erabileraren feminizazioaren inguruko gogoeta, hausnarketa eta hipotesi ezberdinak ere jaso nahi izan dira. Gai honen inguruan, Jone Miren Hernández eta Jaime Altunaren ikerlanak aztertu direlarik gehienbat. Hala nola, atal honetan eta dokumentuen azterketa teknika erabilia, Paula Kasaresen “hizkuntzaren sozializazioaren” ideiak ere garrantzi berezia izango du. Analisisiko hainbat kontu ulertzeko ezinbestekoa baita.

Marko teorikoarekin amaitzeko, komenigarritzat jo da hitanoaren beraren inguruko azalpen xehe batzuk ematea. Hitanoa euskararen tratamendua izan arren, euskal hiztun

orok ez baitu beraren ezagutzarik. Hori dela eta, eta batez ere Xabier Alberdiren bibliografia erabiliz, hitanoari buruzko ezaugarri interesgarrienak jaso nahi izan dira.

Aipagarria da analisiaren atalean, nahiz eta elkarrizketek eta behaketek pisu nabarmena izan duten, dokumentuen azterketaren teknika ere erabili dela. Elkarrizketatuen hitzak aztertzeko, beste batzuen teoriak eta hausnarketak baliagarriak izan baitira; baita ikerketa honetako emaitzak eta beste batzetakoak parez pare jarri eta konparaketa bat egiteko ere.

Beraz, ikerketaren zati handi batean, beste ikerlari batzuek idatzitako testu eta liburuen bidezko azterketa bat aurrera eraman da, hau da, beste ikertzaile batzuk sortutako bibliografia aztertuz, lanari osotasun bat eman nahi izan zaio.

1.2.2. BEHAKETA

Behaketa eta baita behaketa parte hartzailea ere, antropologiako teknika klasikotzat jo litezke. Behaketak ikerketa objektuarengana modu zuzen eta gertuko batean urreratzea ahalbidetzen du. Teknika honek, ikerlaneko parte hartzaile edota subjektuak izan daitezkeen pertsonen eguneroko praktikak, testuinguru “egiazko” batean, eta “in situ” aztertzeko ahalbidetzen duelarik (Serrano & Gordo, 2008).

Ikerketa planteatzen eta antolatzen hasi nintzen momentutik ikusi nuen baliagarria behaketaren teknika. Baita behaketa parte hartzailearena ere. Antzuola herri txikia izaki, eta ni bertakoa izanda, pentsatu nuen ez zitzaidala horren zaila izango behaketarekin batera, herritarrekin solasaldiak partekatzea; neu ere modu aktibo batean behaketa sartuz, alegia. Hala ere, behaketa oso bat baino, esan liteke ohar ezberdinak jaso ditudala; ez naiz iritsi teknikak eskatzen duen landa koaderno sakon eta xehe bat osatzera.

Beraz, eta teknikaren inguruko azalpen honen ostean, esan liteke bi egunetan zehar eta egindako ibilbideari jarraiki egin direla behaketak. Behaketa hauen helburua, hitanoari lotutako hizkuntza praktikak, espazio publikoan nola ematen diren aztertzeko izan da. Baita, emakume eta gizonen artean ematen diren hizkuntza praktika ezberdinak analizatzeko ere. Hortaz:

- *Ibilbidea*: Behaketa Antzuolako kalean eta bertako lau tabernetan egin da. Aitz Garbi tabernan, Gorostin, Mox tabernan eta Gailur tabernan hain zuzen ere. Lau

taberna hauetan behaketa burutzea hobetsi da, taberna hauetan biltzen baita jende gehien. Bestalde, esan liteke, Aitz Garbin, Gailurren eta Gorostin jende mota ezberdina biltzen dela; batez ere, genero eta adinari dagokionean. Mox tabernan berriz, nagusiki gazteak bildu ohi dira, eta lagun talde gehienak mutilez osatuak izaten direla. Horrela, azken tabernako behaketekin, gazte tokatzaileen hizkuntza praktikak aztertu nahi izan dira espezifikoki. Taberna barruetan ez ezik, hauen kanpoan sortzen diren taldeen hizkuntza ohiturak ere behatu dira.

- *Data:* Lehen behaketa eguna Ekainaren 9a izan zen. Eta bigarrena berriz, 23a. Bi behaketa egunak larunbatak izatea erabaki zen eta iluntze aldera – 19:00etatik 21:00etara-. Larunbat iluntzean behaketa hauek aurrera eramatearen arrazoi nagusia, ahalik eta perfil anitzena aurkitzearena izan da. Larunbateko “poteoan” adin ezberdinetako jendea ibiltzen baita tabernetan. Baita, adinez zaharragoak diren pertsonak tabernetako terrazetan ere.

1.2.3. ELKARRIZKETAK

Hizkuntzaren gaia oro har, eta espezifikoki hitanoarena, ez da izan genero perspektibatik edota teoria feministaren lupatik aztertu izan den gai horietako bat. Antzuolan bertan ere, nahiz eta bertako euskalkiaren inguruan lan bat egin den³, hiketaren gaia bere horretan ez da landu izan.

Hori dela eta, ezinbestekotzat jo da lana burutzeko orduan lehen eskuko testigantza edota lekukotzak jasotzea. Lehen eskuko testigantzak jasotzeko asmoz beraz, sakoneko elkarrizketen teknika erabili da. Hala nola, ikerketa gauzatzeko hamabi bakarkako elkarrizketa egin direlarik.

A) PARTAIDEAK

Ikerketan hitanoaren inguruko diskurtso eta praktika ezberdinak jaso nahi izan direnez, lau taldetan banatuak izan dira elkarrizketatuak:

1. Noka-Toka mantentzen dutenen argudioak jasotzea xede izan duten elkarrizketak bost izan dira. Hiru emakume⁴ eta bi gizon:
 - MARIA LUISA (90 urte): Etxetik jaso izan du hitanoa, eta egunerokotasunean erabiltzen du. Nahiz eta, aitortzen duen, gaztaroan gehiago erabiltzen zuela, gaur egun baino. Elkarrizketa Maria Luisaren etxean egin zen Maiatzaren 15ean.
 - PRUENTXI (94 urte): Hitanoa etxetik jaso du, eta egunerokotasunean hitanoz mintzo da. Erraztasun handiz egiten du toka zein noka. Elkarrizketa Aretxabaletako kafetegi batean egin zen Martxoaren 26an; bera gaur egun bertako egoitza batean bizi baita. Elkarrizketan, Pruentxirekin batera bere iloba bat ere egon zen.
 - LIERNI (59 urte): Hitanoarekin lehen hartu emana etxean izan zuen. Gurasoek ingurukoekin hitanoz hitz egiten baitzuten. Nahiz eta, berari 15-16 bat urterekin hasi zitzaizkion gurasoak hitanoz hizketan. Gaur egun, Antzuolako Udaleko euskara teknikaria da. Eta esan liteke, bere egunerokotasunean hitanoak pisu nabarmena daukala. Elkarrizketa Olanan etxe⁵ gela batean egin zen, Apirilaren 1ean.
 - JESUS (67 urte): Umetatik jaso izan du hitanoa. Eta gaur egun, toka zein nokaz mintzo da. Nahiz eta, tokaz askoz ere erraztasun gehiagorekin egiten duela aitortu. Gaur egun erretiratuta dagoen arren, urte luzez Antzuolako *Elay* enpresa industrialean jardun du lanean. Elkarrizketa Martxoaren 20an burutu zen, Olanan Etxeko gela batean.
 - JON (37 urte): Etxean jaso izan du hitanoa. Gaur egun tokaz eta nokaz mintzatu ohi da, baina nokarako saltoa, tokarakoa baino beranduago eman zuen. Elkarrizketa hau, maiatzaren 3an egin zen Olanan etxe⁵ gela batean.
2. Noka galdu, baztertu edota ikasi ez dutenen argudioak jasotzeko bi elkarrizketa egin dira. Bi elkarrizketatuak emakumeak izan direlarik, eta 50 urtez gaindikoak. Adin batetik gorako emakumeak elkarrizketatzea hobetsi da talde honen baitan. 50 urtetik beherako emakumeak, gehienek ez dakite hitanoz hizketan; eta uste izan da, hitanoaren inguruko diskurtso bat eratzea nahiko zaila izango zitzaiela.

⁴Hasiera bateko asmoa, bi emakume eta bi gizon elkarrizketatzea baldin bazen ere, esan liteke Pruentxiren elkarrizketa ez zitzaidala horren ondo atera. Beraz, belaunaldi bereko beste emakume bat elkarrizketatzea hobetsi nuen. Horregatik, erabaki zen Maria Luisaren elkarrizketa burutzea.

⁵ Antzuolako kultur etxea.

Antzuolako errealitatean arruntena baita, 50 urtez azpiko emakumeek hitanoaren ezagutzarik ez izatea; honen ezagutza eta existentziarik ez dutelako asko eta askok, ez etxetik, ezta kaletik ere. Hori horrela, noketa oraindik bizirik eta inguruan izan duten emakumeak elkarrizketatzea hobetsi da. Nahiz eta beraiek ez diren noketaren jabe:

- MARIA JESUS (68 urte): Antzuolako enpresa garrantzitsu bateko alaba, etxean zein kalean ez du hitanoz ikasi. Hala eta guztiz ere, Antzuolako euskalgintzan paper garrantzitsu bat izan du. Urte luzez, alfabetatze eskolak ematen aritu baita herrian. Elkarrizketa hau, maiatzaren 27an egin zen Olarango etxeko gela batean.
- MARIPI (54 urte): Etxean zein kalean ez du hitanorik jaso. Horretaz gain, amarengandik batez ere, hitanoz hitz egiteko debekuak jaso izan ditu. Gaur egun, Bergarako Udaleko euskara teknikari gisa dihardu lanean. Elkarrizketa hau, apirilaren 17an egin zen Larrea tabernan.

3. Toka erabiltzen duten mutil gazteen argudioak jasotzeko bi elkarrizketa egin dira:

- ERIK (33 urte): Toka etxean jaso du txikitatik. Gaur egun tokaz aritzeko ohitura azpimarratzen du. Baina noka ez du sekula jaso, eta ez dakiela aitortzen du. Elkarrizketa hau, martxoaren 2an egin zen Ongi Etorri tabernan.
- MIKEL (20 urte): Hitanorik etxean ez duela jaso aitortzen du. Toka beraz, lehengusuen artean eta kalean ikasi duela azpimarratzen duelarik. Gaur egun, tokatzailea da. Nahiz eta, noketarekin unibertsitatean hartu eman batzuk izan dituen, berau asko kostatzen zaiola plazaratzen du. Elkarrizketa hau, apirilaren 10ean egin zen Olaran etxeko gela batean.

4. Noka erabiltzeko trantsizioa egin dutenei, eta egun oraindik ere egiten ari direnen argudioak biltzeko, bi elkarrizketa egin dira. Bi elkarrizketatuek une antzerakoan eta elkarrekin abiatu zuten trantsizioa. Lehengusinak eta koadrila kideak dira bi elkarrizketatuak, eta modu kontziente batean eta elkarrekin hartutako erabakia izan zela esan liteke nokarako salto hau. Biek ala biek, euskalgintzatik eta noketaren galerak kezkatuta egin zuten salto hau:

- MAIALEN (30 urte): Hitanoa etxetik jaso duen arren, ez du orain dela 2-3 urte arte berau erabili. Gaur egun, noketaz mintzo da inguruko neska

gutxi batzuekin. Toketarako saltoa ez duela egin aitortzen du. Elkarrizketa hau, maiatzaren 9an egin zen Gorosti tabernan.

- ANE (25 urte): Maialenek bezala, hitanoa etxean jaso duen arren, ez du orain dela 2-3 urte arte berau erabili. Gaur egun, noketaz mintzo da inguruko neska gutxi batzuekin. Toketarako saltoa ez duela egin aitortzen du. Elkarrizketa hau, apirilaren 27an egin zen Zumarragako taberna batean.

Aipatu beharra dago, elkarrizketatu guztiak Antzuolan jaio eta bizi diren pertsonak direla, bat izan ezik. Juan Martin Elexpuru Bergararra ere elkarrizketatu baita ikerlan honetarako. Elexpuru idazlea eta euskal filologian doktorea da besteak beste. Horretaz gain, hainbat hikari buruzko jardun antolatu ditu Deba Goieneko eskualdean, baita Antzuolan ere. Hori horrela, eta gaian aditua den pertsona baten diskurtsoa bertatik bertara ezagutzeko asmoz, Bergarako Laino tabernan egin zen elkarrizketa ekainaren 15an.

Laburpen gisara eta ulergarritasuna irabazteko asmoz, ondorengo taula argigarria izan liteke. Honen harira aipatu, analisisan, taulan bezala aipuen alboan, berau esan duen pertsonaren izena, honen adina eta hitanoarekin duen harremana azpimarratuko direla. Uste baita, aipua bere osotasunean ulertzeko eta ondorengo analisia konprenitzeko, datu hauek lagungarriak direla:

1. Taula: *Elkarrizketatuen laburpen taula*

ELKARRIZKETATUAREN IZENA	ADINA	HITANOAREKIN DUEN HARREMANA
Maria Luisa	90 urte	Toka-Noka
Pruentxi	94 urte	Toka-Noka
Lierni	59 urte	Toka-Noka
Jesus	67 urte	Toka-Noka
Jon	37 urte	Toka-Noka
Maria Jesus	68 urte	Nokarik ez
Maripi	54 urte	Nokarik ez
Erik	33 urte	Toka
Mikel	20 urte	Toka
Maialen	30 urte	Nokarako trantsizioa
Ane	25 urte	Nokarako trantsizioa
Juan Martin Elexpuru	Ez da zehazten	Ez da zehazten

Iturria: Norberak egina.

Lau – eta Juan Martin Elexpururena- elkarrizketa talde sortu direnez, edota lau perfil desberdin aurkitzen saiatu garen neurrian, gidoiak ere lau desberdin izan dira – eta beste bat Elexpururena-⁶. Oro har ez daukate ezberdintasun nabarmenik, eta lau gidoiek gai berberen inguruan egiten dituzte galderak. Nahiz eta ondoren, “talde espezifiko” bakoitzak, berari espreski zuzendutako galderak izan. Adibidez, Noka galdu edota baztertu zaienei, hitanoa erabiltzeko debeku espezifikoiei buruz galdetzen zaie. Edo, Nokarako trantsizioa abiatu dutenei, trantsizio horrek eragindako sentipenei buruzko galderak egiten zaizkie; trantsizio hau, ahalduntze batekin esaterako lotu litekeen edo ez jakiteko. Bestalde, eta nahiz eta gidoi zehatzak eskuetan hartuta hasi elkarrizketa bakoitza, esan beharra dago gidoia bere horretan elkarrizketa batean ere ez dela errespetatu. Beti sortu izan baitira, modu espontaneo batean beste galdera batzuk.

Elkarrizketak egin ahal izateko kontaktua, modu informal batean egina izan da. Elkarrizketatu guztiak herrikoak izaki, whatsapp bidez edota aurrez aurreko hartu emanean egin izan dira hitzorduak elkarrizketetarako.

Amaitzeko azaldu beharra dago, elkarrizketa guztiak ahots grabagailuz grabatu direla. Garrantzitsutzat jo du egileak elkarrizketak grabatzea, ondoren materialaren analisi egoki bat, erraztasun eta zehaztasun gehiagorekin burutu ahal izateko.

2. GENERO IDENTITATEAREN ERAIKUNTZA

XVIII eta XIX. mendeetan paradigma aldaketa bat eman zen Europan. Mende hauetan hainbat iraultza eta eraldaketa prozesu medio, garai premodernotik edo gizarte teokratiko batetik, gizarte modernorako jauzia eman zen.

Aldaketa honek, eraldaketa historiko bat baino gehiago suposatuko du sexu-genero aldagaiei dagokienez. Ikerlanean, generoak eta honi atxikitzen zaizkion rolek pisu berezia eta garrantzizkoa izango dutenez, komenigarria da kategoria honen inguruko hainbat zehaztapenek osatzea lehen atala.

⁶ Gidoi guztiak eranskinetan ikus litezke.

2.1. GIZARTE TEOKRATIKOA ETA MISOGINIAREN PARADIGMA

Garai historiko premodernoren edo gizarte teokratikoaren ardatzetako bat, sistema estamentalak izan zen. Hau da, antzinako erregimenaren baitan sistema soziopolitikoak hiru estamenturen arabera antolatuta zegoen. Batetik noblezia; bestetik, kleroa eta azkenik, herria. Hirugarren estamentu honetan aurkitzen ziren, nekazari, artisau zein burgesiako parte ziren pertsonak. Beraz, jaiotza estamentuak zehaztu eta mugatzen zuten, norbera zena eta izan zitekeena bizi guztian zehar. Bestetik, berdintasuna printzipio gisara ez zen existitzen gizarte hauetan. Komenigarria da aipatzea, premodernitateko mundua ezagutzeko bidea erlijioa zela; Jaungoikoak baitzuen egi absolutua (Aresti, 2000).

Genero gaiei dagokionez esan liteke, Frantziar iraultza aurretiko Espainia – eta halaber, baita Euskal Herria ere – guztiz misoginoa⁷ zela. Hau da, misoginiaren paradigma gailentzen zen urte haietan; ondoren ikusiko dugun ezberdintasun sexualaren paradigmaren sorrera baino lehen. Garai honetan, izaki perfektua izateko era bakar bat zegoen. Hau da, perfektzioa gizon eta emakumeentzat berdina zen; oraindik ez baitzen existitzen emakume eta gizonen arteko ezberdintasun biologikoen inguruko diskurtsorik, bi sexuak sexu antagonikotzat jotzen dituen alegia. Pertsona perfektu hori, fisikoki indartsua, ausarta, beldurrik gabea... zen. Hau da, ezaugarri edota balio “maskulinoak” zituen perfektio bakar honek (Aresti, 2006: 58)

Sexu bakardun gizarte antolaketaz ere hitz egin daiteke. Gaur egungo feminitate eta maskulinitate ereduak ez ziren existitzen garai hartan, bakoitza bere atributu eta balore espezifikoekin. Baina, premodernitateko emakumeen gehiengoak, ez zituen izango goian aipatutako izaki perfektu horren balio eta ezaugarriak. Beraz, emakumeen gehiengoa behe mailakoa eta izaki ez amaitutzat jotzen zen (Arbaiza, 2017).

Baina garai honetako gizartearen ezaugarri nagusietako bat hierarkia soziala zen. Hau da, norbere jatorriak markatzen zuten bizitza guztian zehar izan beharke zenukeena. Errealitate honetan, eta sexuen arteko diferentzia ulertzeko modu guztiz ezberdin batekin, emakume batzuek aurkitzen zuten misoginia honi aurre egiteko arrakala bat. Historian zehar “izaki perfektu” hori izatera iritsi ziren emakumeak aurki genitzake.

⁷ Garai honetan “femeninoa” zen dena mespretxagarria zen. Honen aurrean emakumeak, bi emakumetasun eredu hertsitan banatzeko joera zegoen: Mariaren eredu jarraitzen zutenak edota Eva bekatariaren eredu jarraitzen zutenak.

Baina perfekzio maila goren hori lortu zuten emakumeen kasuetan, jaiotze estratua eta gizartearentzat burututako lana, feminitatea baino garrantzizkoagoak izan ziren. Kasu askotan, emakume hauek “izaki perfektu” bihurtzeko bidea, “gizon” planta hartuta izaten zen (Aresti, 2000) .

Perfekzio maila goren hori lortu zuen emakumetzat jo liteke, Catalina de Erauso moja eta konkistatzaile donostiarra. Emakume honek komentua utzi eta Ameriketara konkistatzaile gisa joatea erabaki zuen. Horretarako, gizonen estetika eta arropak jantzi behar izan zituen. Txilen izandako borrokaldi baten ostean, eta zauri batzuk medio, bere benetako sexua deskubritu behar izan zuen. Baina orduko agintari politiko zein elizgizonek, trabestismo honen aurrean errefusa erakutsi eta Catalina baztertu ordez, hainbat kondekorazioren protagonista bihurtu zuten (Aresti, 2006). Catalinaren adibideak erakusten digu, gorputzak eta genero identitateak, modernitateko ezberdin ulertzen zirela premodernitate garaian.

2.2. MODERNITATEA: SUBJEKTU MASKULINOAK VS OBJEKTU FEMENINOAK

XVIII. mendean Frantziar Iraultzarekin batera, garai historiko berri baten sorrera eman zen, modernitatearena alegia. Garai berri honetan, arrazionalismoa⁸ gailendu zen mundu ikuskera eta berau ulertzeko teoria gisa. Beraz, gizakia, gizaki izango da pentsatzen duen neurrian (Aresti, 2000).

Bestetik, gizarte berri honen sorreran pisu politiko eta teoriko handia izan zuen iusnaturalismoak; Jean-Jacques Rousseau buru zuelarik. Korrante honen jarraitzaileek tradizioa eta Jainkoaren egia zalantzan jartzen zituzten, eta erlijioari naturak gain hartu zion. Hau da, jada erantzunak ez zituen erlijioak eskainiko, baizik eta naturak. Naturan aurkitzen dira mundua ezagutu eta deskubritzeko erantzunak, soilik argitu egin beharko direnak (Arbaiza, 2017).

Naturak beraz, egia azaltzen digu. Diskurtso hau oinarritzat harturik, sortu zen desberdintasun sexualaren paradigma. Hau da, jada ez da existituko “gizaki perfektu” bat, bi izaki perfektu baizik. Gizonezkoak eta emakumezkoak biologikoki guztiz ezberdinak izango dira paradigma honen baitan, hau horrela, emakume perfektuak ez du

⁸ Arrazionalismoa XVII. mendean Frantzian sortu zen korrante filosofikoa da. Korrante honen arabera, arrazoiaren bidez, errealitatearen egitura eta natura bera uler litezke (Margot, 1988)

zerikusirik izango gizon perfektuarekin. Orduko klase burgesek, maskulinitate eta feminitate eredu espezifikoko eta zurrinak sortu zituzten. Bestalde, biologian oinarritutako argudioak baliatuta, emakumea subjektu politikotik at gelditu zen; eremu publikoa gizonen gune espezifikoko bihurtuz, eta eremu pribatua emakumeen eta feminitatearen ikur bilakatuz (Aresti, 2000: 364).

Ezberdintasun sexuala azaltzen duen esku liburu klasikoetako bat da Jean-Jacques Rousseuren *Emilio* liburua adibidez. Liburu honetan argi eta garbi azaltzen da emakume perfektuak nolakoak izan behar duen eta aldiz, gizon perfektuak nolakoak izan beharko lukeen. Gizonak aktibo, oldarkor eta indartsuak izan beharko dute. Eta emakumeak aldiz, geldo eta ahulak. Emakumearen rol garrantzitsuetako bat gizonari gustaraztea izango da. Ama paperak ere, leku nabarmena izango du *Sofiaren*⁹ bizitzan (Rousseau, 1762).

Garai hartako filosofo ezberdinekin jarraiki, Voltaireren hiztegi filosofikoan ere, ikus genezake anatomia eta biologiak nola determinatzen duen emakumetasuna; eta halaber, emakumea emakume izateagatik gutxiagotasun egoera batean aurkitzea:

“Ningún anatomista, ni físico, ha podido saber jamás cómo conciben. Los flujos periódicos de sangre que las debilitan durante ese período, las enfermedades que nacen de la supresión del ménstruo, el tiempo de embarazo, la necesidad de amamantar a los hijos y cuidarlos y la delicadeza de sus miembros, las hacen poco aptas para las fatigas de la guerra y el furor de los combates” (Alonso, 1820).

Generoaren inguruko diskurtso hauek sortzeko eta emakumeak arrazoimena erabiltzeko zailtasunak edo ezintasuna duela erakusteko, ezinbestekoak izan ziren argudio biologiko eta anatomiko hauek. Premodernitatean beraz, Jainkoak izaki antzerakoak sortzen zituen, arima berberarekin bederen. Baina zientziarekin eta biologiaren argudioekin emakumeak adingabeko subjektu gisa eratuko dira modernitate garaian. Antzinako erregimenean, hamar mandamentuek legeriarik indartsuena osatzen zuten bitartean, modernitatean Napoleon Bonaparteren kode zibilak ate guztiak itxi zizkien emakumeen autonomiari (Aresti, 2000: 178).

⁹ Emilio izeneko obran, V. liburua Sofiari eskainita dago. Hau da, Sofia izenez irudikatzen da, emakumeak izan behar duen izaki perfektu hori.

2.3. GENERO SISTEMA: ANTROPOLOGIATIK AZALPEN EZBERDINAK

Ikusi dugun legez, modernitate garaitik, naturari eta biologiari atxiki zaizkio genero ezberdintasunak. Baina antropologia sozial eta kulturaletik, ezberdintasun eta genero harreman hierarkizatuei azalpen soziokulturalak ematen ahalegindu dira antropologiako aditu ezberdinak.

70. hamarkadan hiru antropologo, emakumearen zapalkuntza unibertsalaren kausak aztertzen saiatu ziren. Zentzu honetan, hiru teoria nagusi izango ditugu, hamarkada honetan zeresan nabarmena eman zutenak. Batetik, Nancy Chodorowren teoria legoke. Chodorowk teoria psikoanalista ardatz hartuta, eta amatasunaren eraikuntza soziokulturala oinarritzat harturik, emakumeen zapalkuntzaren zergatietako bat plazaratu zuen (Thurén, 1992)

Bigarren teoria aldiz, Sherry Ortnerren eskutik datorkigu. Ortnerrek kultura eta naturaren arteko konparaketa bat egin zuen. Bere aburuz, munduko gizarte ezberdinetan, naturak balio sozial gutxiago izango luke kulturak baino. Hori horrela, gizonezkoek kultura irudikatuko lukete, emakumezkoek natura irudikatzen duten bitartean. Hau da, naturaren balio ezak eta emakumearen naturarekiko identifikazioak ekarriko luke honen zapalkuntza (Ortner, 1979)

Emakumearen zapalkuntzaren arrazoi unibertsala azaltzen saiatu zen azken teoria aldiz, Michelle Rosaldorena da. Hirugarren autore honek ere, nolabaiteko analogia bat burutu zuen; kasu honetan eremu pribatuaren – emakumeen eremua-, eta eremu publikoaren – gizonen eremua- artean. Ikerlari honen arabera, espazioa banatzeko modu honek, boterearen banaketa ezberdindua ekarriko luke (Thurén, 1992).

Nahiz eta, hiru autore hauek emakumearen zapalkuntza azaltzeko argudio biologikoak albo batera utzi, eta zio kulturei erreparatzeko ahalegina egin zuten, hainbat kritikaren jomuga izan ziren hiru teoriak. Teoria hauek emakumearen zapalkuntzaren kausa unibertsalak azaltzen saiatu ziren, eta kritika ezberdinek etnozentrilotzat jo zituzten azalpen eta teoria hauek.

Baina, zalantzarik gabe, Gayle Rubin-ek 1975ean idatzitako *The traffic in Women: Notes on the 'Political Economy' of sex* zehaztu eta zabaldu zuen diferentzia sexualaren

eraikuntza sozialaren ideia. Honela deskribatzen du Rubinek (1986: 97) sexu-genero sistema:

Un sistema de sexo-género es el conjunto de disposiciones por el que una sociedad transforma la sexualidad biológica en productos de la actividad humana, y en el cual se satisfacen esas necesidades humanas transformadas.

Rubinen ustez, beraz, gizarte orok sexu-genero sistema bat du gizon eta emakumeak sortzen dituen haien arteko ezberdintasunak azpimarratuz, eta antzekotasunak ezabatuz (*ibid.*:115).

Bestalde, eta nahiz eta filosofiatik gertuago egon antropologiatik baino, generoaren inguruan teorizatu zuen lehenengotako autorea Simone de Beauvoir idazle frantsesa izan zen. “*Bigarren sexua*” izenburua hartzen duen bere liburu ospetsuan, honela mintzo da generoaren eraikuntza sozialaren inguruan:

“La humanidad no es una especie animal: es una realidad histórica... De esta forma, no se puede considerar a la mujer como un organismo sexuado: entre las circunstancias biológicas, sólo tienen importancia las que adoptan un valor concreto en la acción; la conciencia que tiene la mujer de ella misma no está definida únicamente por su sexualidad.” (Beauvoir, 2005: 115)

Gaur egun oraindik ere Mendebaldeko gizarteetan sozializazioaren bidez, mutil eta nesken arteko bereizketa ematen da. Hau da, etorkizuneko gizon eta emakumeak, balio eta printzipio ezberdinekin eraiki eta hezten dira, euren bizitzetara zentzu diferentek emanaz. Heldu bihurtzean gizartean funtzio desberdinak -eta hierarkizatuak- bete ditzaten (Lozano, 1995).

Sozializazio prozesu honetan, indibiduo bakoitzari rol eta funtzio ezberdinak atxikitzen zaizkio. Jaiotzean emakume gisa izendatuak izan direnak, arau eta portaera jakin batzuen baitan sozializatuak izango dira. Eta jaiotzean gizon gisa izendatuak izan direnak berriz, beste portaera batzuk barneratu behar izango dituzte. Emakume zein gizon izendatuak izan direnek, genero rol batzuen arabera harremandu eta bizi beharko dute (Buedo, 2016: 153)Argi utzi beharra dago, genero sistemak pertsonak oro har, asko baldintzatzen baditu ere, badituela ihes bide txiki batzuk. Hau da, subjektuek badute beraien agentzia; sozializazio prozesua ez da izango guztiz determinista.

Beraz, emakumeei alde batetik eta gizonei bestetik esleitzen zaizkien funtzio sozial ezberdinak izango dira genero rolak. Hauek ez dira unibertsalak izango (*Idem.*). Hau da, Donostian emakume izatea edota Nepalgo mendietako herrixka batean emakume izatea, ezberdina da. Leku bakoitzean emakumetasunari rol edota funtzio ezberdinak esleitzen baitzaizkio. Hau da, sozialki eraikitako genero roletan izakiak bereizteak espazio tenporal, sozial eta historiko batean jendarte zehatz bat sailkatu, eta orden sozial bat mantentzeko funtzionalitatea dauka (N. Alvarez, 2015: 15).

Hau horrela, eta aurreko orrialdeetan aztertu den modernitateko prozesu historiakoaren herentziaz, emakume eta gizonezkoek bete beharko dituzten genero rolak, zehazki definituta agertuko zaizkigu.

Begirada patriarkal batetik eta gure espazio geografiko eta historikoan, emakumeek eta feminitate hegemonikoaren gerizpean, xamurtasuna, ulertzeko gaitasuna, barkatzekoa, men egitekoa, maitasuna eman eta adieraztekoa, eta zaintzarako izango lituzkete ezaugarri nagusizat. Honek emakumeak izaki pasibo gisa marraztuko lituzke, inongo agentziarik gabe. Beti besteen zerbitzura dauden pertsona lez. Maskulinitate hegemonikoak aldiz, pribilegio eta botere batzuk barnebiltzen ditu, emakume eta gizonen arteko berdintasun eza areagotzen dituenak. Honen ezaugarriak lirateke: arrazionaltasuna, lehiakortasuna, biolentzia, gogortasuna... (Rodó de Zárata & Estivill i Cantany, 2016: 22)

Haatik, genero rol hauek gaur egun gutxieneko malgutasun bat eduki badutela esan liteke. Baina ikerlanarekin lotuz, azpimarratu beharra dago, uste dela genero rol tradizional hauek eraginik izan dezaketela gaur egun hizkuntzaren – eta zehazki hitanoaren- erabileran.

Honekin loturik, feminismotik azken hamarkadetan, generoaren sorkuntza eta identitatearen eraikuntza prozesuaren inguruko hainbat gogoeta interesgarri egin dira. *Performance* kontzeptua, Judith Butler (1990) pentsalariaren teorien bidez azken hamarkadetako feminismoaren – batez ere, feminismo akademikoaren- “hitz-izar” gisako bat bihurtu da. Butlerren aburuz, eta hitz honi loturik, ekiteak eraikitzen du; hau da, ez dago ezer zehatzik aurretik osatzen gaituena. Hau da, generoa etengabe “antzezten” (performatzen) dugunez, generoa ez da identitatea, errituala baizik: “(*el genero*) *no es una tarea prescriptiva que tengamos que empeñarnos en realizar, sino una tarea en la que estamos empeñados todo el tiempo*” (Butler, 1990:198).

Gutziz interesgarriztat jotzen dut pentsalari Estatu Batuarrak eginiko ekarpena. Baina ikerketa lana Antzuolako herrian kokatua izaki, uste dut emakume eta gizon kategoriak erabiltzea egokiagoa dela, herriko pertsona gehientsuenak bi kategoria horiekin identifikatuta sentitzen baitira. Beraz, ikerlan honetan gizon-emakume kategoriekin jolastu eta beraiek aztertzeke hautua egin da.

3. HIZKUNTZA ETA GENEROA UZTARTUZ

Bigarren atal honek, hizkuntza eta generoaren arteko loturaz gogoeta egitea izango du helburu. Bi zati nagusitan banatua izan da atala. Lehenengo puntua, mintzaira femeninoaren eta maskulinoaren inguruko gogoetek osatzen dute. Historian zehar, gai hau nola jorratua eta aztertua izan den azalduko da. Bigarren puntuan aldiz, dominaziozko ikuspegia eta desberdintasunarena aztertuko dira. Bi perspektiba hauek izan baitira nagusi soziolinguistikan, hizkuntza eta generoaren elkarguneak azaltzeko orduan.

3.1. MINTZAIRA FEMENINOA ETA MASKULINOA

Urte luzez eta diziplina ezberdinetatik, dezente idatzi izan da mintzaira femenino eta maskulinoaren inguruan. Hizkuntza eta hitz egiteko moduak, genero identitatearekin lotura zuzena dutela erakusten diguten hainbat lan argitaratu dira mende luzez, asko eta asko, aurreiritzi eta estereotipo jakin batzuetan oinarritutakoak.

Atal honek generoen arteko mintzaira modu ezberdinei buruz esan direnak jasotzea helburu baldin badu ere, aipatu beharra dago, Espainiar Estatuan gai honen inguruan idatzi diren testu gehienetan – baita atsotizetan ere- transmititzen den feminitate eredu isiltasunarekin lotuta dagoela. Hau da, isiltasuna emakumearengan laudagarria da eta haatik, bere hitza zentsuragarria da gehienetan. Testu tradizional hauetan jasotzen den emakume isila ederra eta otzana da; emakume berriketalaria aldiz, alper, lotsagabe eta ezjakin gisa azaltzen da (Lozano, 1995: 21).

Hala eta guztiz ere, Baltasar Castiglione idazle italiarraren *El Cortesano* liburuan - 1528.urtean argitaratua- ageri den gisara, genero rola eta klase soziala elkarloturik aurkitzen dira mintzairari lotutako hainbat pentsamoldetan. Italiarrak liburuan gorteko emakume bat deskribatzen du, eta elkarrizketarako dohainak azpimarratzen ditu; hori bai, ez gehiegizkoak (Castiglione, 2008). Gaztelaniazko hainbat esamoldek ere

barnebiltzen dituzte genero rola eta klase sozialari dagozkion usteak: “*Hablar como una dama, hablar como una verdulera...*” (Goddard, 2005:118).

Genero rol eta klase sozialaz haratago, Tomas de Iriartek *La señorita malcriada* liburuan, hiriburu eta landa eremuko emakumeen isiltasun eta mintzairaren inguruko gogoeta egiten du. Bi kasuetan, emakumeen helburua ezkontzeko gustagarri suertatzea izan beharko da; baina hiriburuetakoko emakumeentzat ezinbestekoa izango da hizketarako gaitasuna, eta nekazal inguruneko emakumeen kasuan isiltasunak mesede gehiago egingo die (de Iriarte, 1978:354).

Nahiz eta, hiriko eta estatus sozial jakin bat zuten emakumeei gutxieneko hizketarako gaitasun bat exijitu eta goraiatu, orokorrean isiltasuna gomendagarriagoa zen, elkarrizketetarako gehiegizko trebezia erakustea baino. Katalanezko atsotitz batek erakusten duen gisara: *La bona dona callada y la dolenta xerra* - Emakume ona isilik eta gaiztoa hizketan- (Lozano, 1995:24).

Aspaldikoak dira feminitatea eta “emakume onaren” figura isiltasunarekin lotzen duten autore zein obra hauek. Baina esan liteke, gaur egunera ere iritsi direla uste hauen zipriztin eta zantzuak. Azken finean, isiltasuna emakumeengan goraiatua da pasibotasuna, otzantasuna, ahultasuna eta hitza dutenek ezarritako normen betetzearen adierazle delako (*Ibid.,:* 26).

Isiltasunaren gaia atzean utzita, aipatu beharra dago, Otto Jespersen izan zela emakume eta gizonen hizketa modu ezberdinak modu akademikoago batean aztertu zituen lehenengotako hizkuntzalaria; *Language, its nature, development and origin* (1922) liburuan. Kapitulu bat eskaintzen dio ikertzaileak sexuen arteko hizketa modu ezberdinei; kapituluaren izenburua bere horretan nahiko deigarria da: *The woman – Emakumea-*. Hau da, gizona arau edo norma gisa ikusten du Jespersenek eta emakumea aldiz, norma honen desbideratze gisara. Hizkuntzalari danimarkarrak gizon eta emakumeen hiztegietakoko ezberdintasunetan jarri zuen arreta.

Jespersenek arabera, emakumeek gizonen baino gehiagotan moztu dituzte esaldiak pentsatu gabe hasten direlako hizketan (Jespersen, 1922:250). Bestetik, eta liburu berean argitaratutakoaren harira, ondorio nagusietako bat emakumezkoen hiztegi urria izango da. Hau da, emakumezkoek gizonezkoek baino hiztegi murriztagoa izango dute; gizonen, emakumezkoek ez bezala, beraien pentsamenduak modu zurrunean adierazteko

beharra daukatelako (*Ibid.,:* 248). Horretaz gain, hizkuntzalariaren ikerketen emaitza gisa, emakumeen hizketa modu murrizt honek ez du inongo zerikusirik izango hauek jasotako heziketarekin. Emakumezkoen berezko gaitasunei, hau da, gaitasun naturalei atxikitzen dizkie Jespersenek hiztegiaren murriztasun hauek.

Zoritzarrez, hasiera bateko hizkuntzalari hauen hurbilpena gizon eta emakumeen arteko mintzaira ezberdintasunera, beraien aurreiritzi eta androzentrismotik izan zen. Batetik, eta androzentrismo honen eraginez, diferentziak, berezko emakumeen kontu “arraro” eta natural gisa aztertuak izan ziren. Eta bestetik, ikuspegi maskulino honetatik, emakumeen hizketa modua gizonezkoena baino maila bat beheragokoagoa izango da; lengoia defizitario gisa kalifikatuz (Lozano, 1995: 67).

Amaitzeko aipatu beharra dago, mintzaira maskulino eta femeninoaren arteko ezberdintasun edo desadostasunak izaera anitzekoak izan litezkeela. Azalpen unibertsalistetan erori aurretik, komeni da azpimarratzea, hauek gizarteko egituraren eta bertako baloreen fruitu direla. Beraz, gizarte batetik bestera diferentziak ezberdinak izango dira (*Ibid.,:*74).

3.2. DOMINAZIOAREN IKUSPEGIA ETA DESBERDINTASUNARENA

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, XX. mendean zehar – eta baita lehenagoko urteetan ere- emakume eta gizonezkoen mintzairari buruzko hainbat lan argitaratu ziren; lan asko eta askok, estereotipo eta aurreiritzietan zutelarik oinarria. Baina 1966. urtean eta soziolinguistikaren¹⁰ garapenarekin, iritsi zen William Laboven lana; sexuaren aldagaia soziolinguistikaren ikerlanetan ezinbestekotzat jotzen zuen lana, alegia(Acuña & Álvarez, 2003:10).

Beraz, 60. hamarkadatik aurrera hizkuntza eta generoaren arteko zubiak eraikitzen joan ziren soziolinguistikaren baitako hainbat azterketetan. Baina 70. hamarkadan argitaratutako hainbat lanen harira, bi ikuspegi nagusitu ziren hizkuntza eta generoaren analisiari dagokionean: Dominazioaren ikuspegia –Lakoffen gidaritzapean- eta desberdintasunaren ikuspegia –Tannen-en gidaritzapean besteak beste- (*Ibid.,:*11).

¹⁰ “Soziolinguistika definitzea ez da lan erraza. Asko idatzi eta eztabaidatu da zientzia honen zeregina eta ikerketen helburuen inguruan. Erratu gabe esan daiteke gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkarreragina aztertzen duela. Arazoa aztertzailearen kokalekuan eta azterketaren ikuspegi dago: gizarteari, hiztunari ala hizkuntzari begira egiten den” (Zarraga, 2010: 21)

3.2.1. DOMINAZIOAREN IKUSPEGIA

Dominazioaren perspektibatik, emakume eta gizonezkoek modu ezberdinetan hitz egitearen arrazoia, emakume eta gizonen arteko desoreka soziala litzateke. Hau da, historikoki gizonek emakumeak menpeko egoera batean mantendu dituzte, eta horixe litzateke mintzaira modu ezberdinean erabiltzearen zioa; gizon eta emakumeen artean ematen diren gizarte harreman hierarkizatuak alegia (Lozano, 1995:127).

Robin Lakoff hizkuntzalari feministaren *El lenguaje y el lugar de la mujer* (1975) ikerlana izango da, ikuspegi hau jorratu zuen lan aitzindaria. Hizkuntzalari honen arabera, emakume eta gizonen hizketak heziketaren bidez sortuak dira; umetatik transmititutakoak.

Mintzaira femeninoaren funtsezko sei ezaugarri aipatzen ditu Lakoffek lanean: Jostearekin, sukaldaritzarekin eta koloreen ñabardurekin lotutako hiztegi espezifikoko baten erabilera mardula; adjektibo “hutsen” erabilera, adibidez, gaztelaniazko *divino* edo *encantador*; baieztapen baten intentsitatea gutxitzen duten babesteko esamoldeak, adibidez, “nik esango nuke...”; *question tags*-en erabilera, “atzo ez zinen etorri, ezta?”, non azken galdera horrek entzuleari ezeztatzeko bide bat zabaltzen dion; gramatika zuzenegi baten erabilera eta azkenik, galdera formako erantzunak ematea, baieztapen bat espero denean. Adibidez, “Zein ordutan egongo da prest afaria?” galderari “Seietan!” erantzun beharrean “seietan?” erantzutea (Lakoff, 1981).

Hizkuntzalari honen arabera, emakumeei beraien identitatea itotzeko moduan erakusten zaie hitz egiten, eta honek, esaldietan segurtasunik eza plasmatea dakar (Lakoff, 1981: 23). Emakumearen mintzaira modu honek diskriminazioa lekarke. Batetik, mintzaira modu espezifikoko hau ez badu onartzen, gizartetik baztertuta gelditzeko arriskua izango du; eta bestetik, lengoia femeninoaren ezaugarriekin hitz eginez gero, zurruntasun eta zuzentasun osoz hitz egiteko ezgai gisa hautemana izango da (*Ibid.*:29). Beraz, emakumeak bi modutan atzemango du diskriminazio linguistikoa; Batetik, hizkuntza erabiltzen erakusten dioten moduan eta bestetik, hizkuntzak era kolektibo batean emakumeak tratatzeko daukan moduagatik (Lakoff, 1981: 32).

Bestetik, bada Lakoffen ikerketan puntu bat, lan honen analisirako – hau da, genero rolen eta hitanoaren erabilera aztertze- balio berezia izan lezakeena. Hizkuntzalari estatu batuarrak garrantzi nabarmena ematen dio kortesiaren aldagaiari:

“El lenguaje de la mujer se distingue del lenguaje del hombre en que las mujeres son más corteses, que es precisamente lo que debe ser, porque la mujer es la depositaria de la moralidad y del civismo; y cuando estamos entre mujeres hablamos, como compensación, de manera especialmente cortés, puliendo la brusquedad del bastardo lenguaje masculino: sin jerga, sin blasfemias, sin insinuaciones fuera de tono” (Lakoff, 1981:84).

Ikerlan honen arabera, emakumeek kortesiazko jarrera bat mantendu behar dute. Gizonek beraien artean ez dute horrelako jarrera berezirik mantendu beharko. Baina gizonak adeitsuak izan beharko dira, emakumeekin, talde mistoetan aurkitzen direnean (*Ibid.*: 101).

Hiru dira kortesiazko hartu emanetan garrantzia izango duten arauak:

1. Formaltasuna: Distantzia markatzen lagunduko du.
2. Begirunea: Entzuleari aukerak emango dizkio.
3. Adiskidetasuna: Sinpatiaren adierazle da.

Hitanoaren gaiarekin lotuta, lehenengo kortesiazko araua egongo litzateke. Hau da, Lakoffek bere lanean jartzen duen adibide baten harira, *“esta regla la encontramos por ejemplo en las lenguas que distinguen entre tú y usted; cuando se emplea el usted, el efecto es crear distancia entre el hablante y el oyente”* (Lakoff, 1981: 102). Lehen arau hau – distantzia markatzearena-, emakumeek gehiago erabiliko dute gizonezkoek baino; nahiz eta, gizonezkoek emakumezkoekin eta estatus sozial ezberdin bat duten beste gizon batzuekin ere, erabiliko duten. Gizonek aldiz, hirugarren araua erabiliko dute gehienbat, hau da, adiskidetasunarena. Hau da, gizonek “anaitasunezko” harremanak eraikiko dituzte beraien artean (*Ibid.*: 123).

3.2.2. DESBERDINTASUNAREN IKUSPEGIA

Desberdintasunaren ikuspegitik, gizon eta emakumeak bi subkultura soziolinguistiko ezberdinen partaide dira. Bi subkultura hauek, harremantzeko arau eta modu espezifikoak izango dituztelarik. Ikuspegi honen arabera, emakumeak kortesiaz eta modu kooperatibo batean harremantzen dira, konexio eta solidaritatea bilatuz. Gizonak aldiz, estatus bat eskuratzeko lehiatzen dira. Beraz, ikuspegi honen baitan kokatzen diren autore ezberdinen arabera, harremantzeko modu desberdin hauek, generoen arteko komunikazio harremanetan gaizki-ulertu dezente eragiten dituzte;

arazoa hortaz, gizon eta emakumeen harremantzeko era ezberdinak lirateke (Acuña & Álvarez, 2003: 11).

Deborah Tannen hizkuntzalari estatu batuarraren lana izango da, ikuspegi honen erreferentziazoetako bat. 1990. urtean argitaratu zuen ikerlariak *No me entiendes: ¿Por qué es tan difícil el diálogo hombre-mujer?* liburua. Ikerketa honetan, hainbat bikote heterosexualen arteko gaizki-ulertuak aztertu zituen. Gizon eta emakumeen arteko hizkuntza ezberdintasunak, kulturalak direla ere mahaigaineratu zuen ikerlan honetan:

“Las mujeres y los hombres aprenden las reglas para su propio sexo y cuando entran en conversación con el sexo opuesto pueden surgir choques entre ambas culturas como acontecen entre dos personas que usan lenguas distintas“ (Tannen, 1991: 52).

Tannen arabera, oinarritzko bi indar aurkitzen dira ezbaian gizarte harremanetan: Boterea eta solidaritatea. Beste pertsona batekin hitz egiterakoan, beste pertsona horrekiko ze botere dugun pentsatzen dugu. Eta bestetik, gure solaskidearekin dugun distantziaz ere egiten dugu gogoeta. Hau da, beste pertsonarekiko dugun solidaritatea edo gertutasun maila. Hizkuntzalari honen arabera, emakume eta gizonezkoek dimentsio batengan edo bestean arreta jartzen ikasten dute; gizonek elkarrizketak solaskidearengan duten boterearen arabera bideratuko dituzte, eta emakumeek aldiz, intimitate eta solidaritate keinuak bilatuko dituzte solaskidearengan (Tannen, 1991).

Amaitzeko aipatu beharra dago, Lakoff zein Tannen lanek bide bat zabaldu zutela soziolinguistikan; eta baita hizkuntzaren antropologian ere. Baina Irene Lozanoren (1995: 128) arabera, Lakoffek planteatutako dominazioaren perspektibak hainbat kritika jaso zituen. Batetik, hizkuntzalari honen lana ez zen burutu beste hiztun batzuen behaketaren bidez, bere burua soilik ikertu zuen Lakoffek. Bestetik, azken urte hauetan, beste ikerlari batzuek honen hipotesiak frogatzeko hainbat ikerlan aurrera eramane dituzte, batzuk beste batzuk baino arrakasta gehiago lortu dutelarik asmo honetan.

Desberdintasunaren ikuspegiak ere, jaso zituen kritikak bere garaian. Hainbat hizkuntzalariren arabera, desberdintasunaren perspektiba honek, ez du bere baitan jasotzen eta kontutan hartzen ikertzerako orduan, generoen arteko desoreka (Acuña & Álvarez, 2003:13).

Historikoki hizkuntza eta generoa bi perspektiba hauek ardatz harturik aztertu izan dira, nahiz eta beste autore batzuen kritika andana jaso dituzten. Bi ikuspegiei egiten zaizkien kritikekin bat egin nezakeen arren, esan liteke hitanoaren azterketa bat genero perspektiba batetik egiteko baliagarriak izan litezkeela bi teoriak planteatzen dituzten aspektu ezberdinak.

4. EUSKARA ETA GENEROA PAREZ PARE

Goiko atalean aztertu ahal izan dugu hizkuntzak, oro har, eta hiztunen generoak, baduela uztardurarik. Ideia honetatik abiatuta, ondorengo atal honetan euskara eta generoa parez pare jarri nahi izan dira. Batetik, -lehen eta bigarren puntuetan-, euskararen inguruan emakumeari atxiki zaizkion rol edota paperak aztertuko dira; transmisioa eta galeraren erruduntasuna erdigunean jarritz. Bestetik, gaur egungo euskararen egoera ere ezagutzera emango da. Eta azken puntuan, euskara eta sexismoaren arteko loturak ikustarazten saiatuko gara.

4.1. EMAKUMEAK EUSKARAREN TRANSMISORE ETA ZAINZAILA

Lehenengo atalean ikusi eta analizatu ahal izan dugun gisara, aro Modernoarekin batera, emakumeak espazio pribatura mugatuak izan ziren. Esan genezake, euskararekin ere antzeko prozesu bat eman zela garai honetan. Hau da, emakumeak eta euskara etxeko lau pareten artera murriztuak izan ziren modernitate garaian (Altuna, 2017: 146).

Jaime Altuna ikerlariak bere Master Amaierako lanean egoki jasotzen duen bezala: *“Euskal Herrian hizkuntza-ordezkapen prozesua eta emakumeen bazterketa era paraleloan gertatu zirela. Biak esparru publikotik at geratu ziren, edo beste hitz batzuekin esanda, modernitateak euskara eta emakumeak etxera bidali zituen”* (Altuna, 2016: 22). Hala eta guztiz ere, aipagarria da, egon zirela XIX. mendean zehar euskararen aldeko eta emakumeen eskubideen inguruko aldarrikapen mugimenduak¹¹. Hala nola, bi aldarri hauek elkarloturik aldarrikatu zuen mugimendu edota pertsonarik ez zaigu iritsi ordea (*Idem.*).

¹¹ Hezkuntzarekin lotuak lirateke garai honetako aldarrikapen nagusiak. Batetik, emakumeen eskolaratzeko eskubideari lotuak eta bestetik euskarazko irakaskuntzarekin lotura dutenak.

Euskal nazionalismoaren sorrerak markatuko du ordea, emakumearen eta euskararen arteko harremanaren oinarrietako bat. Nazionalismo honek, XIX. mende bukaeran, euskal arrazaren identifikazio marka batzuk ezarri zituen. Sabino Arana Goirik lau identifikazio marka definitu zituen¹², euskara horietako bat izango zelarik. Euskal nazionalismoaren “ideologoak”, arrazaren mantentze lana hein handi batean emakumearen gain utzi zuen (Acosta, 2013).

Beraz, Euskal nazionalismoaren eta Euzko Alderdi Jeltzalearen sorrerarekin bat, emakumea amatasunari, tradizioari eta erlijio katolikoari lotua eta atxikitua agertzen zaigu. Diskurtso nazionalista honek, erlijio katolikoari eta liberalismoari lotutako ideiak uztartzea izango zuen helburu. Hori horrela, eta emakume izatea amatasunari lotuz, nazionalismoak nolabaiteko leku eta rol bat eman zion emakumeari; nahiz eta, leku eta rol hori oso eremu txikira mugatu zitekeen (Altuna, 2016: 27).

Arrats ospetsu egin den bezala, XX. mende hasierako euskal nazionalismoaren “leloa” *Jaungoikoa eta Lagi Zaharra* izan zen. Modernitateak ezarritako eredu binarioarekin jarraiki, emakumeak esparru emozional eta sentimentalean kokatuko liriteke. Hori horrela, eta abertzaletasunaren zereginekin lotuz, emakumearen ekintza abertzalea bihotzarekin edo sentimenduekin lotua izan zen. Hau da, “Jaungoikoaren” esparruaren transmisioa emakumeen lantzat jo izan zen. “Lagi zaharra” aldiz, esparru politikoarekin lotutako kontzeptua izan zen; arrazionalitatearekin, gizonezkoei egokitutako eremuarekin alegia. Baina kontzeptu honen baitan, badago elementu edo espazio bat, emakumeentzat egokia zirudiena: hizkuntzarena (Llona, 2002). Euskararen transmisioa beraz, emakumeek abertzaletasunaren baitan, izango zuten egitekorik garrantzitsuenetako bat zen; balore eta doktrina erlijiosoaren transmisioarekin batera.

Teresa del Valle antropologoak *Mujer vasca* liburuan argi azaltzen digu, zein izan zen euskal nazionalismo goiztiarrenak emakumeari emandako papera:

“Podemos decir que el nacionalismo histórico presenta una imagen de mujer vasca asociada a su rol de madre y cuyo espacio fundamental es el familiar. Sus valores se concretan en ser buena educadora, capaz de crear futuros patriotas, mujer fuerte que en los momentos difíciles sea consuelo y alivio, buena organizadora de su casa e incansable trabajadora, atenta al mantenimiento de la cohesión familiar, así como de la moral

¹² Sabino Aranak definitutako lau identifikazio markak: Arraza, Euskara, Foruak eta Euskal Historia (Acosta, 2013).

cristiana y las buenas costumbres. Es la madre que mantiene la raza a través de su descendencia, pero también de ella depende la conciencia nacional y el mantenimiento de la lengua que actúa como símbolo de identidad nacional, mediante la actuación inmediata en la educación de los hijos” (Del Valle, 1985: 233).

Euzko Alderdi Jeltzaleak emakumeei espazio pribatuko ekintza sozial bat atxiki zien, “Emakume Abertzaleen Batza”(EAB)-ren bidez, eta euskal jendartea abertzaletasunera bideratzeko asmoz, emakumeei arlo publikoan nolabaiteko eremu bat aitortu zieten. Talde honen sorrerak, emakumeentzat salto kualitatibo bat suposatu zuen; EABren baitan ibilitako emakumeen eskutik sortu ziren lehen ikastolak esaterako. Ikastola hauetan, emakumeek euskararen transmisioaren rola atzean utzi gabe beraien lana betetzen zuten, baina kasu honetan etxetik kanpo¹³ (Acosta, 2013). Beraz, XX. mende hasiera arte, emakumeek hizkuntzaren transmisio naturalaren ardura izan zuten, hau da, etxeko transmisioarena. Ikastolen sorrerarekin aldiz, emakumeek hartuko dute hizkuntzaren transmisio kulturalaren ardura; hezkuntza formalean ematen den hizkuntza transmisioarena alegia (Kasares, 2015: 20).

Nahiz eta, euskal nazionalismoaren barruan, emakumeen ekintzarako gaitasuna nahiko eremu murrizetan kokatua egon, hauen parte hartzea aktiboa izan zen espazio hauen baitan. Jasone Aretxabaletak (1994) lehenengo andereñoi buruz eta omenaldi gisara idatzitako artikulu batean, honela deskribatzen du Julene Azpeitia andereñoak euskararen alde, eta euskarazko hezkuntzaren alde eginiko lana:

“Hizkuntzaren aldetik transmisioari eman zion garrantzia: haurren jolasak, abestiak, ipuinak... azken baten, haurren mundua goitik behera euskeraz betetzea zan bere helburu nagusia. Horretarako ezinbestekotzat jo zituen bai haurrentzako sariketak eta baita irrati lana ere” (Aretxabaleta, 1994: 39).

Argi geratzen da beraz, bilakaera historikoari begiratu bat emanez gero, emakumeak izan direla belaunaldiz belaunaldi euskararen jarraikortasuna bermatzeko lanean aritu direnak; eremu pribatuan, nahiz publikoan; klandestinitatean – frankismo garaian- nahiz, ondorengo ikastola arautuetan. Transmisio lan horretaz gain,

¹³ Kontuan izan behar da EAB bezalako erakundeak nahiz eta 1922an sortu, zazpi urteko bi etapa izan zituztela. Hau da, Primo de Riveraren diktaduran eten egin zuen erakundeak bere jarduna, eta 1936ko gerraren eta ondorengo diktadorearekin, Euskal Herritik kanpo soilik jarraitu zuen funtzionamenduan. Hau horrela, kontuan izan behar dugu, frankismoan zehar euskara berriz ere etxera itzuli zela; hezkuntza sistema guztian gaztelaniaren nagusitasuna ezarri baitzen. Nahiz eta urte gogorak izan, emakumeek lan ugari egin zuten klandestinitatean euskararen alde (Añamendiko Eusko Entziklopedia, 2018).

emakumeek hizkuntzarekiko atxikimendua eta afektibitatea ere helarazi dizkiete hurrengo belaunaldiei. Hala ere, urte luzez egindako lan honek, esan liteke ez duela izan ondoren merezitako gizarte aitortzarik (Garcia, 2016).

Emakumeek burututako lanaren gizarte aitortza ezarekin lotuta, zehaztasun osoz deskribatzen du fenomeno hau Teresa del Valle 1987. urtean argitaratutako artikulu batean:

“Así, el interés y el trabajo que muchas mujeres vienen asumiendo en el desempeño de la escolarización en euskara, y que valorado objetivamente constituye una aportación significativa al desarrollo de la lengua, no recibe la misma valoración que el que realizan los hombres. Aún la creación de las ikastolas se ve unida a la responsabilidad de las mujeres en el cuidado de los hijos” (Del Valle, 1987: 14).

Aldiz sarritan, eta ondorengo puntuan sakonduko dugun gisara, emakumeak erruduntzat jo izan dira gazteen edota umeen erdararen erabileraren inguruan. Hau da, ume eta gazteek euskara ikasi duten unean, emakumeen lanak ez du inongo aitortzarik jaso. Baina haurren artean erdara entzun izan den momentuan – gehien bat euskal tradizioko nekazal eremuetan-, emakumeen gain jarri da erdalduntze horren errua (Kasares, 2014: 78).

Orain artean eta lerro hauen bidez ikus ahal izan dugun bezala, emakumeek hezkuntza eremuen bidez arlo publikoan txertatzeko aukera izan zuten arren, euskalgintzaren erdigunean eta ikusgarritasun handienarekin gizonezkoak aurkitzen dira (Garcia, 2016). Horren adibide litzateke Euskaltzaindia esaterako. 1918. urtean sortu zen Euskararen erakunde gorentzat jo izan den instituzio hau. Baina 1992. urte arte ez zuen euskaltzain oso emakumerik izendatu; urte horretan izendatu baitzuten euskaltzain oso lehendabiziko aldiz Miren Azkarate euskal filologian katedraduna (Del Valle, 2001: 42).

XX. mende bukaeran hasitako aldatetei segiz, badirudi XXI. mendeko euskalgintzan emakumeek geroz eta leku nabarmenagoa dutela. 1956. urtean sortutako eta euskalgintzarentzat erreferentziazkoa izan den – eta gaur egun ere baden- *Jakin* aldizkariaren zuzendaria esaterako emakumea – eta feminista- da: Lorea Agirre («*Jakin.eus*», 2018). Euskal hedabideei jarraiki, *Argia* astekariko zuzendaria ere emakumea eta feminista dugu: Estitxu Eizagirre alegia (*ARGIA.eus*, 2018).

Ezin da ukatu beraz, euskararen arlo publikoan aldaketa ugari eman direla. Eta euskal hedabideetako adibideak ageri baldin badira ere goian, euskal idazle, bertsolari edota kantari kopurua nabarmen handitu dela esan liteke. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago, gaur egun oraindik, hizkuntzaren transmisio funtzioaren naturalizazioak oso bizirik jarraitzen duela (Altuna, 2016: 41).

4.2. EUSKARAREN GALERAREN ERRUA: “NESKATXAK EZ DUTE EUSKARAZ ITZEGIN NAI”

Euskararen transmisioaren harian, emakumeek izan duten paperaz mintzatu gara orain artean aurreko orrietan zehar. Baina bada beste ideia bat emakumeak eta euskararen lotura ezartzen duena: euskararen galeraren erruarena (Hernández, 2004). Kike Amonarriz soziolinguistak, 1995. urteko artikulu batean azpimarratzen zuen bezala, bi izan dira historian zehar emakumearen paperaren inguruan sumatu diren jarrerak: Batetik, orain arte aipatu dugun euskararen berreskuperapen prozesuan emakumeek izandako paperarena; eta bestetik, 60.hamarkadan emakumeek eta batez ere nekazal eremuetan, euskarari uko egitearren, euskararen galeraren errua hauen gain jartzearena (Amonarriz, 1995: 89). Egia esan, transmisioaren zama emakumeen gain jarritz, hauek euskara erabiltzeari utzita, transmisio kate bat apurtuko litzateke. Hau da, erro berdina duten bi pentsamendu dira; euskara eta emakumea estuki lotzen dituen ideiatik eratorriak.

Hala nola, ikerketa honetarako egin diren elkarrizketa ezberdinetan ere, emakume baserritarrek gaztelaniarako zuten joera, sarri aipatu izan da. Hala eta guztiz ere, badirudi egia dela 60-70. hamarkadan, nekazal eremuetako emakumeek euskara neurri batean, eta leku eta praktika konkretu batzuei begira, alde batera utzi zutela (Garcia, 2016).

Joxe Azurmendik 1964. urtean idatzi zuen artikuluan adibidez, emakumearen izaera naturala omen den “ispilu-zaletasunarekin” lotzen zuen euskaraz ez hitz egitea. Idazlearen arabera, emakumearen pertsonalitate ahulagoak, hauek kanpoko moda eta hizkuntza ohiturei atxikitzea dakar:

Denok kopiatzen dugu, iñork ez baitu personalidade erabatekoa, Ta neskatxak geiago, neskatxa direlako, alegia, erakarmena eurai dagokienez apaindu egin bear dutelako, ta

apaindu naita. Neskatxak nai, ez dute euskera baztatu nai. Ezin diote eutsi, ordea (Azurmendi, 1964: 66).

Hurrengo bi hamarkaden hasieran hau da, 1972. urtean eta 1981. urtean zehazki, José María Sanchez Carrión, *Txepetx*, soziolinguista murtziarrak erreferentziazko bi lan etnografiko argitaratu zituen: “El estado actual del vascuence en Navarra” eta “La Navarra Cantábrica”, hurrenez hurren. Lan hauetan Nafarroako eskualde euskaldunetan euskararen egoerak izandako gora beherak aztertzea izan zuen helburu. Aipatutako ikerketa etnografikoetan ere, emakumea agertzen da euskararen galeraren protagonista nagusi gisa.

1981ena argitaratutako “La navarra Cantábrica” lanean, Sánchez Carrionek emakume eta gizonen arteko hizkuntza portaera ezberdinak haurtzarotik ematen direla nabarmentzen zuen: “*el comportamiento lingüístico de niños y niñas difiere entre sí desde la más tierna infancia*” (Sanchez Carrión, 1981:62), baina ezberdintasunak, bereziki, gazteen artean ikusten zituen:

“Con respecto a los jóvenes la “escapada” hacia el castellano sigue ejerciendo un gran poder de atracción entre el elemento femenino como modo de evadir los condicionantes más inmediatos (tipo de trabajo, control social, etc.) de un entorno cuya limitaciones disatisfacen, los varones en cambio se acomodan preferentemente a la fidelidad lingüística como modo de hacer suyo tal entorno que, en general, es aceptado”(Sánchez Carrión, 1981: 40).

Sexuen arteko hizkuntz portaera ezberdin hauek azaltzeko, murtziarrak sozializazio prozesu ezberdinez hitz egiten digu. Neskek sozializazio hizkuntza gisara hautematen zuten gaztelaniara, jotzen zuten. Mutilek ordea, euskaraz gehiago mintzatzeko joera erakutsi ohi zuten, beraien identitate eta nortasunaren parte gisa – amak erakutsitako hizkuntza bezala hartuz- hautematen zutelako (Sanchez Carrión, 1981: 64).

Beraz, soziolinguista honen arabera, komunitate euskaldunaren trinkotasuna eta neurri batean, euskararen jarraikortasuna, gizonezkoen arteko kidesun harremanetan islaturik ikusi zuen: “*La cohesión de la sociedad rural vascofona de Navarra se mantiene y perpetua a través de la cohesión del sentido de grupo de sus varones*” (*Ibid.*,.: 68).

Baina esan liteke hein batean ikerketa hauek nahiko androzentrikoak izan zirela. Sánchez Carriónek eguneroko bizitzako bestelako elkartasun harremanak – gizonaizkoenez gain- zaintzeari eta laguntzeari lotuak esaterako, eta sarri emakumeen gain egon ohi direnak, ez zituen taldearen trinkotasuna indartzen zuten elementutzat jo. Sánchez Carrióni bizitzaren oinarrian dauden emakumeen elkartasun gune eta bideak, ikusezin gertatu zitzaizkion (Kasares, 2014: 82).

4.3. GAUR EGUNGO EUSKARAREN ERABILERAREN EGOERA

Emakumeen bidea bezalaxe, euskararen egoera eta bidea ere, nahiko malkartsuak izan dira. Euskarak garai historiko ezberdinetan, eta Euskal Herriko lurralde bakoitzean, egoera partikularrak bizi izan baititu¹⁴.

Historian zehar euskarak izan duen ibilbidea pixka bat ezagutzeko, ezin bestekoa da euskararen lurraldea administratiboki kokatzen den bi Estatuei begira jartzea; hau da, Espainia eta Frantziari. Bi Estatu hauetako nazionalismoak, 1789. urteko iraultzaren oinordekoak dira. Hau da, nazionalismo hauek, “Nazio bat, hizkuntza bat” dogma, praktikara eramaten saiatu ziren. Testuinguru honetan, eta batez ere hezkuntza eremuan, XVIII. mendetik aurrera, euskararen erabilera eraztunaren¹⁵ bidez zigortu izan da besteak beste. 1857. urtetik 1970. urtera indarrean egon zen *Moyano* legearen bidez, nahitaezko gaztelaniazko hezkuntza martxan jarri zen Espainiar Estatuan (Igartua & Zabaltza, 2012: 70 eta 72).

Espainiako Bigarren Errepublikaren garaian, arnas pixka bat hartu ahal izan zuen euskarak, ofizialtasuna lortuz esaterako. 1936. urteko urrian onartu zitzaion Euskadiri – gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurraldeei alegia- autonomia; Gerra Zibila hasita zegoela jada. Bilbok 1937ko ekainera arte eutsi zien frankistei eta Enkarterrietako mendebaldeak pare bat hilabete gehiagoz. Azken euskal gotorlekuekin batera, euskararen ofizialtasuna eta azken sei urteetan emandako aurrera pausuak ere, erori egin ziren. Frankismoarekin batera, hamarkada ilunak etorri ziren.

¹⁴ Euskara Pirinioen mendebaleko bazterrean hitz egiten da, Espainia eta Frantziaren arteko mugaz bi aldeetan. Espainian, Euskadiko Autonomia Erkidegoan (hots, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko probintzietan) eta Nafarroako Foru Komunitatean (probintzia ere baden horretan) mintzatzen da. Frantziar Estatuan aldiz, Lapurdiko, Baxenabarreko eta Zuberoako antzinako probintzietan hitz egiten da (Igartua & Zabaltza, 2012: 7).

¹⁵ Eraztuna euskarak jasan duen zapalkuntzaren ikurrik gogorrenetarikoa da. Euskaraz hitz egitea debekatua zen eskolan, eta irakasleak umeren bat hizkuntza horretan ari zela entzuten zuenean, eraztuna ematen zion, hark gauza bera egin zezan bere lagunen artean. Haurrek elkar sala zezatela sustatu eta aste amaieran eraztuna zeukana zigortu egiten zuten, fisikoki askotan (Arbelaitz, 2012).

Frankismoaren ezaugarrietako bat izan baitzen, Estatuko beste hizkuntzekiko – gaztelania ez beste denekiko- errepresio bortitza. Honek, hizkuntzaren ezagutzan eta erabilpenean izugarritzko eragin negatiboa ekarri zuen (*Ibid.*,: 76).

70. eta 80. hamarkadetan, Espainiar Estatuko Trantsizioarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen normalizaziorako hainbat aurrerapen ukaezin egin ziren. EAEn beraz, euskara ofiziala da, gaztelaniaren maila berean kokatzen dela esan liteke – teoriarik behintzat-. Nafarroako Foru Erkidegoan aldiz, 1986. urtean sortutako Euskarari Buruzko Legeak, hiru hizkuntza eremutan banatzen du Nafarroa: *Euskalduna*, euskara ofiziala da gaztelaniarekin batera; *mistoa*, euskarak estatus nahiko anbigua da eta *ez-euskalduna*, gaztelania soilik da ofiziala. Baina Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan pairatzen du euskarak egoerarik larriena, ez baitauka inongo estatus legalik; hau da, hizkuntza ez da ofiziala (Igartua & Zabaltza, 2012: 80).

Ezagutu berri dugun, euskararen ibilbide historiko partikular honek, eta gaur egungo egoerak – hau da, administratiboki eta legalki lurralde batzuetan euskarak pairatzen duen egoerak- honen erabilera datuak baldintzatzen ditu.

Hala nola, eta 2016. urtean burututako hizkuntza erabileraren kale neurketako datuen arabera (Soziolinguistika Klusterra, 2016b), euskararen erabilera %12,6koa da¹⁶ Euskal Herrian. Gipuzkoan jaso da erabilera-mailarik altuena, % 31,1; Bizkaian % 8,8; Nafarroan % 6,7, Ipar Euskal Herrian % 5,3, eta azkenik, gutxien erabiltzen den lurraldea Araba da, % 4,6ko erabilerarekin. Bestalde, eta ikerketa honetako datuen arabera, Hego Euskal Herrian, oro har, euskararen ezagutza apalagoko eremuetan, honen erabilera egonkor dago azken urteetan. Aldiz, euskararen ezagutza handia den eremuetan, hau da, hizkuntzaren arnaguneetan, erabilerak jaitsiera nabarmena izan du (*Ibid.*: 7). Adibidez Antzuolako herrian, euskararen arnaguneetako bat izango litzatekeena, 2011. urteko datuen arabera herritarren %73,1ek euskararen ezagutza osoa zeukan. Hala nola, eta euskara jakitun askorekin, 2011. urteko kale erabilera %69,5koa zen. 2016ko neurketan aldiz, antzuolarren %65,5ek egiten zuen euskaraz kolean. Hau da, erabilera lau puntu jaitsi da (Soziolinguistika Klusterra, 2016a).

Adina adierazle gisa hartuz gero, lau adin-talde bereizten dira kale erabilera neurtzeko: haurrak (2 eta 14 urte bitartekoak), gazteak (15 eta 24 urte bitartekoak), helduak (25 eta 64 urte bitartekoak), eta adinekoak (65 urtetik gorakoak). Adin-taldeak

¹⁶ Kale neurketa hau, Euskal Herriko zazpi lurraldeetan eginga izan da.

euskaraz gehien hitz egiten dutenetik gutxien hitz egiten dutenera sailkatuz gero, haurrak daude lehen tokian (% 18,3), gero gazteak (% 12,3), ondoren helduak (% 11,5) eta, azkenik, adinekoak (% 8,1).

Bestalde, eta gure gaiarekin lotuta, beste datu adierazgarri bat plazaratzen digu 2016. urteko ikerketa honek, emakumezkoek gehiago hitz egiten dutela euskaraz gizonezkoek baino alegia. Joera hau, adin talde guztietan ematen da, adinekoetan izan ezik. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian portaera hau lehen aldiz hauteman da neurketa honen bidez. Baina beste lurraldeetan eta aurreko urteetako datuekin konparatuz gero, joera hau azken hamar urtean zehar atzeman dela esan liteke (Soziolinguistika Klusterra, 2016b: 13).

Beraz, eta aurreko atalean ikusi dugun erruduntasun pertzepzio eta sentipenak alde batera utzita, baieztatu genezake euskararen erabilera feminizazio prozesu baten baitan murgildurik dagoela. Hau da, emakumezkoek euskara gehiago hitz egiten dutela, gizonezkoek baino; lurralde guztietan, ia herri guztietan eta adinekoetan izan ezik, adin talde denetan.

4.3.1. EUSKARAREN ERABILERAREN FEMINIZAZIOA

Beste atal batzuetan aipatu bezala, euskara eta emakumearen arteko harremanak sarri, transmisio eta erruduntasun kontzeptuekin lotu izan dira; eta gai honen gainean egindako ikerketa bakanak, perspektiba horretatik egin izan dira. Hori dela eta, azken hamarkada hauetan sumatzen ari den euskararen erabileraren feminizazio prozesu honen inguruan, aurki genezakeen bibliografia oso urria da.

Emakumezkoek euskara gehiago hitz egitearen arrazoiak, edota fenomeno hau azaltzeko hipotesi batzuk plazaratzen lehendabizikoa Kike Amonarriz soziolinguista tolosarra izan zen, 1995. urtean argitaratutako artikulu batean alegia. Amonarrizek, hiru hipotesi plazaratzen ditu euskaren erabileraren feminizazioaren azalpen gisara. Lehenengo hipotesia transmisioarekin lotua egongo litzateke. Honen arabera, euskararen minorizazio prozesuan emakumeek familia giroan, erdara transmititzeko hautua hartzen zuten. Baina euskararen normalizazio prozesuarekin ordea, euskara da etxeetan transmititu beharreko hizkuntza. Beraz, heziketari eta transmisio lanari lotuta letorke emakumeen euskalduntzea. Bigarren hipotesi gisara, emakumeen errealitate profesionalari edota enpleguei egiten die erreferentzia Amonarrizek. Hau da, honen

arabera, enplegu feminizatueta euskararen eskaera eta erabilpena altuagoak dira; esaterako administrazio publikoari lotutako lanetan, edota hezkuntza sisteman. Eta azkenik, neska-mutil gaztetxoengan jartzen du begirada hizkuntzalari tolosarrak; eskolaz kanpoko jarduerari egiten baitie aipamena. Honen hitzetan, mutilen jarduerak kirolarekin lotuago egon ohi dira, eta kirol esparrua oso erdalduna dela azpimarratzen du (Amonarriz, 1995: 94).

Bestalde, eta euskararen erabileraren feminizazioaren gaur egungo irakurketa bat egin nahian, honako ondorio hau ateratzen du Jone Miren Hernández antropologoak, aurreko hamarkadetako euskara eta emakumearen gaia uztartzen dituzten ikerketa bakanen gaineko analisisia eginez:

“Emakumearen eta euskararen arteko harremanak aztertu dituzten testu gehienek joera nabarmen bat plazaratu dute: emakumea gizartearen ispilu gisa aurkeztea. Emakumeek gizartean modan dauden joerak kopiatzen eta erreproduzitzen dituztenaren usteari jarraituz, nesken hizkuntz jokaera gizarte osoarenaren termometrotzat hartu izan da. Ildo antzekoa jarraitu izan dute euskararen feminizazioaz hitz egin edo idatzi dutenak” (Hernández, 2004).

Emakumeen “ispilu zaletasunarekin” eta hizkuntza aldatzeko duten joeraren azalpen gisara “prestigioaren” teoria ageri zaigu. Hau da, gurean zein atzerrian sarri esan izan da, emakumeek gizonezkoek baino errazago islatzen dituztela gizartean indarrean eta prestigioa duten baloreak. Baina (Hernández & Altuna, 2017: 135) prestigioaren teoria horri, sustraiak harrotu eta praktika ezberdinen muinean dagoen arrazoiaz ohartarazten gaituzte:

“Arreta gutxi jarri dugu dinamika honetan azaleratzen den beste fenomeno batean: emakumeak dira gehienetan mugitu, aldatu, mudatzera prest agertzen direnak. Hau, gure ustez, detaile inportantea litzateke. Izan ere egoera horretan topatu dezakegu “prestigioaren” teoria hauek funtsean ezkututzen dutena: Boterearen banaketa desorekatua, hau da – Penelope Eckerten hitzetan-, botere eza”.

Beraz, gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza erabileran dagoen aldea azaltzeko unean, prestigioaren teoria baino haratago begiratu beharko dugu. Hau da, emakumezkoen kasuan hizkuntza erabilerak prestigioarekin nolabaiteko lotura bat izango du, baina jarrera horren arrazoia, muina, hauen botere eza izango litzateke.

Bestalde eta prestigioaren kontzeptuarekin jarraituz, aipatu beharra dago pertsonen – gizon eta emakumeek-, prestigioa edo estatusa ingurune hurbilarekin lotzen dutela. Hau da, pertsona orok, ingurune hurbilean uztartua egotea bilatzen du. Modu honetan, prestigioa moldakorra eta aldakor gisa azter liteke (Hernández, 2005:51).

Hala nola, hizkuntzaren inguruan perspektiba feminista batekin egindako ikerketa askok, nerabezaroan neska eta mutilek izaten dituzten hizkuntza portaerak aztertu izan dituzte. Nerabezaroan, haurtzaroan garatutako hizkuntz ereduak forma zehatzagoak hartzen joaten dira gaztetxoaren artean; hau da, adin tarte honetan finkatzen dira neska eta mutilen hizkuntza eredu ezberdinak. Prozesu honetan, gaztetxoek sexu bereko taldeetan bilatzen dituzte erreferenteak. Penelope Eckert hizkuntzalariak AEBetako eskolatan egindako ikerketa baten arabera, mutilek indarra edota abilezia erabiliz neurtzen dute beraien arteko lehia, ezberdintasun objektiboetan oinarrituz. Neskek aldiz, esanahi sinbolikoetan oinarritzen dute euren arteko jarduna. Horrela, itxura fisikoa edota hizkuntza erabilera, nesken identitatearen parte garrantzitsu bilakatzen da. Analisi hau eskutan, Eckertek portaera hauen muinean, lehen aipatutako botere ezaren teoria kokatzen du. Hau horrela:

“Mutilek "zer egiteko" gai diren erakutsi behar dute. Neskek, aldiz, bere izaera "zertan datzan" adieraztea dute helburu, eta desio horretan hizkuntzak erabateko garrantzia izango luke, izan ere, hizkuntza pertsonaren aurkezpenari oso lotua dagoen elementua baita. Gauzak horrela, hizkuntzaren inguruan gertatzen diren izaera ezberdinetako aldaketak nabarmenagoak agertzen dira emakumeentzako, hizkuntzarekiko eta komunikazioarekiko arreta bereziagoa landu izan baitute” (Hernández, 2002).

Azken urte hauetan, Euskal Herrian ere egin izan dira nerabezaroa, generoa eta euskara ardatz dituzten ikerketak. Jakinekoa da, gaur egun hezkuntza sistemaren baitan – EAEn- euskaraz hitz egitea dela araua. Generoari erreparatuz gero, arau horren defentsan edota horren arbuioan izango genuke euskararen erabileraren feminizazioaren zergatietako bat. Horrela, neskek arau hori defendatu eta betetzen duten bitartean, mutilek eta mutil gisa jokatzuz – maskulinitatea sendotuz-, araua apurtuko dute. Beraien genero identitatea arau apurketa horretan indartuz (Hernández & Altuna, 2017: 139).

Nerabeen hizkuntza praktikekin jarraiki, Pasai Donibane eta Lezo herrietako – Gipuzkoa- nerabeen hizkuntza praktikak aztertu zituen Jaime Altunak 2016an. Herri hauetan ere eta ikerketaren emaitzen arabera, neskek mutilek baino euskara gehiago

erabiltzen dute. Nerabeek portaera honen gaineko bi arrazoi ematen zituzten: Hizkuntza-prestigioa eta aisialdiko praktikak (Altuna, 2017:151).

Lehenengo arrazoia, beraz, prestigioaren ildotik letorke; hau da, *guay* izatearekin dago lotuta. Gaztelaniaren bidez, mutilek estatus berezia lortuko lukete, gaztelania erabiltzeak balore sinbolikoa ematen baitie. Mutilak botere estatus batetik abiatzen direnez, gaztelania erabiltzeak ez die ekartzen arazo handirik. Goian aipatu dugun hezkuntzaren baitan ematen den euskara erabiltzeko arauarekin lotuta, Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeek ere, sarri jasotzen dute euskara erabiltzeko agindua, baina, mutilen posiziotik erraz egiten diete hauek agindu honi aurre. Bigarren arrazoia aldiz, aisialdiko praktikekin lotuta legoke, batez ere, kirol praktikekin. Kike Amonarrizek (1995: 94) orain dela bi hamarkada idatzitako testuak barnebiltzen zuen bezala, ikerketa honetan ere aztertu ahal izan da, mutilek nerabezaroan gauzatzen duten aisialdiko praktika nagusia kirola dela. Kirol munduan gaurdaino oraindik ere, euskarak ez du presentzia nabarmenik, eta honek mutilen hizkuntza praktiketan eragin nabarmena izango luke. Nesken aisialdiko praktikak ezberdinak dira. “Nesken” aisialdi praktika hauek sarri kulturarekin edota hezkuntzarekin lotuak izan ohi dira. Eta aisialdi praktika hauetan euskarak presentzia nabarmenagoa dauka kirol munduan baino. (Altuna, 2017: 152).

Beraz, atal honetan aztertu ahal izan dugun bezala, badira hainbat arrazoi eta zergati, emakumeek euskara gehiago mintzatzeko gizonek baino. Euskara ere, gizarteak ezartzen eta inposatzen dituen bi generoen arteko elkargune eta tentsioen erdigunean aurkitzen baita (Hernández & Altuna, 2017: 146).

Aipatutakoak kontutan izanik, eta euskarak gizarteko hainbat ezaugarri barnebiltzen baldin baditu, galde geniezaioke geure buruari ea euskara, hizkuntza gisara sexista ote den edo ez.

4.4. EUSKARA SEXISTA AL DA?

Jada dezente hitz egin dugu aurreko ataletan, hiztunaren genero identitateak zer-nolako eragina izan lezaken hizkuntza batean, eta zehazki euskararen erabileran. Baina euskara ez da hizkuntza erromanikoa, hau da, euskaraz forma maskulinoak ez du forma orokorraren lekua betetzen (Barquin, 2018). Hala nola, euskarak genero gramatikalik ez

duen heinean, urteetan pentsatu izan da ez duela generorik, are gehiago, sexismorik sortzen edota barnebiltzen ez duela ere pentsatu izan da (Juanena, 1991: 97).

Hau horrela, esan genezake hizkuntza eta sexismoaren arteko afera, ez dela soilik euskarari aztertua izan. Afera hau, Europako beste hizkuntza batzuetan ere ikertua izan da; euskarari baino hamarkada batzuk lehenago gainera. Alvaro García Meseguer idazle eta ikertzaile espainiarren arabera, euskararen zama sexista %5-koa da, ingelesarena %15-koa, frantsesarena %40-koa eta gaztelaniarena %80-koa. Ikerketa honetan, eta hizkuntza ezberdinen sexu-zama kuantifikatzeko, faktore ezberdinak hartu zituen kontuan ikerlariak: genero gramatikalaren eta sexuen arteko erlazioa (*el chico/la chica*); maskulinoaren erabilpena genero komunaren balioaz (*droits de l'homme, postman*); aditzaren eta izenordeen sexualizazioa (*míralo, escúchala; he/she*) eta erro maskulintik hitz komunak (*humanidad, mankind*) (Alvarez, 2004b).

Berriz ere euskara ardatz hartuta, eta berau pixka bat aztertzen jarritz, ikus genezake euskarari ere existitzen direla, generoa edota sexua espezifikoki txertatuta duten hitzak. Adibidez, senidetasuna adierazteko erabiltzen diren hitzek pertsonaren generoa barnebiltzen dute; esaterako, ama, alaba, senarra... Bestetik, jarduera jakinekin lotutako izenek ere generoa barnebiltzen dute beraien baitan; adibidez, erregina, moja, sorgina... Eta azkenik, eta agian modurik garbienean, animalia izenek egiten diete erreferentzia sexu markei; adibidez, behorra/ zaldia, behia /zezena, ardia / adaria... (Barquin, 2018).

Animalien sexu markei helduz, Anutxi Arana hizkuntzalariak euskarari animalien sexuak garrantzia duela baieztatzen du, baina soilik etxeko animalien kasuetan. Hau da, ekonomikoki onuraren bat izan dezaketen animalien kasuan. Hau horrela, animalien eta pertsonen kasuak, oso ezberdinak direla azpimarratzen du ikertzaileak:

“Badugu oilo eta oilar, behi eta zezen, erle eta mando-erle... Erlea eta oiloa ekonomikoki oilarra eta mando-erlea baino garrantzitsuagoak diren ber, emeak ematen dio izena multzoari, eta hartatik hitz eratorria edo konposatua onartu behar dute arrek. Baina ez zaie inportik... Alderantziz da jendeetan. Oraingo euskara hiritarrean, arraren izena ('gizon' edo 'giza') inposatu da gure espezie biologikoko edozein banako adierazteko, arra zein emea. Zergatiak denek dakizkigu, ekonomikoak baino sozio-politikoak gehiago” (Arana, 2000: 189).

Bestalde, sexu marka duten hitzekin jarraiki, badira euskaraz, nahiz eta sexu marka izan, hitz baliokideak izan beharko luketen hitzak. Baina hitz hauek nahiz eta baliokideak izan, ez dute esanahi berbera edo ñabardurak dituzte emakume edo gizonezkoei aplikatzen zaizkienean; emakumeei aplikatzen zaienak, esanahi gutxiesgarriago bat izan ohi du. Honen adibide lirateke atso edota agure hitzak. Bi hitzek balio dute adineko pertsonak izendatzeko, baina emakumeen kasuan, hau da, atso hitzak zentzu ezkorragoa du, agure hitzak baino (Barquin, 2008: 33).

Modu honetan, dezente aztertu den hitzetako bat “gizon” terminoa izan da. Amelia Barquín (2018) hitzetan, gizon hitza modu espezifiko batean erabili behar da, berau adiera maskulinoa baita; ez du adiera orokor bat barnebiltzen. Hala eta guztiz ere gaur egun, Euskaltzaindiaren interneten eskuragarri dagoen hiztegiak “gizon” terminoaren baitan, emakumea ere barnebiltzen du. Hau da, gizon hitzaren adiera orokorra ere barnebiltzen duelarik (Euskaltzaindia, 2018).

“Gizon” hitzaren azterketari eta honen kritikari loturik, giz- erroa duten hitzen inguruko analisi sakona egin dute hainbat ikerlari euskaldunek. Hauen arabera, giz-erroa, “gizon” hitzetik dator, beraz, gizarte edota gizaki bezalako hitzek etimologikoki maskulinoak izaten jarraitzen dute, nahiz eta modu orokorrean – eta hegoaldean bederen neutroan- erabiltzen diren hitzak izan. “Gizaki” hitzaren erabileraren harira, bi jarrera gailendu dira. Batetik, “gizaki” hitza neutrotzat hartu eta maskulino gisa, “gizaseme” edota “gizon” adierak onesten dituztenen ikuspegia legoke. Bestetik, maskulino orokortzaile eta emakumeen ezkutatzzaile diren forma hauek baztertu (giz-erroa dutenak alegia) eta “jende(ki)”, “pertsona” eta “jendarte” onartzea proposatu dute beste hainbatek - gizon, gizaki eta gizaseme forma maskulinoak izanik eta emakume, emazte, emazteki femeninoak-” (Alvarez, 2004a: 51).

Hau horrela, umore zertzelada nabariekin, ederki azaltzen du “gizaki” hitzaren inguruan sortutako eztabaida Anutxi Aranak (2000: 192) XXI. mende hasieran idatzitako artikulu batean:

“Jende izateko baldintza 'giza' izatea baldin bada, gizonak bakarrik, sartuko dira eskubide osoz kategoria horretan; emakumeei ere sartzea uzten bazaie, gibelego ate txikitik izango da, denominazioa mailegatua baitute, ez propioa. Nabari da gizona emakumea baino hurbilago dela 'giza'tik eta emakumeak ez direla inoiz gizonak bezain 'giza' izango. Ez lirateke hemengo bazterrak guti harrotuko, halako batean EEBB-etako jakintsuek dekretatuko balute 'pertsona' esateko hitz egokiena 'yanke-' dela eta inork ez

duela zergatik eulitu, 'yanke' ez baita yankee, eta gainera, hitzaren esanahia arbitrarioa izanik, aski da denak ados jartzea engoitik "homo sapien sapiens" esan orde, "Yanke sapiens sapiens" esateko".

Bestetik, eta "gizaki" hitzarekin sortutako eztabaida alde batera utzita, badira euskaraz sexismoa iraunarazten lagundu duten hitz forma sexuatuak. Lehenik eta behin –sa atzizkia hitz femenino gisa adierazteko forma legoke. Hau da, zubereraz erabili izan da –sa atzizkia. Berez, ez du ezer txarrik euskalki bateko forma espezifiko bat euskara estandarrean txertatzeak, baina –sa atzizkia femeninoa egiteko erabiltzen ari da euskara batuaren baitan, berez, ez duenean hori adierazten. Hau da, ulertzen ari gara, -ari edo -le (bertsolari, idazle) atzizkiak maskulinoak direla, eta bertsolarisa bezalako hitzak sortu ditugu femeninoa egiteko (Azkarate, 1993: 73). Bestetik, eta forma desegoki baina oso erabili gisara, hitz maskulinoekin pluralak sortzearen hautua legoke. Hau da, euskaraz hitz elkarketan bidez sortzen dira bi sexuak barnebiltzen dituzten plural asko; anai-arrebak, errege-erreginak... Baina gaur egun, geroz eta gehiago entzuten dira semeak edota erregeak bezalako plural orokortzaileak, berez, maskulinoak soilik direnak (*Idem.*). Bestalde, eta azken honekin lotuta, geroz eta sarriago erabiltzen dira hitz maskulinoak, generoz neutro direnak baztertuta; adibidez, senidetatasunaren orde, anaitasuna erabiltzea (Arana, 1993: 29). Azkenik, aipatu beharra dago, Euskaltzaindiak mailegu andana onartu dituela gaztelaniazko hitz maskulinoan oinarria dutenak; adibidez, antropologo, dekanotza... (Barquin, 2018).

Baina atal honetako gaiarekin berebiziko lotura duena, hitanoaren gaia da; hau da, gure ikerketaren muineko gaia. Hitanoka solas egitean, bestearen generoa kontuan izan behar da, emakume edota gizon izan aditz markak ezberdinak baitira. Hots, erabilpenean aldiz, arazoak sor litezke solaskidea ez denean pertsona bakar bat edota mezua sexu ezberdinetako hartzaileei zuzenduta baldin badago, esaterako, lagun talde misto bati.

Kasu askotan, maskulinoa plural gisara erabiltzen da, eta gertakari hau hizketan zein idatziz atzeman liteke. Badira hainbat euskal kanta tradizional, *toka*¹⁷ erabiltzen dutenak plural gisara: "Kanta ezak euskalduna, kanta ezak hire herria..." edota "...Euskal Herria diagu zain, presoak eta hilak ere bai" (Barquin, 2008: 20). Baina toka plural gisara erabiltzea, ez da soilik XX. mendeko kantuetan gertatzen den kontu bat.

¹⁷ Gizonezkoei zuzentzeko erabiltzen den hitanoari toka deitzen zaio.

Gaurko hurbileko adibide bat jartze aldera, AKE¹⁸ Antzuolako futbol taldekoen traola legoke. Hau da, AKE taldeko mutilak 2017-2018 denboraldia maila bat beherago bukatu zezaketen. Hori dela eta, traola bat sortu dute herrian erabilera dezente eman izan zaiona: #OinDokMomentua¹⁹. Traola hau, jendea futbol zelaira animatzera joateko erabiltzen da, batez ere, partiden iragarki gisara, baina soilik ikusle gizonezkoak kontutan hartzen ditu.

Hala ere, hitanoaren erabilera desegokia saiheste aldera, badago estrategia aitzindari bat, Antton Olariaga marrazkilariak mahaigaineratu duena: Noka –era femeninoa- eta tokaren atzizkiak elkartzea. Urte luzez erabili du eta erabiltzen jarraitzen du marrazkilariak estrategia hau irakurleari zuzentzerakoan, *Berria* egunkarian argitaratzen den Zakilixut izeneko komiki-tiran: “Amaitu ondoren jasoko dunk fruiturik lehorrena”. Wazemank! telebista saioak ere estrategia bera erabili zuen programari izena jartzeko. Baina azpimarratu beharra dago, saiakerak egin diren arren – idatzizko formatuan soilik-, estrategia hau ez dela asko zabaldu (Barquin, 2008: 20).

Beraz, atal honetan ikusi dugunaren arabera, euskarak nahiz eta genero gramatikalik ez izan, hizkuntza gisara sexismoa suspertzeko estrategia ezberdinak barnebiltzen ditu. Hitanoak bere aldetik, genero marka itsatsita izaki, sexismorako bide gehiago zabaltzen dio oraindik ere hizkuntzari eta batez ere, hitzunari. Baina datorren atalean azter dezagun modu konkretuago batean hitanoa zertan datzan zehazki.

5. EUSKARAREN TRATAMENDUAK: HITANOA

Ondorengo atal honetan, lan honetako ikerketa objektua ezagutuko dugu. Hau da, hitanoa eta honen erabilera. Hau horrela, lehen atalean hizkuntza-tratamenduak aztertuko dira. Hizkuntza ezberdinetan hauen funtzionamendua baldintzatzen duten teoriekin batera, alegia. Bigarren puntuan, hitanoaren ezaugarri teknikoak ezagutuko dira. Hirugarren puntuan aldiz, hitanoaren erabilera baldintzatzen duten aldagaiak hartuko dira aztergai gisara. Eta azken eta laugarren puntuan, hitanoaren erabileraren

¹⁸ Antzuolako Kirol Elkartea: izen hau baldin badu ere, futbol taldea da, eta ez du bere baitan beste kirolik banerbiltzen.

¹⁹ Herriko taberna batek, kanpainarekin bat eginez ikus liteke Facebook sare sozialean nola erabiltzen den traola hori Antzuolan <https://www.facebook.com/photo.php?fbid=1691460694300717&set=rp.d.100003104089155&type=3&th eater>

egoerari erreparatuko zaio. Euskal Herriko erabileraren egoerari batetik; eta hitanoaren pertzepzio eta usteei bestetik.

5.1. HIZKUNTZA-TRATAMENDUAK

Hitanoa euskarazko hizkuntza-tratamendua da. Hala ere, argitu beharra dago tratamenduak, gure inguruko hizkuntza guztietan existitzen direla, hau da, ez dira euskararen ezaugarri espezifikoak.

Hau horrela, bada teoria soziolinguistiko bat tratamenduak edozein hizkuntzetan aztertzeko balio izan lezakeena; Roger Brown eta Albert Gilman ikerlari amerikarrek sortua, 1960. urtean hain zuzen ere. Funtsean haien ikerketaren helburua Alberdiren hitzetan (1993:425,) honako hau zen: *“izenordain-hautaketaren eta hiztun/solaskide harreman objektiboaren artean dagoen kobariazioa argitzeko gai den eredu teoriko bat sortzea”*. Horretarako bost indoeuropear hizkuntza hartu zituzten ikergai: ingelesa, frantsesa, italiara, espainiera eta alemana. Bost hizkuntza hauek tratamendu-sistema bikoitza dute solaskide bakar batekin mintzatzeko. Adibidez, espainieraz *Tu/Usted*; edo italieraz *Tu/Lei*²⁰ (*Idem.,.*).

Ikerlari ipar-amerikar hauen arabera, badira oinarritzko bi printzipio hizkuntza-tratamenduen erabilera arautzen dutenak: boterea eta elkartasuna. Bi pertsonen artean botere asimetriko bat baldin badago harremanean, hauek “botere semantika” deiturikoa erabiliko dute hizketarako. Hau da, boterearen semantika hau ez-elkarrekikoa da, eta behean dagoenak goikoari V formaz egingo dio eta goikoak azpikoari T-z. Adibidez XV edo XVI. mendeetan, elizgizonek T egiten zieten beraien elizbarrutiko langileei, eta hauek V itzultzen zieten goragoko elizgizonei. Etxalde bateko ugazabak T egiten zieten bere morroiei eta hauek V erantzun. Urteen poderioz, gizarte arau hau familiara ere iritsi zen, eta boterearen semantika instituzio horretan ezarri zen; gurasoek hurrei T eginez, eta hurrek gurasoei V (Alberdi, 1996: 27).

Bigarrenik elkartasunaren semantika izango genuke. Hemen kokatuko dira erlazio simetrikoak dituzten pertsonak. Hau da, erlazio berdinzaleei dagozkien tratamendu arauak ere simetrikoak dira. Hauetan, T izango da hizketa modua (*Ibid.,* 30).

²⁰ Hemendik aurrera T eta V laburdurekin idatziko dira tratamendu hauek. Latinezko TU eta VOS erregistroetan oinarrituta. T laburdurak, lagunarteko tratamenduari egingo dio erreferentzia. Eta V-k, errespetuzko edota begirunezkoari.

Historiari erreparatuz gero, badirudi XIX. mendean boterearen semantika zela nagusi Brown eta Gilmanek aztertutako bost hizkuntza europearretan. Hau da, zerbitzariak edota soldatu arruntek T jasotzen zuten; eta aldiz, gurasoek edota ugazabek V jasotzen zuten. Hala ere, XX. mendean – eta baita XXI.ean ere- elkartasunaren semantika nagusitu zaio boterearenari (Alberdi, 1996: 32).

Gurera etorri eta euskararen tratamenduei so eginez, esan genezake bi direla euskaraz gehien erabiltzen diren tratamenduak: Zuka eta Hika/Hitanoa. *Zuka* bigarren pertsona neutrotzat ZU duena izango da – beste hizkuntzetako V-ren baliokidea-: Zu etorri zara, Mikel joan da... Eta Hika berriz, bigarren pertsona singulartzat HI duena – beste hizkuntzetako T-ren baliokidea-: Hi etorri haiz, Mikel joan dun/k (Azkue, 1998: 16).

Mendeen joan etorrian euskararen hi/zu tratamenduei hirugarren maila bat erantsi zaio; kasu honetan soilik hegoaldeko euskaraz: BERORI izenordain hiperbegirunezkoa. Ikerlari ezberdinen arabera, hirugarren tratamendu hau, gaztelaniaren eraginez sortu zen hegoaldeko euskaraz. Hau da, gaztelaniaz Tu/Usted/Vuestra merced eta hegoaldeko euskaraz Hi/Zu/Berori. Esan beharra dago, berorika tratamendua galtzear dagoela Hego Euskal Herrian. Garai batean, apaizei zein medikuei hitz egiteko erabilia izan bazen ere, gaur egun, eta honek erakusten duen asimetria eta gehiegizko begiruneagatik galtzear aurkitzen da (Alberdi, 1996: 122).

Halaber, eta berriz ere Brown eta Gilmanen botere eta elkartasun semantikak hizpide hartuz, azpimarragarria da euskaraz ez duela beste hizkuntzen bidea jorratu. Hau da, beste hizkuntzetan elkartasunezko semantika gailentzen den une honetan, euskaraz boterearen semantikaren aztarna gordinak dauzkagu. Hau da, beste hizkuntzetan T tratamenduaren orokortze bat eman da, eta euskaraz aldiz Zukaren orokortze bat; V-rena alegia (Alberdi, 1993: 432).

Bestalde, eta hitanoarekin zerikusi zuzen zuzena ez izan arren, aipatu beharra dago Paula Kasaresek (2015) artikulu batean barnebiltzen duen *hizkuntza sozializazioaren* ideia. Hizkuntzalari eta antropologo nafarraren arabera, hizkuntza sozializazioak bi dimentsio nagusi aztertzen ditu. Batetik, pertsonak – edo haurrak- nola sozializatzen diren hizkuntzaren erabileraren bidez eta bestetik, nola diren sozializatuak hizkuntza erabiltzeko. Paradigma honetan, hizkuntza sozializazioa bizi guztian dirauen prozesu dinamikoa da, eta batez ere, inguruneari lotuta ematen da (Kasares, 2015: 16).

Hau da bizitzan zehar pertsona batek duen inguruak -lagunak, eskolak, komunikabideak- eragina izaten dute hizkuntz hautuetan beraz, haurrek hizkuntza ez ezik, beraz erabiltzeko gizarte arauak edota hizkuntzen arteko hierarkiak ere barneratzen baitituzte. Ideia honek berebiziko garrantzia izango du gure ikerketan, emakumeen eta hitanoaren arteko lotura edota apurketa ulertzerako orduan.

Bestetik, Kasaresek azpimarratzen du sozializazio honek ez dakarrela jarrera itxi edota finkorik. Hau da, hizkuntz sozializazioa ez da determinista izango – hiztunek agentzia baitaukat- baina baldintza dezake gure hizkuntz hautua (*Ibid.,:17*).

5.2. HITANOAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Harluxet hiztegi entziklopedikoak ondorengo definizioa ematen du “Hitano” hitzarentzat:

“Hi izenordainaren erabileran oinarri duen lagunarteko tratamendua. Hi bigarren pertsona aditzaren nor, nork edo nori kasua denean, dagokion adizkia erabiltzen da, eta Hi pertsona aditzari dagokion ekintzan partaide ez denean, dagozkion forma alokutiboak erabili behar dira” («Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa», 2018).

Beraz, lagunarteko tratamendu gisa deskribatzen digu hiztegiak Hitanoa. Baina definizioan forma alokutiboak ageri dira, hitanoaren baitan presentzia nabarmena, eta garrantzizkoa duten aditz formak. Baina zer dira zehazki forma alokutiboak?

Euskaltzaindiako Euskal Gramatikako liburuak – EGLU II liburu gisara ezagunahonela definitzen du alokutiboa:

“NOR, NORI eta NORK sintagmei dagozkien pertsona markez gainera, ager daiteke aditz multzoan beste pertsona marka bat gehiago. Pertsona marka hau ez dagokio perpauseko ezein sintagmari, hiztunak aurrean duen hizketa lagunari baizik” (Gramatika Batzordea, 1997: 387).

Errazago ulertze aldera, bi perpaus har ditzagun adibidetzat:

- a) Gizon bat ETORRI DA Maialenen bila
- b) Gizon bat ETORRI DUN Maialenen bila

Etorri da aditzak perpauseko NOR – gizon bat- sintagmarekin du komunztadura. Bestalde, -a) esaldiko aditzaren arabera, eta esaldi hau formulatzen duen hiztunak, ez du kontutan hartzen elkarrizketa laguna; hau da, ez dakigu nori hizketan ari den. Gizona etorri dela besterik ez digu esaten.

Baina -b) dioenak *Etorri dun* esatean, beste esaldia dioenak baino zertxobait gehiago esaten digu. Aditz honek ere perpauseko NOR – gizon bat- sintagmarekin komunztadura du, baina horretaz gain, lehen esaldiko aditzak ematen ez digun beste informazio bat ere eskaintzen digu. *Etorri dun* dioenak, *Etorri da* esaten du – a) esaldiko informazio berbera- baina hizketa lagunari buruzko informazioa ere eskaintzen digu. Forma hauek dira alokutibo delakoak, eta hitanoaren kasuan hauei esker hiztunak aurrean duena gizona ala emakumezkoa den ere jakin ahal izaten du. Hemen jarritako adibidean eta –Nren bidez, emakumea dela adierazten zaigu. Emakumeari zuzendutako hikako jardunak badu bere izena, *Noka* edo *noketa* aritzea hain zuzen; gizona zuzentzen gatzazkionean, berriz, *toka* ari garela esan daiteke, *toketa* darabilgula. Baina bestalde, hitanoak ere badu forma neutroa: *Etorri hadi* edo *Noiz etorriko haiz?*; esaldi hauek hitanozkoak dira, baina aditzak ez digu azaltzen solas-laguna emakumea edota gizona den (*Idem.*).

5.3. HITANOAREN ERABILERA BALDINTZATZEN DUTEN ALDAGAIK

Hitanoaren ezaugarri teknikoak ezagututa, aipatu beharrean gaude, tratamendu honen erabilera baldintzatzen duten aldagaiak. Aurretiko puntu batean, azaldu dira *Boterea* eta *Elkartasuna* bezalako “makroaldagaiak”, hauek, tratamendu bat edo bestea aukeratzekoan duten indarra azpimarratuz. Baina badira beste faktore edo aldagai xeheago batzuk, mintzatzerakoan Hitanoa edota Zuka aukeratzera garamatzatenak.

Xabier Alberdi (1993) hizkuntzalaria izan da hitanoaren gaia zehatzen jorratu duena, baita bakarrenetakoa ere. Ikerlari honen aburuz, hamar dira hitanoa baldintzatzen duten –edo lezaketen- aldagaiak.

Lehen aldagaia, eta berebiziko garrantzia daukana hitanoaren erabileran *adinarena* da. Hitanoa adinkideen arteko tratamendua da; edo behintzat historikoki, eta hitanoaren baitako legerik zaharrenetakoa, adinez zaharrago diren pertsonen hitanoz egiteko

debekua izango litzateke. Hau da, goiko orrietan aipatuta “boterearen semantika” agertzen da hemen, non berdinen artean hitz egin beharreko tratamendua den hitanoa.

Bigarrenik, *sexuaren* aldagaia izango genuke; adinarenarekin batera garrantzitsu edo oinarritzkoenetakoa. Hitanoaren inguruko datu urrien arabera, argi gelditzen da, sexu berdintasunak, hau da, gizonak gizonari edota emakumeak emakumeari, errazago egiten diola hitanoka. Nahiz eta aipatu beharra dagoen, gizonen artean hitanoak askoz ere presentzia nabarmenagoa daukala, emakumeen artean baino. Euskal Herriko zenbait herritan esaterako, ohituraren aurka doa gizonezko batek emakumezko bati hitanoka hitz egitea.

Hirugarrenik, *senidetasun-maila* legoke. Hitanoak historikoki presentzia handiena familiaren baitan izan du²¹, zehatzago esanda, anaien artean edota aita semeen artean – beti ere, aitak semeari, eta ez alderantzizko noranzkoan-. Bestalde, Euskal Herriko hainbat herritan eta ohituraren arabera, senar emazteek ez diote elkarri hitanoz hitz egiten. Hainbat ikerketetako adibideen arabera, emakume eta gizonezko batzuk bikote ezkongabe garaian Hi esaten zioten elkarri, eta ezkon ostean berriz, Zu.

Laugarrenik, eta hau ere funtsezko aldagai gisara, *elkartasun psikologikoa* genuke. Solaskidearekin dagoen hurbiltasun edo konfiantza maila adierazten digu aldagai honek. Hitanoa berdinen artean hitz egiten den tratamendu simetrikoa da, elkartasunari loturik dagoena, honen atzean, ez da ahaztu behar konfiantza agertzen dela eta “*euskaldun askorentzat hika zerbait baldin bada, konfiantzazko harremanaren seinalea da*” (Alberdi, 1993: 437).

Bosgarrenik, *talde-kidetasunaren* aldagaia legoke. Aldagai honen arabera, nahiz eta bi pertsonaren artean adiskidetasunik edota konfiantzarik ez izan, hitanoz hitz egin liteke; ohikoena ez den arren. Oro har, kidetasunak – adibidez, mendizaletasunak, ehizak...- eta elkarlanak – auzoan, politika arloan, erlijioan...- hitanoa erabiltzera bultzatzen dutela pentsa liteke.

Seigarrenik, *hizketa gaiak* ere baldintzatuko luke hitanoaren erabilera. Hizketa gaia serioa denean, norbanako batzuek zukako tratamendua erabiltzen dute hizketarako. Eta gaia, txantxetakoa edota umorezkoa denean berriz, hitanoa.

²¹ Badago susmo bat, familiaren baitako hitanoari, kaleko erabilerak ez omen dion gain hartu.

Zazpigarrenik, eta seigarren aldagaiarekin lotuta, *testuinguruaren* aldagaia aurkitzen da. Alde batetik, badirudi jai girorako hitanoa aproposagoa dela beste inorako baino. Hitanoa gutxitan erabiltzen duten pertsonak, adarra jotzeko, txantxetarako edota goizaldeko ordu txikitik eta festa giroan erabiltzen dute gehienbat tratamendu hau. Bestalde, saminezko testuinguru batean, hileta batean adibidez, bada jendea lagunari doluminak zuka ematen dizkiona; nahiz eta egunerokoan hika hitz egin. Non eta norekin aurkitzen garen, oso garrantzitsuak izango dira, tratamendua aukeratzeko orduan.

Zortzigarren aldagaia, *belaunaldiarena* litzateke. Aldagai honen baitan arau sendo eta egonkorrik ez bada ere, adin desberdinetako adiskideen artean gerta daitezkeen gorabeherak ulertzeko adina ezezik, belaunaldia ere kontutan hartu behar da. Euskaldun batzuk lau zapabost urteren gorabeheran hika aritzen dira; beste batzuek, ordea, belaunaldia edo hartzen dute irizpidetzat eta urteen alde nabarmena bada, zukara jotzen dute adinekoari errespetua erakustearren.

Bederatzigarren aldagaia *euskalkiarena* da. Hiztunaren joera maiz, solaskidearen hizkuntza ohituretara moldatzea izaten da. Euskaldun askorentzat tratamendu honek lurraldetasunarekin du zerikusia. Hau da, norbere auzo, herri edota eskualdetik aparte ez dute pertsona askok hitanoa erabiltzen. Horrela, batzuentzat, hitanoa betidanik, txikitatik ezagututako auzoko lagunaren esparrura dago murriztua, hortik kanpora zuka erabiltzen dutelarik.

Eta azken aldagaia *aginpideak* osatzen du. Pertsona batek norberarekiko duen aginpidez ari gara. Hau da, honen adibide oso argia gurasoak dira. Historikoki eta orain dela oso gutxi arte, seme-alabek ez diote gurasoei hitanoz hitz egin, ezta langileek beraien ugazabei ere. Normalean, pertsona baten norbera baino aginpide gehiago baldin badu, zuka aritu ohi da.

Hau horrela, eta hitanoaren hamar aldagaiak mahaigaineratuta, bada esaldi bat Alberdiren testuan atenzioa deitzen duena. Esaldi honen arabera, *gizonkeria* ere, kasi kasi beste aldagai bat bailitzateke:

“Ildo beretik, baina itxurari edo fisikoari helduz orain, badirudi mutiko mozolo, azkar eta okerrari hobeto doakiola hitanoa, mutil erkin eta ahulari baino, esan liteke azken honek ez duela hitanoa soportatzeko adinako sendotasunik” (Alberdi, 1993: 438).

Amaitzeko aipatu beharra dago hamar aldagaiek ez dute garrantzi edota pisu berbera tratamenduaren aukeraketan. Hala nola, familiarteko esparruan adina, sexua eta ahaidetasun-maila izango dira aldagairik erabakigarrienak tratamenduaren aukeraketan (Alberdi, 1994: 985). Bestalde, familiaren eremutik at, tratamenduaren erabilera gehien baldintzatzen duten aldagaiak kidetasuna/adiskidetasuna, adina eta sexua izango dira (Alberdi, 2003).

5.4. HITANOAREN ERABILERAREN EGOERA EUSKAL HERRIAN

Hitanoaren erabileraren inguruan ez da egin Euskal Herri guztiko neurketarik aspaldian. Ikerlan urri batzuk baditugu modu kuantitatibo zein kualitatiboan gaia aztertu dutenak, baina herri zehatzetan edota eskualdeetan egindako lanak izan dira. Erabileraren gaia ardatz harturik, ikerlanik mardulena Alberdik egin zuen 1996.urtean.

Ikerlan honen arabera, XX. mendean zehar hiketaren erabilerak jaitsiera nabarmena izango zukeen. Bizkaieraren edota mendebaldeko euskalkiaren baitan adibidez, Bizkaiko kostaldean galera nabarmen bat egon zela azpimarratzen du ikertzaileak, Ondarroa edota Lekeitio bezalako herri euskaldunetan, galzorian egongo litzatekeelarik hitanoa (Alberdi, 1996: 315).

Bizkaieran ez ezik, eta hasiera batean aipatu den bezala, euskalki guztietan eman da hiketaren erabileraren beherakada bat. Hala eta guztiz ere, eta euskalkiak erreferentziazat harturik, esan liteke Zuberera eta behe-nafarrera direla tokatzaileenak (*Ibid.*,: 364). Hau horrela, euskalki desberdinetako hiztunek ez dute jarrera bera hikako bi mintzamoldeen aurrean. Zuberotarrak eta behe-nafartarrak tokatzaileenak baldin badira ere, ezin da gauza bera esan noketari buruz. Hala nola, gipuzkerazko hiztunak dira noketa gehien erabiltzen dutenak. Beste muturrean, lapurtarrak leudeke, noketa gutxien erabiltzen dutenak baitira (Alberdi, 1996: 358).

Alberdiren (1996: 361) arabera, Euskal Herri guztian noka oso gutxi erabiltzen da familiaz kanpoko harremanetan. Hala ere, ondorengo dio ikerlariak Bergarako²² nokazaletasunaren inguruan:

“Aulestin eta Bergaran, adibidez, «normaltasun osoz» (hots, toketa bezalaxe!) eta erruz erabiltzen da noketa, bai familia barman, bai familiaz landako adiskideen artean; hortaz,

²² Bergarako adibidea baliagarria izan liteke Antzuolarentzat ere. Bergara Antzuolatik 3 kilometrorra aurkitzen da eta.

sexukide izan edo ez, adiskideak eta senideak maiz aritzen dira noka beren artean”
(Alberdi, 1996: 357).

Gaur egun hala ere, eta usteak soilik direla azpimarratuz, ez nuke esango horren egoera onean dagoenik noketa, ez Bergaran eta ezta gure ikerketa kokatzen den herrian ere; hau da, Antzuolan.

Bestalde, aipagarria eta azpimarragarria da, 1996. urteko ikerketa honen arabera, senide nagusiagoekiko ez da inongo euskalkitan erabiltzen hitanorik, ezta euskalki hikatzailenetan ere; gipuzkera edo zuberera kasu (*Ibid.,:* 365).

Aipatutako ikerketa hau argitaratu eta bi urtera, Xabier Azkue hizkuntzalari zumaiarrak, Zumaiako hitanoaren inguruko ikerketa bat argitaratu zuen. Ikerketa hau, Zumaiako institutuko eta Maria eta Jose ikastetxeko hainbat ikasleekin eta hauen gurasoekin burutua izan zen. Hori dela eta aipatu beharra dago, ikerketan parte hartu zuten gaztetxo denak ez zirela Zumaiarrak. Batzuk, Oikia, Aizarnazabal eta Arroakoak ere baziren eta hauek gehixeago egiten zuten oro har hitanoz zumaiarrek baino²³ (Azkue, 1998: 25).

Mutil eta nesken arteko erabileraren gaineko desberdintasunak agerian gelditzen dira ikerlan honetan ere. Neskei dagokienez, oso gutxi dira eskolan behintzat beste neska batzuei hika egiten zietenak. Mutilei ordea, errazago egiten diete hika. Mutilen kasuan aldiz, joera orokorra hika hitz egitea zen. Hau horrela, neska koadrilek ez zuten hitanorik erabiltzen, egindako esaldiren batez gain; mutilen artean aldiz, orokorragoa zen hitanoaren erabilera. Honen adibide dira ondorengo datuak: Mutilek %26an hika jasotzen dute, neskek aldiz, %8an soilik (*Ibid.,:* 28).

Gurasoen emaitzei erreparatuz, esan liteke seme-alabei oso gutxitan hitz egiten zietela hitanoz. Hau horrela, belaunaldi batetik bestera transmisioaren galera garrantzitsua egon dela esan liteke; azken belaunaldian hitanoa aurrekoan baino askoz gutxiago transmititu baita (Azkue, 1998: 52). Hala ere eta honekin lotuta, aipatu behar

²³ Zentzu honetan Ozaitak (2014: 88) ondorengo dio Tolosaldeako hitanoaren erabileraren inguruan: “Tolosaldea landa eremuko herri txikiak eta kale giroa duten herri handixeagoek osatzen dute. Esan dezakegu herri txikietan hitanoaren transmisioa bi belaunaldien artean gauzatu dela eta bertan hizkera modu hau nahiko gertukoa sentitzen dutela. Tolosa, Ibarra eta Villabona bezalako herri handixeagoetan aldiz ez da transmisio hori burutu”..

da gaztetxoan %62a eskolan hasi zela hitanoz hitz egiten. Hau da, etxeko transmisioa ez da izango derrigorrezkoa hitanoz aritu ahal izateko (*Ibid.,:* 33).

Bestetik, esku artean ditugun hitanoaren erabileraren inguruko azken ikerketa kuantitatiboak Usurbil eta Azpeitian 2017. urtean eginak dira. Ikerketa hauek, erabileraren inguruan inoizko daturik xeheenak eskaintzen dizkigute.

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago Usurbil herri guztiz euskalduna dela; euskararen erabilera %73koa baita. Horietatik, % 28,1ak hitanoa erabiltzen du herrian. Hitanoz izandako elkarrizketetatik %63,9a tokazko aldaeran izan ziren, %25 hitanoaren forma neutroan eta %11,1ek nokaz egin zuen (Soziolinguistika Klusterra, 2017b: 16).

Hitanoaren erabileraren azterketan garrantzia berezia du sexuaren aldagaiak, aztertu ditugun ikerketa ezberdinei jarraiki, gizonezkoek gehiago erabiltzen dutela hitanoa baitirudi, emakumezkoek baino. Usurbilen egin den neurketaren emaitzek ondorio horixe erakutsi digute, hogeita lau puntuko aldea egon baita batzuen eta besteen artean: %38,6 hitanoz izan dira gizonezkoak hiztun direnean, eta %14,6 emakumezkoak direnean (*Ibid.,:* 17).

Hitanoa erabili den elkarrizketei dagokienean, emakumezkoek noka eta hika neutroa modu parekoan erabiltzen dute nagusiki, eta toka proportzio txikiagoan darabilkite. Aitzitik, gizonezkoen artean toka da aldaera erabiliena nabarmenki, ondoren neutroa eta oso presentzia txikia du nokaren erabilerak, %2,2 (*Idem.,*).

Harrigarria dirudien arren, Usurbilen gazteak dira hitano gehien erabiltzen duten pertsonak. Hala ere, aldaera kontuan izanez gero, adinekoak darabilte noka gehien (Soziolinguistika Klusterra, 2017b: 18).

Azpeitiaren kasuan aldiz, %38,3 dira hitanoz mintzatzen diren azpeitiarrak. Aldaerei erreparatuz, Azpeitiko herrian %45,1ean toka entzungo genuke hitanoz ari diren elkarrizketen baitan; %37,4an hitano neutroa eta %17,5ean noka. Usurbilen eta Zumaiari bezalaxe, gizonezkoak gehiago dira hitanoz hitz egiten dutenak emakumezkoek baino, 27 puntuko aldearekin gainera: Gizonek %50,5 eta emakumeek %23,4 (Soziolinguistika Klusterra, 2017a: 19).

Bestalde, sexu eta adinaren aldagaiak elkarlotuz, esan liteke hitanoaren erabilera handiena gizonezko gazteen baitan ematen dela - %90,0- eta hitanoren erabilera baxuena, berriz, emakumezko haurretan - %9,9- (*Idem.*).

Atalaren hasieran aipatu ditudan ikerlan kualitatiboei erreferentzia eginez, hauek ere ematen dizkigute zertzelada batzuk hitanoaren egoera zein den herri ezberdinetan aztertzeko.

Iñigo Beitia antropologo eskoriatzarrak azpimarratzen duenez:

“Eskoriatzan hitanoaren erabilera orokorra, gazteen aburuz, gehien bat jende helduak egiten du eta hiztunak, beraien ustez, baserri girokoak izango dira normalean. Hala ere, heldu hauen artean generoari erreparatzen baldin bazaio onartzen da hitanoa gehiago entzuten dela gizonen artean, gizon-emakume edota emakumeen artean baino” (Beitia, 2017: 154).

Honetaz gain, ikerketa horretan aipatzen denez, Eskoriatzan gazteek ez dute modu arrunt batean hitanoa erabiltzen; nahiz eta, zukatik hikorako saltoarekin ausartu diren batzuk egon badauden.

Bestetik, eta Debagoiena eskualdeko hizkuntzalari baten hitzei jarraiki, badirudi Euskal Herrian gazteen artean hitanoa egin egiten dela, baina beste kontu bat da nola. Hau da, Juan Martin Elexpuru hizkuntzalariaren arabera *Hiper-hiketa* delako fenomeno bat ematen ari da. Adibidez: “Esan din Urbian elurra zegonala”. Hau da, hiketa behar ez den lekuan, menpekoetan, erabiltzea; alokutiboa behar ez den lekuan erabiltzea (Elexpuru, 2018).

Beraz, atal honetan aztertutako datu hauen arabera, ikusi dugu hitanoa bizirik dagoela Euskal Herrian oraindik ere, baina nahiko kinka larrian; batez ere, noketa.

5.4.1. HITANOAREN INGURUKO PERTZEPZIO ETA USTEAK

Hitanoaren erabileraren edota erabilera ezean, zeresan handia izan dute honen inguruan dauden pertzepzio eta usteek. Ritxi Lizartzaren (2015) arabera, hitanoa itsusia dela esan izan da aspaldidanik, eta deabru zein ijitoen hizkuntzatat ere hartu izan da.

Era berean, Juan Martin Elexpuruk (2018) hitanoaren galera gaitzat hartuta, ondoko gogoeta burutzen du Berria egunkariko iritzi artikulu batean:

“Hikaren galeraren arrazoi nagusia euskara beraren galera izan da zalantza barik. Zukari ere hozta-hozta eutsi zaio desagerpen arriskuan egon den aro luzean. Baina ez da hori izan arrazoi bakarra. Hona hemen ahotsak.com-eko artxibotik jasotako esaldi batzuk: «Hika aritzen ginen elkarrekin eta 'hika ijitoak aritzen zirela!». «Hika itsusi dela esaten ziguten». «Gu hika eta ama atzetik demandan errespeturik ez geneukalako, hika egiten genuelako». Elizgizon eta guraso moralistenak beti saiatu dira hika baztertzen, berbaera horrek konfiantza larregia adierazten zuen nonbait, eta konfiantzak pekatu bidea errazten”.

Era berean, eta goian aipatu den Eskoriatzako hitanoaren inguruko ikerketaren arabera, Eskoriatzako gazteek hitanoa baserri giroarekin, gauza zahar batekin edota ohiturekin lotzen dute. Bestalde, ikerketa berdinean burututako elkarrizketetan, behin eta berriz ageri da zakartasunaren ideia. Hau da, Eskoriatzako gazteek zakartasunarekin lotzen dute hitanoa (Beitia, 2017: 152).

Bestetik, Josu Ozaitak (2014: 88) Tolosaldeako gazteek hitanoaren inguruan dituzten pertzepzioei buruz egindako ikerketan azaldu zuenez, Tolosaldeako herri txikiak gazteen arabera, Tolosara jaistean eta hitanoz mintzatzean “kaxero” irudia sortzen da beraiengan. Honen aurrean, askok eta askok hitanoz hitz egiteari uzten diotelarik.

Honen harira, hitanoa gizonkeriarekin edota maskulinitatearekin ere lotu izan da. Honela dio Alberdik hurrekin hitanoa mintzatzearen inguruan: *“Hiketa geroztik omen dator, haurra hazitakoan, gizonkeriak edo okerkeriak egiten hasterakoan”*. (1994: 985). Hurrez ari da, eta ez mutikoez, baina hitanoz mintzatzen hasteko unea gizonkeriarekin lotzen du; neskatalak hitanoaren jasotzaile gisa ez dituelarik ikusten.

Hitanoaren inguruko pertzepzio eta uste negatiboen – itsusia, zakarra, deabruen hizkuntza...- sorreran, baliteke erlijioak ere bere aletxoak jarri izana. Begoña Echeverria (2004) ikerlariak XVI eta XVII. mendean euskarara itzultitako Testamentu Zahar eta Berrian baliatutako hizkuntza erabilerak aztertu zituen. Ikerlan horren arabera, protestanteek euskaratutako testuan noka forma ohituraz erabiltzen zen emakumezkoengana zuzentzean, hau da, nahiko arrunta zen nokaren erabilera. Katolikoek euskaratutako testuetan aldiz, hitanoa zigortzeko edota mespretxua adierazteko erabiltzen da. Honela, eta katolikoek euskaratutako testuetan, konnotazio negatiboa ematen zaio hikari orokorrean; baina nokari modu ageriagoan. Izan ere toka

eguneroko gizonezkoen elkarrizketetan agertzen da, baina nokak ez du presentzia arrunt hori.

Bestalde, eta gaur egungo gazteen erabilera kontuan hartuta, zaharragoei *Hi* ez egitearen urrezko arauak badirudi aldaketa batzuk jasango dituela datozen urte hauetan. Eskoriatzako gazteek adibidez, adinaren inguruko arau hau ezagutu eta errespetatzen dute. Baina, prest agertzen dira hiketa mantentze aldera, etorkizunean beraien seme-alabek eurei hitanoz hitz egiteko (Beitia, 2017: 151).

Tolosaldeako gazteek aldiz, ez dituzte erabilera arau horiek bere egiten – batez ere, herri handienetakoek-, beraien esanetan gaur egungo gizartean ez baitiote lekurik ikusten boterezko harremanetan oinarritutako hizkuntza ohiturei (Ozaita, 2014:93).

Bide honetatik, Xabier Euzkitze telebista aurkezleak honela defendatzen du arau honen apurketa Uztarrria aldizkariari emandako elkarrizketa batean; berak ere, bere semea berarekin hitanoz mintzatzera animatzen baitu:

“Hitanoa naturaltasunez eta egokitasunez erabiltzen den lekuan badakit mutil kozkorrak aitari zuka egitea dela normalena, baina uste dut gure mutilak hika ondo egiten ikasi behar duela, eta horregatik egin izan diot betitik hika. Gainera, orain ondo egiten ikasteko ez du beste eredurik, lagunek ere ‘zu’ esaten diotelako” (Esnaola, 2006).

Baina hitanoaren urrezko arauaren apurketa honek, hautsak harrotzen ditu; ekintza hau ez baita euskaldun eta hikatzaile ororen gustukoa. Joxerra Gartzia kazetari eta idazlearen arabera adibidez, hitanoak adinaren arau hau apurtuz gero, bere zentzua galduko luke. Honela dio Berria egunkariko iritzi artikuluan batean:

“Guraso eta irakasle hiper-demokratak daude, seme-alabei eta ikasleei eurekin hika hitz egiten uztearen aldekoak. Ideologiak ideologia, astakeria latza da hori, gazte jendeari nagusiekin hika aritzeko baimena emanaz gero hitanoak ez bailuke balio izango solaskideen arteko kidetasuna markatzeko” (Gartzia, 2016).

Baina historiari erreparatuz, esan genezake adinaren aldagaia ez dela beti garrantzizkoa izan hitanoaren erabilerarako. Horren adibide da 1571. urtean itzulitako protestantismoaren “Testamentu Berria”. Bertan, ama-semeen arteko hizketaldiak adibidez, hitanoz ematen dira – bi noranzkoetan-. Ondorengo testu katolikoetan oster, jada botere hierarkiak argi agertzen dira (Echeverria, 2004).

Hitanoaren beste ezaugarri bat sexu bereizketarena da. Hau da, emakumeei noka hitz egitearena eta gizonezkoei toka. Arau honen inguruan ere, Tolosaldeako gazteek iritzi ezberdinak dituzte. Batzuen arabera, hitanoan generoa bereizteak ez du ezer txarririk izango, honek ez baitio kalterik egingo gizon-emakumeen berdintasunari. Beste batzuen ustez ordea, garai batean zentzua izan zezakeen diferentziatzat jotzen dute, baina gaur egungo gizartean arau hau oztopo dela; ez dute oso positibotzat jotzen (Ozaita, 2014: 96).

Baina urteetan zehar hitanoaren inguruan izan diren uste hauen gainetik, Euskal Herriko gazte batzuek hitanoan desberdintzeko modu bat ikusten dute. Hau da, ez dute aberastasun kultural soiltzat ikusten, erregistro informal eta kolokial gisara ere ikusten baitute. Hitanoa funtzionala da beraz, Euskal Herriko hainbat gazterentzat – edo agian hainbat mutilentzat esan liteke- (Beitia, 2017: 150; Ozaita, 2014: 99).

Euskal Herri mailan beraz, hitanoaren inguruan hainbat uste eta pertzepzio sortu dira azken mendeetan. Litekeena da, pertzepzio eta uste hauek, hitanoaren erabilera urrian zuzeneko eragina izatea.

ANALISIA: GENEROAK BALDINTZATZEN OTE DU HITANOAREN ERABILERA ANTZUOLAN?

Atal honetan, Antzuolan egindako landa lanaren analisi bat egingo dut. Hau da, orain arteko marko teorikoa eta egindako elkarrizketa eta behaketak uztartuz, Antzuolako hiketaren erabileran genero rolek duten eragina ikertzen saiatuko naiz. Horretarako, lehen puntuan, eta analisisa bera testuinguratzeko Antzuolako herriaren inguruko datu batzuk emango ditut. Bigarren puntuan berriz, Antzuolako hizkuntza errealitatearen nondik norakoak ezagutzea izango da xedea. Hirugarren puntuan aldiz, elkarrizketatuek noketaren inguruan dituzten diskurtsoak analizatu ahal izango dira. Jarraian, hizkuntza sozializazioak hitanoaren erabileran eta zehazki, emakume eta gizonei zer modu ezberdindutan eragiten dien ikertuko dugu. Eta azkenik, Antzuolako gazteek, hitanoaren erabileraren eta orokorrean tratamenduaren aurrean duten jarrera berri bat ezagutuko dugu; hitanoaren inguruko paradigma berri bat, alegia.

6. IKERKETAREN KOKALEKUA: ANTZUOLA

Antzuola Gipuzkoako lurralde historikoan kokatuta dago, zehazki Debagoiena eskualdean; Gipuzkoa hego-mendebaldean alegia. Bergara eta Zumarraga herrien artean aurkitzen da, Deskarga mendatearen magalean:



Iturria: Antzuola.com

Esan liteke Antzuola ez dela herri handia, 2.223 biztanle baititu. Hala ere aipagarria da, 2003. urtetik 2013. urtera biztanleriak %14,55eko igoera jasan zuela (Antzuolako Udala, 2018).

Herriak Azkoiti, Urretxu, Zumarraga, Oñati, Legazpi eta Bergararekin muga egiten duen arren, azken honekin izan du historikoki lotura berezia (Larrañaga, 1998: 2). 1391ko urtarrilaren 20an Bergarako hiriarri erantsi zitzaion Antzuola, batez ere hiriak zeuzkan abantailak jaso ahal izateko. Batasun hori ez zen eten 1629ko abenduaren 12 arte, orduko errege zen Felipe III.ari urrezko 5.000 dukat ordaindu ondoren, Antzuolak independentzia eskuratu zuen (Antzuolako Udala, 2018).

Gaur egungo Antzuolaren ekonomia jarduera nagusia industria izan arren, eta herriko gunerik garrantzitsu eta jendetsuena herrigunea izan arren, ondorengo adierazten zuen 1802. urtean argitaratutako Madrilgo geografia eta historiako hiztegi batek Antzuolari buruz:

“La población se compone de 7 barrios, en los cuales hay 86 casas y tiene además 90 caseríos, y en todas habitan 1200 personas. El terreno es fértil y produce como una 90 fanegas de trigo y maíz, 3 500 castañas, bastante lino, habas, arvejas y algunos manzanos. En sus montes hay muchas hayas y robles, y con sus pastos se cría ganado vacuno: la ocupación principal de los naturales es la agricultura; sin embargo hay oficiales de herrería, carpintería y cantería, y una fábrica de márragas bastas, en el cual trabajan anualmente como 300 varas” (Ramirez de Okariz, 2003: 13).

Beraz, eta nahiz eta XIX. mendera arte Antzuola nekazal giroko herrixka bat izan, mende horretantxe bertan lehen industriak sortzen hasi ziren. Larrua ontzeko lantegien eskutik iritsi zen industrializazioa herrira – Larrua ontzeko lau lantegi egotera iritsi baitziren-. Lehena 1860. urtean sortu zen, bigarrena aldiz, 1880an. Ondoren etorri ziren azken biak: “Galarza Hermanos y Arbulu” eta “Hijos de José Telleria”. Enpresa guzti horiek, desagertzen joan ziren XX. mendeko 50eko hamarkadatik 90. hamarkada bitartean (Antzuolako Udala, 2018).

XIX eta XX. mendeetan joan zen Antzuola gaur egungo fisionomia hartzen beraz²⁴. Industrializazio honen eraginez, XX. mende hasieran Espainiar Estatutik migratzaile andana iritsi zen herrira. Gertakari historiko honek eta diktaturapeko testuinguruarekin batera - Euskal Herriko beste herri batzuetan gertatu zen bezala- Antzuolako paisaia linguistikoan ere eragina izan zuen; herria dezente erdaldundu baitzen (Larrañaga, 1998: 3).

²⁴ Gaur egun Antzuola herri guztiz industrializatua da. Hiru lantegi dira garrantzitsuenak herrian, 250 langile baino gehiago dituztenak alegia: Goizper, Matz-erreka eta Elay.

Ondorengo puntuan Antzuolako euskararen erabilera sakonki aztertuko dugun arren, esan liteke herriko auzuneez argi islatzen dutela gaur egun oraindik ere biztanleriaren hizkuntza egoera. Herriaren erdialdean kokatuta dauden auzuneez lirateke euskaldunenak, eta bertan euskararen presentzia nabaria da. Herriko hegoaldean eta iparraldean kokatuta dauden auzoetan aldiz, hau da, Beheko auzoan eta Errekalden, euskaraz askoz ere presentzia murriztagoa du.

Ondorengo adierazten du Jone Larrañagak *Antzuolako hizkera* izenburua duen liburuan:

“Auzoak auzo, Antzuolan gertatzen den ezaugarrietako bat herrian ditugun bi hizkuntza komunitateak dira. Badirudi herrian bi komunitate daudela, bat euskaldunena eta bestea erdaldunena, eta bien artean, salbuespenak salbuespen, bereizten dituen hesi bat dagoela” (1998: 4).

Hau horrela, ikerketaren testuinguru edota kokalekua behin ezagututa, ondorengo atalean Antzuolako hizkuntza errealitateari so egingo zaio, herrian euskararen egoera zein den ezagutzeko asmoz.

7. ANTZUOLAKO HIZKUNTZA ERREALITATEA

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago, Antzuola nahiz eta Gipuzkoako lurralde historikoan dagoen, herriko hizkera mendebaldeko edo bizkaieraren euskalkiaren baitan kokatzen dela (Larrañaga, 1998: 5).

Bestetik, eta azken hizkuntza-erabilereen kale-neurketen arabera, 2016. urtean Antzuolako kaleetan entzundako 10 elkarrizketetatik ia zazpi, %65,5 zehatzago esateko, euskaraz dira (Soziolinguistika Klusterra, 2016: 9). Aurreko orrietan aipatu den bezala²⁵, Antzuolako euskararen erabilerak 4 puntuko jaitsiera izan du azken urtetan, 2011. urteko neurketen datuak eta 2016koak alderatuz gero. 2011. urteko kale neurketen arabera, Antzuolan %69,5ak euskara erabiltzen baitzuen kalean.

Hala eta guztiz ere, esan genezake Antzuola herri euskalduna dela, eta azken hamarkadetan euskaldun kopuruak gora egin duela. 1981. urtean biztanleriaren %64,08ak zuen euskararen ezagutza osoa. Hamarkada bat beranduago, hau da, 1991.

²⁵ Ikusi “Gaur egungo euskararen erabilereen egoera” atala, 26. orrialdea.

urtean, euskaldunak %71,17a ziren (Larrañaga, 1998: 3). Joera honek bere horretan jarraitu duela esan daiteke, EUSTATEk 2011. urtean egindako Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren arabera, biztanleriaren %73,1 euskalduna baitzen. Beste zati batek, %12,4, euskalduna izan gabe, bazuen euskararen nolabaiteko ezagutza bat, ulermen mailan behintzat, eta gainerako %14,5a erdalduna zen, euskara ulertu ez eta hitz egiten ere batere ez zekitena (Soziolinguistika Klusterra, 2016: 9).

Berriz ere erabilerari dagozkion 2016ko datuei erreparatuz, azpimarratu liteke gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza portaeren artean ez dagoela alde handirik. Hala ere, gizonezkoen erabilera - %66,6- zertxobait altuagoa da emakumezkoena baino -%64,9-. Beraz, 1,7 punturen aldea dago gizon eta emakumeen erabileraren artean. Hala nola, aipagarria da sexuen hizkuntza portaerei dagokienez, Antzuolako herrian joera hau ez dela errepikakorra. Hau da, 2005. urtean emakumeen erabilera gizonezkoena baino 7,7 puntu altuagoa baitzen (*Ibid.*: 18).

Beste herri batzuetako datuei erreparatuz, normalean eta adin tarteari²⁶ dagokionez haurrak izaten dira euskara gehien erabiltzen duten pertsonak. Antzuolaren kasuan ordea, azkeneko kale neurketan gazteen artean behatu zen erabilerarik altuena; gazteen %79,1ak euskara erabiltzen duelarik. Gazteen portzentai honetatik gertu, haurrena genuke, %77,8rekin. Helduen artean aldiz, %60,5ak erabiltzen du euskara. Eta azkenik, euskara gutxien darabiltenak 65 urtetik gorakoak lirateke, %44,4 alegia (Soziolinguistika Klusterra, 2016: 20).

Haurren eta gazteen erabilera altua den arren, azken hamabost urteei erreparatzen baldin bazaie – 2001/2016- , bi adin-talde hauetan beherakada izan du euskararen erabilerak. Nabarmenena gazteen erabileran izan da: 2001etik 2016ra bitarte, 12,1 puntukoa izan da jaitsiera, %91,2ko erabileratik %79,1era pasaz. Haurren erabilera ere jaitsi egin da %80,1etik %77,8ra. Adinekoenak ere puntu bat egin du behera, baina orohar mantendu egin dela esan genezake-%45,4tik %44,4ra-. Helduen erabilera izan da igoera jasan duena: lau puntu egin du gora - %56tik %60,5era- (*Ibid.*: 24).

Beste herri batzuetako azterketetan ez bezala, Antzuolako euskararen kale neurketen gaineko ikerketan, generoaren aldagaia eta adinarena ez dira alderatzen. Horren

²⁶ Lau adin-talde bereizten dira kale erabilera neurtzeko: haurrak (2 eta 14 urte bitartekoak), gazteak (15 eta 24 urte bitartekoak), helduak (25 eta 64 urte bitartekoak), eta adinekoak (65 urtetik gorakoak).

ondorioz, erabilerari dagozkion datu urriagoak dauzkagu esku tartean; batez ere, adinak eta generoak nola eragiten duten euskararen erabileran ezin baitugu aztertu.

7.1. HITANOAREN ERABILERA ANTZUOLAN

Goiko orrietan ikusi eta aztertu dugun bezala, Euskal Herriko hitanoaren erabileraren inguruko datu zehatzak oso urriak dira. Hau horrela, Antzuolako hitanoaren ezagutza eta erabileraren inguruko datu kuantitatibo zehatzik ere ez daukagu gaur egun esku artean. Dena den, ikerlanean parte hartu duten elkarrizketatuen pertzepzioak, eta lana aurrera eramateko egin diren behaketen ondorioz, erabileraren erradiografia kualitatibo bat egitea izango da atal honen helburua.

Elexpuru ikertzailearen arabera esaterako, Antzuola litzateke Deba Goieneko eskualdean hitanoa nahiko osasuntsu mantentzen duen herrietako bat; Oñatirekin batera:

“Ibarreko herri batzuetan dago bastante bizirik, eta herri horrek izango liake esate baterako Antzuola eta Oñati. Eta punto, punto. Bergaran auzuetan bai, kalian badago gogo bat eta asmo bat eta... Baina ezagutu gutxi, nik uste jonat²⁷”.

Ikerlanean parte hartu duten elkarrizketatu gehienak bat letorzke Antzuolako herria hikatzaille gisara izendatzerakoan. Beti ere, konparaketa batzuen baitan. Hau da, elkarrizketatutako bi gaztek argi utzi dute, Antzuola hikatzaillea dela Ibarreko beste herri gehienekin konparatuz gero. Baina biek ala biek, Azpeitia edota Azkoitiarekin ere egin zuten konparaketa; herri hauek askoz ere hikatzailleagoak direla berretsiz.

Hala ere, eta Ibarreko herriekin konparaketa bat egite aldera, gogora ekar genezake Iñigo Beitia (2017: 154) antropologo Eskoriatzarraren lana. Ikerlan honen arabera, Eskoriatzako gazteek ez dute hitanorik erabiltzen, eta hauek hitanoa pertsona heldu eta baserritarrekin lotzen dute.

Bestalde, eta mutil tokatzaileen arabera, hitanoak erabilgarritasuna galduko luke Arrasaten edota Bergaran. Hau da, alboko herri handietan gazteek ez dute hitanorik ez erabiltzen, ezta ezagutzen ere; horrela, Antzuolako mutil gazteek bergarar zein arrasatearrekin ez dute erabiltzen hitanoa. Bergarako eskolan hitanoaren erabilerari buruz galdetuta honakoa erantzun zuen Mikel 20 urteko gazteak:

²⁷ 2018ko ekainaren 15ean Bergaran egin genuen elkarrizketa Juan Martin Elexpuru eta biok. Honako aipu honetako hitzak, elkarrizketa honetatik jasoak dira.

“Eskolan hitanua erabiltzen zinuau? Aber betiko lagun artian, nik hikan itten dot. Betiko lagunekin eta... Zuek nahastuta ibiltzen zate ez? Bai. Horrekin be bai, kuadrilan gaenian bai. Ta Osintxukon batekin, ero Angiozarkon²⁸ batekin eta bai. Baina bestela bergako jentiaikin eta ez... Hori ohittura faltia ero... Baina hola gerturatu baten bat eta hi ez”.

Iritzi berekoa da Maialen, nokara igaro duen 30 urteko gaztea ere:

“...Baina bestela Bergan (Bergaran) da... Aber barre itten jone antzuolakuak hika hitz itten dabelako, o sea en plan txino. Bueno txino ez, gehixao jotxateken da... Afrikano... Jajajajaja!”

Hala eta guztiz ere, nahiz eta hitanoaz modu orokorrean hitz egin orain artean, elkarrizketatu gehienen arabera, gizon eta emakumeen arteko erabileraren artean ezberdintasun nabarmena dago, baita toka eta nokaren artean ere; Zumaiako (Azkue, 1998), Usurbilgo (Soziolinguistika Klusterra, 2017b) eta Azpeitiako (Soziolinguistika Klusterra, 2017a) ikerketetan islatzen den errealitatearen antzera, Antzuolan ere gizonek gehiago egingo lukete hitanoz, eta forma erabiliena eta osasuntsuen dagoena toka da. Bestalde, badirudi toka-noka bikotea osasuntsuen 55 urtetik gorako pertsonen artean dagoela. Adin horretatik behera, gizonezkoek toka hitz egingo lukete –nokarik ez- eta emakumezko gehienak zuka mintzatuko lirатеke.

“Zuen gurasuak -55 urtetik gora-, horrek hika itten jone. Gainea gizonezko eta emakumezko. Jenerazino hortarte uste jonat ebidentia dala itten dabela. Hortik behera, gizonezkuak en general hika itte jonau, eta emakumezkuak en general ez. Eta gizonezkuak emakumezkuak be ez, noski” (Jon, 37. Toka-noka).

Uste edo pertzepzio hau nahiko zabalduta dagoela sumatu da elkarrizketetan. Badirudi, 55-60 urtetik gorako pertsonen -euskaraz mintzatzen direnek bederen- hitanoz hitz egiten dutela. Baina behaketetan aztertu ahal izan denaren arabera, hau da, komertzio eta tabernetan egindako behaketen ondorioz, esan liteke hau ez dela pertzepzio erreal bat. Toketak askoz ere presentzia nabarmenagoa dauka, noketak baino, Antzuolan; edota zehazki esanda Antzuolako eremu publikoan. Egia da, adin tarte horretako jendea entzun litekeela erraztasunez noka zein toka hizketan, gizon zein emakume. Baina oro har, eremu publikoan entzun ahal izan den hitanoa gizonezkoek egiten dute gehien bat, eta toka forma hartzen du.

²⁸ Bergarako bi auzo.

Gainera badirudi, emakumezkoek hitanoz hitz egiteko duten ohiturari dagokionean, nolabaiteko belaunaldien arteko salto bat eman dela. Gaur egun 90 urte inguru dituzten bi emakumeren arabera, beraien gazte denboran eurak beti hitanoz aritzen zirela nabarmentzen dute – nahiz eta ondoren aztertuko dugun gisara, gaur egun gutxiago erabiltzen dutela aitortu-:

“Hika lagun artian da bai! (...) Gu beti hika zertu ginan da. Karo, etxian anai-arrebak eta beti hika itten ginuan... ta beti hika” (Maria Luisa, 90. Toka-noka).

“Ta gaztetan zela berba itten zinuen lagunak eta anai-arrebak eta? Hi zer? Ta hik baakizer eta... Bueno euskaria halaxe da. Euskaria hikakin da...” (Pruentxi, 94. Toka-noka).

Bestetik, gutxi gora behera 20 urte gazteagoa den elkarrizketatu batek honakoa dio beraien gazte denporako emakume eta gizonen arteko hitanoaren erabilerari buruz:

“Ta esango zinuek gizakumien erabileria haundixaua zala emakumiena baino? Baitta! Eske emakumiape hika geuri be etzozkuen itten, gehixenak zu. Ta emakumiak eren artian? Eren artian be zuka sumatzen nittuan gehixao” (Jexux, 67. Toka-noka).

Beraz, orokortuz, ezin daiteke esan 55 urtetik gorako pertsonak oro har hitanoa beti hitz egiten dutela eta emakumezko zein gizonen erabilera parekoa denik; ezta toka eta nokaren erabilera ere. Hala ere, egia da toka-noka gehien entzuten den adin tartea horixe dela, ondorengo belaunaldiei noka ez baitzaie entzuten; salbuespenak-salbuespen.

Hau horrela, noka eta tokaren erabileraren arteko aldea nabarmena da Antzuolan. Are gehiago, esan liteke galera bat eman dela azken belaunaldiaren baitan. Lehen aipatu bezala, 55 urtetik gorako emakume –zein gizon- batzuei entzuten zaie noketan hitz egiten espazio publikoan – baita etxeetan ere-. Baina hurrengo belaunaldiari – eta oro har 50 urtez azpiko pertsoneri- apenas; beti ere, ondoren aipatuko ditugun salbuespen batzuk izan ezik.

Elkarrizketatu bat haratago doa noketaren galeraz galdetutakoan:

“Ze suposauko luke noka galtziak? Ba... Hori don praktikamente pasauta daon gauza bat, nik uste jonat hola dala. O sea Antzuolan noka oin momentuan ezin don esan asko erabiltzen danik, galdu be ezton in... Desde luego transmisinua be galdu don, zuek kenduta... Galdu don” (Jon, 37. Toka-noka).

Beraz, eta Alberdiren (Alberdi, 1996: 357) baieztapena berriz ere ekarriz, hau da, Bergaran noka normaltasun osoz erabiltzen dela, esan daiteke baieztapen honek ez duela gaur egungo Antzuolako errealitatea islatzen.

Hala nola, nolabaiteko Antzuolako hitano erabiltzaileen profil bat marrazte aldera, bi bereizgarri aipa genitzake. Batetik, toka-noka, hitanoaren bi aldaerak indartsuen dauden adin tartea, 55-60 urtetik gorakoa dela. Eta bestetik, jada aipatu den bezela, gizonezkoak gehiago izango lirateke erabiltzen dutenak –eta gehien bat toka-emakumezkoak baino.

Bestalde, eta elkarrizketatutako gazteenen arabera, badago horrelako uste edo pertzepzio bat Antzuolako hika erabiltzailea gizon, baserritar edo euskaldun jatorria duena dela baieztatzeko. Beti ere hika hizlari gazteen inguruan ari direla interpretatu daiteke.

“Nik esango nuke gaztien artian etxe euskaldunetakuak erabiltzen dabela hika. Ta zaharrauen erabileria anitzaua da” (Erik, 33. Toka).

Nolabaiteko baserriarekin lotura, edo baserritar familia ere izango luke Antzuolako hika hiztunak gazte hauen arabera:

*“Adina, jatorrixa... jakingo zinuek espezifikatzen? Ba nik uste dot... Pixkat daukanak famili giro hori ero, guk adibidez dauku ba basarrixak batzen gaittuala, ba bedarretia daola o bestia... Ta famili giro hori daon lekutan... Ander Aranburu bat, Jon Etxezarreta bat... Eztakitt zein gehixao esan. Baina jente horrek ehh... **Nukleua baserrixa danian?** Bai nik uste baietz. Asko eraitten dabela” (Mikel, 22. Toka).*

Gazte hauen esaldien muinean, badago ondoren zehatzago aztertuko dugun nolabaiteko benetakotasun bat bilatzearen nahi bat edo. Hau da, hitanoa autentikotasun eta herri nortasun batekin lotzearen ideia. Baina beste elkarrizketatu batzuen arabera, eta behaketen bidez sumatu ahal izan denez, Antzuolan hika –toka- hitz egiten duten gazteen jatorria ezta soilik euskalduna edo baserri girokoa:

“Zeintzuk erabiltzen dabe hika orokorrian antzuolan? Maskulinuak, genero maskulinuak erabiltzen dau, familixa euskaldunetik datorren jentia gehixen bat... Nahiz eta egixa dan adibidez, Mox²⁹ baten aileatzen dala edade bat esango nuke 22 urte... inbentau itten dot eh!

²⁹ Antzuolako gazteak egoten diren taberna.

Hasten dittun danak, gizonezko danak hika. Erdeldun, euskaldun... Hobeto, okerrao eh...
(Ane, 25. Noka trantsizioa).

Aneren arabera beraz, eta behaketetan aztertu ahal izan denaren harira, esan liteke adin bat dagoela non hitanoa mutilen adierazpide bihurtzen den. Hau da, lagun kuadriletan jatorri ezberdinetako pertsonak ibiltzen dira, eta normalean kuadrila hauen komunikazio hizkuntza euskara izaten da; eta adin batetik aurrera hitanoa. Beraz, hitano erabiltzaile gaztea gizona izango da, baina ez nahita ez, euskaldun jatorrikoa edota baserri girokoa.

Amaitzeko, eta datu zehatzik eduki gabe, baina hipotesi gisara formulatuz, esan liteke garai batean klaseak ere zerikusi handia zuela hitanoaren erabileran. Maria Jesusen arabera (68, Hitanorik ez), beraien etxean inork ez zuen hitz egiten hitanoz, ez gurasoek, ezta bere anaiak ere. Kontuan izan behar da, Maria Jesusen familiak, goian aipatutako larrua ontzeko lantegi bat zuela; eta honek, zerikusia izan zezakeen, bere etxean hitanorik ez hitzegiteko garaian:

“Guk etxian be eztu behin be erabili hika (...) Nik gure etxian eztot somau... Nik uste ezetz, ze bestela pixkat ikasiko ginuan... Anaiape eztakixe...”

7.2. HIZKUNTZA MUDANTZA

Jada ikertu edo ezagutu dugu gutxi gora behera Antzuolako hikatzailearen profila nolakoa den. Baina noiz – zein momentu eta adinekin- hasten da jendea berau erabiltzen?

Ikertzaile ezberdinen arabera, haurtzarotik gaztarorako saltoan – eta baita bizitzan ematen diren beste aldaketa batzuen eraginez ere-, hizkuntz-praktiketan aldaketa nabarmenak ematen dira: hizkera aldaketa, hizkuntz berri bat geureganatzea, erregistro aldaketak... Hizkuntz-praktiken aldaketa honi, Joan Pujolar hizkuntzalari katalanak “hizkuntza-mudantza³⁰” edo katalanerazko “mudes lingüistiques” izena eman zion (Pujolar, Gonzalez, Font, & Martinez, 2014: 40). Honela definitzen du Pujolarrek hizkuntza-mudantza:

³⁰ Nahiz eta atal honetan “hizkuntza mudantza” kontzeptu teorikoa erabili, tratamendu edota hizkera aldaketaz hitz egingo dugu zehazki. Hau da, zuek hitanorako saltoaz; ez hizkuntza espezifiko batetik besterakoaz.

“Emprem el concepte de “muda lingüística” per referir-nos tant als canvis com a les permanències lingüístiques que es troben en qualsevol contemplació dinàmica dels usos lingüístics, és a dir, en la comparació entre els usos lingüístics en dos àmbits o camps relacionals o en dos moments diferents” (Ibid.: 45).

Hizkuntza-mudantzen kontzeptuak barnebiltzen duen beste ezaugarri interesgarri bat, hizkuntz edo erregistro aldaketa, bizitzako beste aldaketa batzuekin batera ematen dela plazaratzea da. Hau da, hizkuntza-mudantza honek, hiztunen bizitzan gertatzen diren aldaketen berri ematen digu (Pujolar, Gonzalez, & Martinez, 2010: 67)

Kataluniako ikerlari talde batek – Pujolar tartean-, bertako gazteekin egindako ikerketa baten harira, bost hizkuntz aldaketa une bereizi zituzten: eskola, institutua, unibertsitatea, lan mundua eta maila pribatua - bikote, lagun taldean edota familian izan diren aldaketei egiten die erreferentzia. Bizitza pertsonalean, emandako aldaketei alegia- (Pujolar et al., 2014). Esku artean daukagun ikerlanean, eta Antzuolako hitano hiztunen kasuan, une ezberdinetan eta modu ezberdinetara ematen dira hizkuntz-mudantza hauek; nahiz eta gehien kasuan haurtzarotik gaztarorako une horrek berebiziko garrantzia izan.

Esaterako, badira pertsona batzuk hitanorako mudantzarik egin ez dutela aitortzen dutenak. Hau da, ume umetatik, hitanoz hitz egin izan dutela azpimarratzen dutenak, eta baita berau jaso ere:

*“Noiz hasi zinan hika hizketan? Ume, umetatik. Hizketan hasteko zeetik... **Hori batzutan eh, koxkortutakuan ero hasten da batzutan ez?** Bai baina besteik ez ginuan itten han, eta besteik ez ginuan entzuten... Oin bai, hika in bidala ta eztakit zer ta baakizer... Baina orduan hori zeon bakarrik, etxeonan beste ezer. Entzuten ginunan ta yasta!” (Maria Luisa, 90. Toka-Noka).*

Adin batetik gorako pertsonak ez ezik, soilik toka hitz egiten duen gazte batek ere ondorengo aitortu zuen segurtasun handiz:

*“**Eta hika noiz hasi zinaten itten?** Ni jaiio nitzanian! **Bai?** Bai ni bai, bai...” (Erik, 36. Toka).*

Beraz, zentzu honetan Alberdiren (Alberdi, 1996: 288) hitzak ekar genitzake gogora:

“Haurrekiko jokabidean ez dago batasunik tratamenduaren erabileraz. Askok txikitatik egingo lioke hika bere semeari³¹; beste askok kozkortu artean ez lukete hitanorik erabiliko beren semearekin. Asmoak asmo, errealitatean V³² da gurasoen artean usuario zabalduena hiruzpalau urteko seme txikiarekin aritzeko. Hiketa geroztik omen dator, haurra hazitakoan”.

Nahiz eta, ikusi dugun bezala elkarrizketatutako pertsona batzuek hitanorako mudantzarik ez dutela bizi izan aitortu; Alberdiren esanekin bat datozen bizi esperientziak ere aurkitu ditugu. Honako hau dio Liernik (59, Toka- Noka) hitanoz hitz egiten hasi zen garaia buruz:

“Ni hasi nitzunan 14-15 urtekin, Iñakikikin³³ ta ibiltzen hasi ginanian. Baina aurretik etxian be etxoztanen itten, orduantxe... kozkortu nitzalako ero...” (Lierni, 59. Toka-Noka).

Beraz, eta Pujolarrek bereizitako hizkuntz-praktiken aldaketen sailkapenari erreparatuz, konturatu gintezke orohar institutu garaian ematen dela hitanorako mudantza hori, baita maila pribatuko aldaketa bati loturik ere. Hau da, lagunen aldaketa; batzuekin ibiltzetik, beste batzuekin ibiltzera igaro baitzen Lierni 14-15 urterekin.

Hau horrela, orokorrean hitanorako mudantza eman dadin, adinak badu garrantziarik Antzuolako mutil gazteen artean batez ere. Hau da, esan liteke Lierniren kasua dela orokorrena. Mutil kuadrilak askoz ere zabalagoak eta handiagoak izaten dira neskenak baino, eta normalean hiru jaioturte ezberdinetako mutilak elkarrekin ibiltzen dira. Behaketen arabera, eta baita elkarrizketatutako pertsonen esandakoaren arabera ere, adin ezberdinetakoen elkartzeko horretan egon ohi da mudantza moduko bat. Normalean aisialdi ohiturak ere aldatu egiten dira, eta mutil kuadrilak – neskak ez-, jada behin baino gehiagotan aipatu den Mox tabernan biltzen hasten dira. Esan liteke, “gizontze bat” ematen dela une honetan. Tabernan beste kuadrila eta adin batzuetako pertsonekin ere nahasten baitira, eta toka da bertako hizkuntz-tratamendu ohikoena. Elkarrizketatu batek adibidez, Antzuolan hitanoa zerekin lotzen den galdetuta, honako erantzuna bota zuen, egin “beharrarekin” lotuta:

³¹ Harrigarria da nola Alberdik, nahita edota nahi gabe, baina haurrei buruz hitz egiterakoan, mutil kozkorak soilik dituen buruan.

³² T eta V-k tratamendu hizkuntza tratamendu ezberdinak adierazten dituzte. Latinezko TU eta VOS erregistroetan oinarrituta. T laburdurak, lagunarteko tratamenduari egingo dio erreferentzia. Eta V-k, errespetuzko edota begirunezkoari.

³³ Analisisian zehar aipatzen diren izen guztiak, elkarrizketatuenak barne, asmatutakoak dira.

Nik kuadrilako batzuk entzuten dittut eh... Eztakitt nola definiu ehh baina... igual... In bihera bezela... Como demostratzeko ero... eztakitt... (Mikel, 22. Toka).

Pasarte honek, eta haurtzarotik gaztetasunera ematen den hizkuntza-mudantza honek, argi adierazten digu, gertakari honen atzean hizkuntza-ideologia bat dagoela. Hau da, Bergarara institutura joatean, edota elkarrizketa askotan agertu den “kozkortutakuan” honek, adierazten digute gazteak jada heldutasunaren atarian sentitzen dutela beraien burua. Batez ere mutilen kasuan, eta Antzuolako testuinguruan, gizonen artean prestigioa duen hizkuntza tratamendua hitanoa da. Beraz, neurri batean gizontasunerako saltoa tokaz aritzearekin lotua dago. Honen ondorioz, hizkuntza-mudantza hori garai honetan ematen da. Izan ere, Txerra Rodriguez soziolinguistikak Jakin aldizkarian idatzi zuen bezala:

“Nerabeek ez dute gezurrik esaten (gezur sozialak, behinik behin). Nerabeek beste inork baino hobeto usaintzen dute jendartean nagusi diren joerak, jendartean nagusi diren lurrazpiko bidezidorrak” (Rodríguez, 2016: 141).

Bestalde eta hezkuntz eremura itzuliz, eskola edota Lehen Hezkuntzatik, Institutura igarotzerakoan ematen den beste aldaketa bat eta hizkuntz-praktikekin harreman zuzena daukana, gai politiko eta identitarioekiko jarrera hartze bat litzateke:

“El pas de l’escola primària a l’ensenyament secundari genera testimonis generalitzats de canvis que vénen acompanyats de la construcció de posicionaments en temes polítics i identitaris. És el moment on emergeixen de forma clara les tensions pròpies que s’associen al món juvenil, on el tema de la llengua s’inscriu sobretot en la representació simbòlica de relacions de classe i de gènere, que és alhora indestruable de la multitud de classificacions i tipificacions identitàries que estan en contínua transformació” (Pujolar et al., 2014: 50)

Tokatzaile gazteen artean, instituturako saltoak nahiko modu orokortuan izan du eragina hizkuntz-praktiketan. Honako aipu honetan, argi eta garbi ikusten da, goian aipatutako jarrera hartze baten kontua:

“Noiz hasi zinaten erabiltzen hi? Ba Berga jundakuan ero (Institutura). Bai edade inguru hortan oh, 13 bat urtekin ero (...) Gero bastante baitta, nere erabakixa ero izen zan. Behintzet ingurukuei hika ingo jet” (Mikel, 22. Toka).

Bestetik, Pujolarrek azpimarratzen duen beste aldaketa guneko momentu bat unibertsitaterako sarbidea da. Hau da, unibertsitatean, eskolatik instituturako saltoan

baino aldaketa nabarmenagoa bizi izaten da normalean; askoz ere leku anitzagoetako pertsonak ezagutzen baitira, eta honek, norberaren hizkuntz praktiketan eragina izan lezake (Pujolar et al. 2014: 50).

Honen harira, azpimarragarria da, bi elkarriketatuk unibertsitatea ikusten dutela beraien nokazaletasuna hasi zen gune gisara. Hau da, Jonen (37, Toka-Noka) arabera, unibertsitatean erabaki zuen nokaz ere hitz egiten hastea. Eta Mikelen (22, Toka) arabera, Unibertsitate inguruko neskak dira berari hitanoz hitz egiten dioten neska bakarrak. Hau horrela, hauekin ere nokaz egiten saiatzen da, baina ez du beti lortzen; ez baita nokaz erraz edota naturaltasunez aritzeko gai.

Eta azkenik, maila pribatuan aldaketaren bat izan eta hitanora gerturatu diren pertsonak leudeke, hau da, hizkuntz-mudantza gertakari pertsonalen baten eraginez egin dutenak. Hauek nokarako trantsizioa gauzatu duten bi neska gazteak dira. Biak ala biak euskararen aldeko militantziatik hurbildu ziren nokara, nahiz eta ondoren, feminismotik ere errebindikatu izan duten hitanoa – aurrerago aztertuko dugun bezala-; eta zehazki, noka:

“Lotzen don transisino hau hire bizitzan eukittako beste aldaketan batekin ero ez? Ezzz... Etxaten ezer akordatzen ez? Ahhh oin igual gu asko eoten gala. Igual oin arte zuek etzate eon...” (Maialen, 30. Nokara trantsizioa).

Maialenek beraz, bere trantsizioa edo mudantza, bere ahizpa eta lehengusinarekin gehiago egotearekin lotzen du. Hau da, biek aipatzen dute aurretik ere hitanoz hitz egiten hasteko saiakera batzuk egon zirela, baina hiruak Antzuolan bizi arte – Ane eta beste lehengusinak kanpoan ikasi baitute- ez dutela benetako saltoa eman.

Bestetik eta jada aipatu bezala, euskararen aldeko militantzia bat ere aipatzen dute beraien hizkuntz-mudantzarako gako gisara:

Zek bultzatuta emun honan saltua? Ni bultzatuta ehhhh... Nokan galera bateatik. Ze antzuolako realidadia aztertuta mutilak eta oso harro, hori be bai... hika erabiltze jone, eta emakumiak ez, ez? Eta orduan, hor galera bat jeonan, o hor gu kontziente ginan moentu baten apurketa bat eon zala... Orduan ba nik uste dot, ba bultzatu, bultzatu... ba hutzune horrek ero (...) Igual zonan ba gehixao ba hori, kontzientzia linguistiko bateatik. Hau galdu in bion, ta ba bueno... o kulturala inkluso ez? Ba ez, ba ezin don galdu, saiatu in bigaittu ta hola... Ta gero ya, ta nik uste, seixo hartzian kontua, bai dala eh... ikuspegi feminista batetik (Ane, 25. Noka trantsizioa).

Hau horrela eta atal honekin amaitzeko, interesgarria da aipatzea hizkuntza alternantziaren ideia. Hau da, Jaime Altunak (2016: 106) Lezo eta Pasaiako nerabeen hizkuntz praktiken inguruan egindako lanean plazaratzen duen bezala, euskara eta gaztelania nerabe hauen egunerokotasunean txertatuta daude, biak ala biak ageri dira; euskara eta gaztelania continuum batean daude beraien hizkuntz-praktiketan.

Antzuolan hitanoa eta zukarekin ere berdina gertatzen da. Hau da, hitanoz mintzatzen diren pertsonak ez dira beti hitanoz mintzatzen, ezta beti zuka ere. Bi hizkuntz-tratamenduak elkarrekintzan dabilta, mugimendu konstante batean. Lan honetan ageri diren elkarrizketetako aipuetan ikus liteke hori argi eta garbi. Pertsona batzuekin elkarrizketa zukaz egin zen, beste batzuekin hikaz eta hirugarren batzuekin alternantzia batekin jokatu. Bestalde, behaketetan ere ikusi ahal izan da, nola zuka eta hitanoa hizketaldietan nahasten diren; batzuetan hitanoak pixu gehiago hartuz, eta besteetan berriz, zukak.

7.3. HIZKUNTZ-PRAKTIKAK: ZEIN EGOERETAN EDO ZER PRAKTIKEKIN LOTUTA ERABILTZEN DA HITANOA?

Antzuolako hizkuntz errealitatea aztertzen ari garen puntu honetan, jada Antzuolako hikatzaillearen erradiografia antzeko bat egin dugu. Herritarrak hitanorako saltoa noiz, eta zein modutan egiten duten ere ezagutu dugu. Baina zein egoeretan egiten dute Antzuolako hikatzailleek hitanoz?

Galdera hau erantzuteko asmoz beraz, izenburu gisara esleitutako galdera bera, egin izan dut elkarrizketa ezberdinetan ere; eta aitor nezake elkarrizketatuei asko kostatzea hitanoa eta zuka erabiltzen dituzten une, egoera edota praktika ezberdinak izendatzea. Baita, praktika horietan bata edo bestea aukeratzerakoan – hika edo zuka- zeren arabera hautatzen duten azaltzea ere. Nekezena adin batetik gorako pertsonekin izan da galdera honi erantzuten bat ematea. Horren adibide da Pruentxiri (94. Toka-Noka) eginiko elkarrizketa. Elkarrizketa hau Aretxabaletan egin zen, bera bertan bizi baita egoitza batean. Elkarrizketan ni eta bere iloba bat geunden; Pruentxiz gain. Hizketaldian geundela, nik honako galdera hau egin nion Pruentxiri, ea noiz erabiltzen zuen berak hitanoa, zein egoerei edo praktikari lotuta. Berak esan zidan berak beti erabiltzen zuela, gehienetan. Baina berehala iloba sartu zen, berari ez ziola hi egiten esanaz. Honela erantzun zion izebak:

“Ah ez? Zu itten doztat eh?”

Esaldi honek garbi adierazten du, pertsona batzuek zer nolako barneratuta daukaten hitanoa. Modu “natural” batean ateratzen zaie. Elkarrizketatu askok, “kontzientziarik ezaz” hitz egin izan dute galdera honi erantzuterakoan:

“Eske ni askotan ez naiz kontziente zela berriketan nabilen... Ezin dotzut esan...” (Erik, 33. Toka).

Hau horrela, beste elkarrizketatu batzuen erantzuna galdera honen aurrean, beti egiten dutela esatea izan da. Baina ondoren, praktikaz praktika eta egoeraz egoera galderak egiten joanda, azter genezake pertsona gehienek zuka eta hika egoera ezberdinetarako erabiltzen dituztela.

Horren bestez, hitanoa gehien bat erabiltzen den gune edo espazio gisara, hiru eszenatoki ageri zaizkigu: Aisia, Lana eta Eskola.

Aisialdiari loturik, gehienbat tabernako giroa ageri zaigu elkarrizketetan. Hau da, Antzuolako hitano hitzunik tabernan hitanoz asko hitz egiten dutela azpimarratzen dute. Behaketa edota ibilbide ezberdinak ere egin dira tabernaz taberna, eta hitanoa entzun izan da; sarritan gainera. Gizonek beraien artean, gehienetan hitanoari heltzen diote hitz egiterako unean. Emakumeren bat hurbiltzean, sarri zukara pasa arren. Hala eta guztiz ere, noka entzun ahal izan da Antzuolako tabernetan. Emakume nagusien – 60 urtetik gora- ahotan entzun izan da gehienbat, baina baita gizonezkoei ere.

Tabernetan, edota kale erabilerari loturik, Antzuolan maiz entzun izan dira tokaz elkarrizketak mutil edo gizonen artean. Baina sarritan, elkarrizketa hauek motzak edota azkarrak izan ohi dira. Honela dio Mikelek (22. Toka) berak hitanoa Antzuolan non entzuten duen galdeginda:

“Eta gero, indako esaldixak eta Moxea ta juten naizenian... Gehixao daola holako... O sea, erantzun azkarrak mouan... Bo hi, ze eztaize.. Ta hor emuten dala”.

Maripik (54. Hitanorik ez) ere euskararen azkartasunarekin lotzen du hitanoa, bizitasunarekin:

“Baina gehixen bat mutilen artian entzun izen dot, eta hola euskera bizixa pentsatzen jat!”

Beraz, hitanoa nolabaiteko azkartasun, bizitasun edota mugimendu batekin lotzen da Antzuolan. Tabernetan egindako behaketa edota ibilbide ezberdinetan, konturatu naiz gizon eta emakumeen, edota zehazkiago esanda neska gazte eta mutil gazteen gorputz dinamika edo mugimenduak ez direla berdinak. Mutil/Gizonak askoz ere gehiago mugitzen baitira, emakume/neskak baino.

Hori horrela, Bourdieuren hitzetan gorputzaren erabilerak eta hizkuntzarenak harreman estua daukate:

“El lenguaje es una técnica corporal y la competencia propiamente lingüística, y muy especialmente la fonológica, es una dimensión de la hexis corporal donde se expresan toda la relación del mundo social y toda la relación socialmente construida con el mundo” (Bourdieu, 1985: 59-60).

Gorputz espresio ezberdindu honek, eragina izan lezake hitanoaren erabileran, edota honen erabilera ezean. Hitanoak berak, azkartasuna edota bizitasuna transmititzen baitu. Goian aipatu bezala, eta Mikelen (22. Toka) aipua gogoraturuz: *“O sea, erantzun azkarrak mouan... Bo hi, ze eztaize... Ta hor emuten dala. Baina bestela... o sea eztot uste ehh... Hizketaldi ganoazko, ganoazko hizketaldi bat emuten danik hika. Eztot uste...”*. Hau da, batez ere mutil gazteen artean komunikazio arrunta esaldi eta esamolde motzez osatuta dago: *Bo hi! Beixuixok; Bo laidak bakian; Tontua emuten dok...* Gainera, eta adibide hauek azaltzen duten bezala sarritan hitanoa –gazteen artean-agresibitatea edota txantxa giroa sortzeko erabili ohi da.

Honen harira ondorengoa adierazten du Jaime Altunak (2016: 123), Lezo eta Pasaiako neska eta mutilen hizkuntza praktiken inguruan. Mutilek gaztelaniara jotzearen arrazoi gisara ikusten baititu gorputz dinamika ezberdinak:

“Ezarrirako genero rolaren arabera bakoitzari hitz egiteko modu bat dagokio, eta ikusten ari garen bezala, mutilen solasaldietan esaldi labur eta amaitu gabeak erabiltzen dituzte (etenak, isiluneak...), mugimenduan dagoen gorputzak garrantzia du komunikazioan, etenak, isiluneak, komunikazio monosilabikoa... Elkarrizketa motzez edo esamolde laburrez osatutako hizkera berezi honek badu eragina hizkuntza aukeraketan. Txantxa giroan, haserretzerakoan edo elkar zirikatzerakoan euskaraz egitea kosta egiten zaie, erraz pasatzen dira gaztelaniara”.

Beraz, hipotesi gisara esan liteke tokak mutilei txantxa giro edota burla giro hori eskaintzen diela. Pasaia eta Lezoko mutil gazteei gaztelaniak eskaintzen dien baliabide berbera alegia.

Bestalde, hitanoak presentzia handia daukan beste eremu bat lan tokia da. Hiru taldetan bereiz litezke hitanoa gehien entzuten den lan eremuak: Baserriari lotutako lana, euskararen inguruko lana eta lantegi industrialak.

Baserriari lotutako lanak, behin baino gehiagotan ageri izan dira elkarrizketetan, hitano asko egin eta entzuten den gunen gisara. Gainera hiru belaunaldi ezberdinetako pertsonen ahotan entzun izan dira, baserriko lanak eta hitanoa uztartu izan dituzten erantzunak:

“Ze egoeretan entzuten dozu zuk zure inguruan hika gehixen? Gehixen lanea sukontratauta han goixan... Jajajajaja (Idalatorre baserriari buruz ari da, gaur egun barazki ekologikoak saltzetik bizi baitira). Gehixen eta errezen orduan” (Mikel, 22. Toka).

Zentzu honetan aitortzen du Maripik (52. Hitanorik ez) ere, nahiz eta bere etxean sekula ez entzun hitanorik, bere aitari noiz edo noiz entzun izan diola *“beste gizon batzukin, auzolanian da ziharduanian... Basarri bueltan”*.

Baina nahiz eta badirudien baserri bueltako lan denetan hitanoak presentzia handia zuela, hau ez da horrela. Honela dio Liernik (59. Toka-Noka) merkatura etxeko barazkiak saltzera joatean, zituen hizkuntza ohituren inguruan:

“Baina gero, lanea juten nintzanian, hola ba merkaura ero, hola ba juten nitzanian ba euskeraz. Baina hika ez, jendiakin enajonan hi ingo... Erostea etortzen zienekin.”

Esaldi honi erreparatuz, konturatu gintezke baserriko lanen inguruan beti ez duela presentzia berbera hitanoak. Hau da, etxeko produktuak merkaturatu saltzea, baserrian egin behar den beste lanetako bat da. Gainera lan hau, historikoki nahiko lan feminizatua izan da, baserrietako emakumeek joan behar izaten baitzuten merkatuetara produktu ezberdinak saltzera. Lan honen hasiera xamarrean, ikusi dugu nola, Robin Lakoff hizkuntzalari Estatu Batuarrek kortesiazko aldagaiaren inguruan azterketa sakon bat egin zuen. Honela zioen ikerlariak:

“El lenguaje de la mujer se distingue del lenguaje del hombre en que las mujeres son más corteses, que es precisamente lo que debe ser, porque la mujer es la depositaria de

la moralidad y del civismo; y cuando estamos entre mujeres hablamos, como compensación, de manera especialmente cortés, puliendo la brusquedad del bastardo lenguaje masculino: sin jerga, sin blasfemias, sin insinuaciones fuera de tono” (Lakoff, 1981: 84).

Hau da, autore honen arabera, emakumeek kortesiazko jarrera bat mantendu behar dute. Lierniren esaldian ere, nabari genezake nolabaiteko kortesiazko jarrera bat; erostera datozenekin hitanoz ez hitz egitearena. Ez dago daturik esateko ekintza honetan generoak zer nolako pisua daukan; baina nago gizonetzko batek ez lukeela horren beste zainduko hizkuntza egoera berean. Adibidez, Maria Luisak (90. Toka-Noka) elkarrizketan kontatzen zuen beraien aita ganaduekin eta ibiltzen zela, “tratante” gisara. Honen arabera, aitak denei ematen zien hi: *“Besteik etxekinan da!”*. Hau horrela, eta baserriari lotutako ekintza beraren baitan, hau da, baserriko produkturen bat etxetik kanpoko norbaiti saltzea, gizon eta emakumeen arteko hizkuntz-praktika ezberdina suma genezake. Hitanoak berarekin dakartzan kortesiazko arauak, ez baitute pisu berbera emakumezko edota gizonetzkoentzako.

Bestetik, eta jada aipatu dugun bezala, hitanoa sarri entzuten den beste lan eremu bat, euskalgintzari lotutako lanak lirateke. Hau da, elkarrizketatutako hiru pertsonak lan egiten dute euskalgintzari loturik. Eta hauen hitzetan, lanean sarri erabili ohi dute hitanoa. Hasiera batean militantzia batetik, eta ondoren jada era arruntago batean, nolabaiteko “naturaltasun” batekin.

Eta enpleguarekin bukatzeko, hitanoa sarri erabili eta entzuten den beste gune bat enpresa industrialena litzateke. Antzuolako enpresa industrialetan lan egin duten edota lan egiten duten pertsonen arabera, herriko fabrikak oso hikatzaileak –tokatzaileak- dira. Maialenek (30. Nokara trantsizioa) adibidez, honela erantzuten dio ea erdal-familietatik datozenek hitanoz dakiten galderari:

“Adibidez, Goizperren o lan itten baldin bajone, ba jakingo jone fijo. Ze goizperren dabitzenak... Ze nere lankide baten mutila, mondrauekua, goizperren jabin, ta harepe entenditzen jon ya dana. Naturalki mutilei hola ertetzen jakuenez...”

Zentzu honetan gogora ekar genezake Joan Pujoalarek (2014: 58) dioena: *“La gran mayoría dels individus accedeixen a les feines amb la disposició d’adaptar-se a la manera que tingui cada entorn d’utilitzar les llengües”*. Honen arabera, eta Maialenen esaldia ere gogora ekarriz, esan genezake, Antzuolako industrian - sektore guztiz

maskulinizatua- arruntena edota ohikoena gizonen beraien artean toka hitz egitea litzatekela.

Era berean, eta esan liteke Pujolarrek komentatzen duen egokitzapen disposizio honen ondorioz, lanean sarri adinaren aldagaiarekin lotutako hainbat arau apurtu egiten dira. Hau da, elkarrizketa ezberdinetan konprobatu ahal izan da, lan industrialen baitan bederen, gazteek zaharragoei tokaz egiten dietela. Gazteek beraien estatus berdinean ikusten dituzten zaharragoei, izan erreleboko kideak, edota tailerreko kidea... toka hitz egiten diete. Esan izan den bezala, gazte asko eta askok Antzuolan – eta ezta inguruko herrietan ere- hitanoa ez dute etxean jaso. Hau da, Pujolarrek dioen bezala gazteak lan mundura bertako hizkuntz-praktiketan atxikitzeke asmoz sartzen dira. Hori horrela, baliteke gazte hauek hitanoaren arau edota aldagai “tradizionalak” ez edukitzea barneratuta. Horregatik, nahiz eta beraien makina kidea 20 edo 30 urte zaharragoa izan toka ematen diete; normalizatuena dagoen hizkuntza-tratamentua berau delako.

Eta azkenik, hitano gehien entzuten edota erabiltzen den eremua eskola litzateke. Eskola eremuan, ikaskideekin hitz egiteko erabili ohi da hitanoa orokorrean. Hau da, irakasleekin hitz egiteko adibidez, elkarrizketatutako pertsonen adierazi dute beti zuka erabili izan ohi dutela.

Harrigarria da esparru honetan zein nolako aldea dagoen gizon eta emakumeen hitanoaren erabileran. Elkarrizketatutako emakume guztiek adierazi dute eskolan hitanorik ez dutela sekula hitz egin. Eskolak gazteleraz jasotako emakumeek adierazi dute, gehienetan beraiek lagunen artean, edo atsedendietan ere gazteleraz aritzen zirela. Eskolak euskaraz jasotako gazteek aldiz, zuka hitz egin izan dute beti eskolan. Hau horrela, emakume zaharrenek zigorrak dituzte gogoan, euskaraz aritzeagatik eskolako andereinoek jartzen zizkieten zigorrak:

“Eta komentau dozu, lagunen artian eskolan juten zinaten neskatilen artian, batzutan euskeraz berba itte zinuela? Bai, baina harrapau ezkerio... medallia ipintzen zozkuen. Medallia ze zan? Ba medalla haundi bat, lazo haundi batekin lepotik behera ipini txintxiliz. Burla itteko ero? Jakina! Ta gero zuk pasau bizontzan beste bati? Baina harrapau in biher. Nik ez neban sekula euki ehh... Jajajajajaja! Ni ixilik eoten nitzan! Jajajaja! Ta zeintzuk eukitzen zebe sarri? Bueno bazien hor beste saliente batzuk eta deskuidau itten zien da... Ta gero harei ipintzen jotxanen. Baina nik ez neban euki sekula” (Maria Luisa, 90. Toka-Noka).

Bitxia da zer-nolako adjektiboarekin deskribatzen dituen Maria Luisak euskaraz hitz egin eta zigortzen zituzten neskatilak: *“Beste saliente batzuk”*. Hau da, normaren aurka egin eta zigortzen zituztenak, “saliente” xamarrak ziren; isilik egoten ez zekitenak edo.

Gizonen kasua ordea, guztiz bestelakoa da. Gizon guztiek adierazi izan dute elkarrizketetan, eskolan hitanoz hitz egin izan dutela. Gaztelaniaz ikasitako gizonek, atsedendietan beraiek hitanoz aritzen zirela jolasean aitortu izan dute. Zentzu honetan, Mikel (22. Toka) haratago doa:

“Eskolan beti emun izen du ba batua, batua, batua... Ta neretzako hika berba ittia da, ba en plan... kontra ittia bezela ez?”.

Honekin lotuta, gogora ekarri nahiko nuke marko teorikoan jada aipatu den ideia bat. Jone Miren Hernández eta Jaime Altuna ikerlariak, azken aldian generoa eta euskara uztartuz hausnarketa interesgarriak egin izan dituzte. Hau horrela, hezkuntza sistemaren baitako arauak errespetatzean adibidez, kokatzen dute euskararen erabileraren feminizazioaren kausetako bat. Jakinekoa da, gaur egun hezkuntza sistemaren baitan – EAEn- euskaraz hitz egitea dela araua. Generoari erreparatuz gero, arau horren defentsan edota horren arbuioan izango genuke euskararen erabileraren feminizazioaren zergatietako bat. Horrela, neskek arau hori defendatu eta betetzen duten bitartean, mutilek eta mutil gisa jokatzuz – maskulinitatea sendotuz-, arau apurtuko dute. Beraien genero identitatea arau apurketa horretan indartuz (Hernández & Altuna, 2017: 139).

Idea hau biziki interesgarria suertatu zait. Lan honetarako egin diren elkarrizketetan argi eta garbi ikusi da, zein alde nabarmena dagoen emakume eta gizonezkoen hitanoaren erabileran, hezkuntza sistemaren baitan. Hau da, esan liteke emakumeek hezkuntza sisteman indarrean dagoen araua bete izan dutela, hezkuntzaren erabilerari dagokionean bederen. Gaztelania hezkuntza sistemako hezkuntza normatiboa izan denean, emakumeek arau hori errespetatzeko joera izan dute; nahiz eta, arau apurketa beti egon, Maria Luisaren elkarrizketa zatian ageri den bezala. Baina hitanoa ez da sekula araua izan eskolan, hala ere, elkarrizketatutako gizon guztiek adierazi dute, eskolan hitanoa erabili izan dutela. Are gehiago, kasu batean eta aztertu dugun gisara, “aurka” egiteko tresna gisa erabiliz.

Beraz, eta euskararen erabilerarekin gertatzen den bezala, genero rolek eragin nabarmena izango dute arauak errespetatu edota hauek errefusatzeko unean. Honela neskek garai ezberdinetako hizkuntza arauak betetzen dituzten bitartean – izan gaztelania, edota zuka-; mutilek, eta mutil gisa jokatzuz, arau hori puskatu egingo dute.

Laburbilduz, eta atal honetan ikusi eta aztertu dugun bezala, generoak hitanoarekin lotutako hizkuntza-praktika ezberdinak gurutzatu edota zeharkatzen ditu. Bestetik, orain artean erabilerari buruz orokorrean aritu izan gara; erabilera horren zuzentasuna edota egokitasuna aipatu gabe. Hala nola, noiz eta nortzuek erabiltzen duten hitanoa ikertu dugu, baina nola erabiltzen da berau?

7.3.1. NOLA ERABILTZEN DA? HITANOAREN ERABILERA DESEGOKIA

Goiko atalean nortzuk erabiltzen duten hitanoa ikusi dugu, baina honako atal honetan hitanoaren aldaerei erreparatuko diegu; zehazkiago esanda, hitanoaren aldaera edota erabilpen desegokiak aztertzea izango da atal honen helburua. Nola erabiltzen da Antzuolan hitanoa?

“Gehixenetan gaizki, inungo, hizkuntziaz inungo baloreik emuteke... Zela hizkuntziaz inungo baloreik emuteke? Hizkuntzian zuzentasunai, gramatikiaz... O sea inbentatzen aditzak mokoluen³⁴ mouan... baina hika itte jone” (Ane, 25. Noka trantsizioa).

Badirudi, eta batez ere gazteen artean, hitanoaren erabilera ez dela oso egokia. Egokitasuna apurtzen duen oker ohikoena, jada lehen aipatu den hiperhiketa litzateke.

“...hiperhiketa hori oso antzuolakua dana, jaokela eta horrek... Jajajajaja! Baina hemen igual, gehixao entzuten da oso aditz eh indartsuak die holako, jaokela ta juatekela ta... j eta k asko sartzen da” (Juan Martin Elexpurua, 67. Hizkuntzalaria).

Elkarrizketatu ezberdinen arabera, batez ere, toka-noka hitz egiten duten adin batetik gorako pertsonen hitzetan, hiperhiketaren fenomeno hau berria da. Hau da, beraien garaian ez zen hitanoa horren oker, edo akats honekin erabiltzen. Oso arriskutsua litzateke esatea mutilak soilik hitz egiten hasi diren momentuan eman dela aldaketa hau. Eta sortu diren aditz berri eta desegoki horiek askoz ere indar eta kontudentzia gehiago erakusten dutela, egoki erabilitako aditzak baino. Hipotesi gisara, suma genezake agian maskulinitatearen afirmazio gisako bat izan litekeela “jiro”

³⁴ Antzuolarrek Bergarrei deitzen dioten modua; gutxiespeneko hitza.

linguistiko hau. Baina berriz diot, hipotesi soil bat dela, eta oraindik badagoela zer aztertua kontu honen inguruan.

Bestalde, jada behin eta berriz azpimarratu dugun bezala Antzuolan eremu publikoa tokaren monopolioa dela esan liteke. Baina gizonen artean ez ezik, talde mixtoetan ere sarri entzun ahal izan dira gizonezkoak toka berriketan; emakumeak taldeko kide izango ez balira bezala. Tokaren presentzia honekin, kontraesan andana sortzen dira. Adibide bat emate aldera, emakumea ikusgarritasun gabe gelditzen da esaterako. Bestetik, gazteleraz “todos y todas” bezalako adierak erabiltzen ditugun bitartean esaldiak osatzeko, Antzuolan alderantzizkoa gertatzen ari da. Hau da, gaizki eta guztiz desegoki erabilitako “todos” bat gailentzen baita askotan talde mixtoetan.

Beste erabilera desegoki bat, eta lehen ikusi ditugun hitanoaren ikerketekin konparatuz, Antzuolan oso gutxi gertatzen den fenomeno, mutilek neskei toka hitz egitearena da. Behaketetan, tabernetan zehazki, entzun izan da noizbehinka gizonezko bat emakumezko bati toka hizketan. Baina beste herri batzuetan ez bezala, norbait hori ez da gaztea; hau da, 50 urtetik gorakoa izan ohi da. Gizon edo mutil gazteek emakume orori zuka egiten baitiote.

8. NOKAREN GALERAREN INGURUKO DISKURTSOAK

Hitanoaren eta zehazki noketaren galeraren inguruan hainbat diskurtso edota arrazonamendu ezberdin bildu ahal izan dira elkarrizketetan zehar. Elkarrizketa guztiak behin aztertu eta analizatuta, elkarrizketatuen diskurtso hauek, hiru arrazoi nagusiren baitan bildu ahal izan dira: transmisioaren etena, hemen transmisio informala eta formala aztertuko direlarik; euskararen galera bera; eta eremu publiko eta pribatuaren arteko banaketa.

8.1. TRANSMISIOAREN ETENA

Urte luzez, eta neurri batean euskal nazionalismo goiztiarrak emakumeari emandako zereginagatik, transmisioa izan da honek euskararen munduan, eta oro har euskal politikagintzan izan duen gotorlekua.

Aipatu beharrean gaude, hizkuntza transmisioaren gaineko azterketetan kontzeptuaren bi maila edo bide bereizi izan direla: transmisio informala, familia bidezkoa, eta transmisio formala, irakaskuntza bidezkoa (Zinkunegi, 1995: 76). Horren bestez, atal honetan eta elkarrizketetako informazioa sailkatze aldera, bi puntu bereizi dira. Batetik eta lehen puntuan, transmisio informalaren gaineko diskurtsoak jorratuko dira; eta honen etenak zer nolako eragina izan duen noketaren galeran. Eta bigarren puntu batean transmisio formalaren gaineko diskurtsoak analizatuko dira. Hau da, eskoletan hitanoa ez irakasteak izan duen eraginaren azterketa bat egingo da. Azpimarragarria da, askoz ere elkarrizketa gehiagotan agertu dela transmisio informalaren etenaren inguruko diskurtsoa, transmisio formalaren gaineko inongo erreferentzia baino.

8.1.1. TRANSMISIO INFORMALA

Esan bezala, transmisio informalarri eta honen etenari lotutako diskurtsoak elkarrizketa askotan jo izan dira noketaren galeraren erantzuletzat. Juan Martin Elexpuruk esaterako, eta marko teorikoaren baitan aipatua izan den, 60. hamarkadako euskararen galera orokortu batekin lotuz, noketaren galera transmisio informal honen baitan kokatzen du. Nahiz eta fenomeno hau azaltzeko arrazoi garbirik ez aurkitu:

“Etorri zanian ya euskararen galerako prozesu hori eta abar. Ba lehenengo bueno ba familixa barruan ez? Orduan ehh bueno aittak igual itten jotsanan semiai hika baina alabiai zuka, eta amape bai. Eta hori izan da, ba bueno... Zergatik dan hori? Hala izen dan... Ba ezta errez-erreza be esplikatzen. Hori igual eztakitt faktore psikologiko, soziologiko, matxismua be sartuta dao duda barik... Holako koktel bat dago ez? Neri pixkat zaila itte jatena berbalizatzen”.

Transmisio informalean emandako eten hori, noketaren galeraren zio gisara ikusten dute elkarrizketatu ezberdinek; belaunaldi ezberdinetako pertsonak gainera. Esaterako, adinez alde nabarmena duten bi elkarrizketatuk – batek 33 eta besteak 67- adierazten dute etxeetan emakumeei noka hitz egiterakoan eten bat egon zela. Beraien hitzetan, heuri aitak tokaz hitz egin izan die beti, baina ez aitak eta ezta amak ere, beraien arrebei ez diote inoiz noka eman. Etxean hitanoa jaso duten emakumeak elkarrizketatu diren arren, esan liteke etxe batzuetan bederen eten hori egitate erreal bat izan zela/dela. Garrantzitsua da bestalde, eten honen nolabaiteko “erruduntasuna” ez dela diskurtsoetan behinik behin emakumeen gain jartzen. Oso argi adierazi dute elkarrizketatutako

guztiek, gurasoek – aitak zein amak- ez dietela emakumeei nokaz hitz egin. Amaren gain, ezta beraz transmisioaren zama erori.

Bestalde, beste elkarrizketatu baten arabera, gaur egungo bizi eredia eta honen erritmoak ere lagunduko luke hitanoaren transmisio informal honen etenean:

“Eta oro har osasuntsu daola esango zinue? Jo ba etxonat uste. Etxonat uste. Keba. Asko joiarren erabileria lotuta, transmisinuakin... Ta ya transmititzeko be eon be ez gaittun itten, hori be beste bat don. Eske transmisinua gu gurasuekin gehixao eoten ginuztan, egunero... Goizian, eguardixan ta gabian” (Lierni, 59. Toka-Noka).

Baina badirudi eta elkarrizketatu gehien arabera, etxeak – eta kasu batzuetan ohiturak- noketaren galeran presentzia handia dutela. Hau da, noketa etxean ez den beste egoera batean ezin izango da ikasi elkarrizketatu gehien arabera:

“Ez ba gero karo, ba hori emakumiak gutxiao itten dabenez, ba transmitiu be gutxiao itten don, orduan... Ta emakumiena etxakine – mutilek-, ez bon etxian entzuten” (Maialen, 30. Noka trantsizioa).

Hala ere, puntu honetan komenigarria da Paula Kasares hizkuntzalariak transmisio kontzeptuaren inguruan egiten duen gogoeta bat berreskuratzea: *“kontzeptuak bere baitan duen ideia goitik behetikoa eta noranzko bakarrekoa, gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik haurrengana doana, ez da egun euskal hiztun berriak hazten diren testuinguru guztiak biltzeko gai”* (Kasares, 2014: 27). Tokaren kasuan adibidez, aurreko puntuetan ikusi dugu pertsona batzuek hizkuntza-mudantza hori lantokietan egiten dutela. Hau da, tokaren kasuan badirudi, ez dela derrigorra toka hiztun izateko transmisio informal baten bidez jasotzea berau. Esan liteke, pertsonaren gogo-nahiak hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko, eta familiarik kanpoko harremanek ere zerikusia izango dute hizkuntza hautuetan. Kasaresen (2012: 42) arabera beraz, transmisioak ez du zertan era bertikalean izan beharrik. Modu horizontalean, hau da, berdin artean ere izango da transmisio une edota ekintzarik; transmisioa belaunaldien artean eta adinkideen artean emango den fenomeno izango da. Autore honek oro har, orain dela gutxi arte transmisioaren inguruan garatutako nozioak ezbaian jarri ditu. Hala nola, eta bertikaltasun eta horizontaltasunaz gain, transmisio formal eta informal kontzeptuen gaineko kritika bat ere burutzen du.

Gaur egun, eta behatutakoaren arabera noka ez dago kasik kalean presente. Baina elkarrizketatu batek honako adibidea jartzen du noka ikasi ez zuen beraien adineko gizon baten inguruan:

“Ze adibidez Xabier gurekin ibili izen don kuadrilan bizi guztian, baina etxon itten noka. Neri be toka itten joztan. Ze karo, harek etxian etxonan entzungo, bi anae dittun da!” (Lierni, 59. Toka-Noka).

Beraz, adibide honekin ikus genezake, noka eremu publikoan presente zegoen garaietan ere, etxean jasotzen edo entzuten ez zuten gizonak ez zutela berau egiten. Nahiz eta, gaur egun eta fabriketako adibidearekin argi eta garbi ikusten dugun, tokarekin berdinen arteko transmisio horizontal baten bidez ikasten dutela berau gizon edo mutil asko eta askok. Honen harira, Jone Miren Hernándezek, gazteen euskararen erabilerari buruz planteatzen duena etorri zait gogora: “Gazteek zergatik ez duten euskaraz egiten” galdetzea baino, galdera hau egin beharko genukeela: “Zer eskaintzen die euskarak gure gazteei?” (Hernández, 2011: 603). Galdera hauek, subjektu eta objektuak aldatuta egin genitzake gizonak eta noketaren erabileraren inguruan. Hau da, “zer eskaintzen die nokak Antzuolako gizoni?”.

Hizkuntza mudantzaren atalean, aipatu da haurtzarotik gaztarorako saltoan, mutil batzuek hitanoa “egin behar” batekin lotzen dutela. Beraien identitate maskulinoa garatzen laguntzen diela esan liteke hipotesi gisara. Hori horrela, eta oraindik ere kontu hau ikertzeko dagoela azpimarratuz, badirudi nokak ez diela gizoni tokak bezain beste beraien identitate maskulinoa garantzen laguntzen. Esan nahi dut, balitekeela gizonak noketa ez ikasi eta erabiltzearen zergatietako bat, identitatearen eratzearekin lotuta egotea. Beti ere, komeni da argi uztea hipotesi bat besterik ez dela ideia hau; baina polita litzateke honen inguruan analisi edota ikerketa sakonago bat egitea.

Laburbilduz, eta puntu honetan ikusi dugun gisara, transmisio informalarik garrantzirik handia jartzen diete elkarrizketatuek, batez ere, noketaren galeraren inguruko argudioak bilatzerakoan. Baina jada ikusi dugu, toketaren biziraupenerako transmisio informalarik garrantzirik eduki duen arren, transmisio horizontal baten bidez ere gaur egun Antzuolako mutilek ikasten dutela berau. Baina zer diozkue transmisio formalaren gainean?

8.1.2. TRANSMISIO FORMALA

Transmisio informalaren argudioa ez bezala, transmisio formalaren kontua ez da elkarriketatu askoren ahoetan entzun ahal izan. Alde batetik nahiko arrunta da gertakari hau, hitanoa beti ere informaltasun batekin lotu izan baitute elkarriketatuek. Are gehiago, Juan Martin Elexpuru hizkuntzalariak adibidez, bete betean kale-erabilera batekin lotzen du. Beti ere, esanaz lanean, edota telefonoz ere erabiltzen duela berak hitanoa.

Hau horrela, transmisio formala errekupeazio giltza gisa ageri da elkarriketetan. Gaur egungo egoerari buelta emateko tresna gisara:

“Baina oin adibidez ba ezta kint nik uste dot eskolan hika landuko balitz lortuko litzakiela pixkat bizitzia. Bizitza emutia. Baina eskolan igual. Karo ze eskolatik kanpo ikastaruak antolau ezkeru mmmm... Preminia sortzeko zeoze.... Eztakint ba nik. Jentia k oingo gaziak eta be, jentia k hitanua ikasteko goua pizteko ze in leikien. Eskolan sartu nire ustez”
(Maripi, 54. Hitanorik ez).

Baina horretaz gain, Mikel (22, Toka) haratago doa. Honen arabera, noketaren galerak zerikusi nabarmena izango luke, eskolan euskarak daukan trataerarekin, eta honekin lotuta ikasten diren gauzekin:

“Batuak hartu dau dana, batua, batua, batua... Eta antzuolako eskolan batuan itten. Esaten dozu, batuan in bida, baina batuan ikasteko astixa eukiko zu (...) Hikak bertakuak euki biko luke presentzia eskolan. O sea ez gauza exotiko mouan. O sea ez Ipintza³⁵ jun naiz eta euskeran emuten dot xiberuko hika. O sea gauza exotiko...Beiratu xiberun ze euskera itten daben. O sea... Bergan eta antzuolan badauzku... o sea ez? Juten ga beti kanpoa, kanpokua... Eta bertakua galdu in da...”

Beraz, argi eta garbi gelditzen da pertsona batzuen arabera hitanoak eta zehazki noketak hezkuntza arautuaren baitan nolabaiteko presentzia bat izan beharko lukeela. Gaur egun daukana baino handiagoa bederen. Honetaz gain, Antzuolan elkarriketatutako pertsonak badirudi askoz ere garrantzi nabarmenagoa ematen dietela transmisio informalean egon den etenari, transmisio formalean hitanoak presentziarik ez izatea baino.

³⁵ Bergarako Institutu publikoa.

8.2. EUSKARAREN GALERA: EMAKUMEAK “ERRUDUN”

Euskararen galeraren gaia, eta orain dela hamarkada batzuk honen aurrean, emakumeei atxiki zitzaien erruduntasuna, marko teorikoan jorratua izan da jada; baina atal honetan ere aipatu beharrean aurkitzen gara. Transmisioaren kontua eta erruduntasunarena, emakumeak eta euskara lotzeko bi bide bakarrak izan dira urte luzeetan. Hau da, urte luzez eta hizkuntza eta emakumeak lotuz, bi kontzeptu hauen inguruan aritu izan dira ikerketa eta ikertzaile gehientsuenak.

Jakina da, 60.hamarkadan emakumeek eta batez ere nekazal eremu eta herri txikietakoek, neurri batean edo bestean euskarari uko egin ziotela (Amonarriz, 1995: 89). Edota hau erabiltzeari neurri batean behintzat, utzi ziotela. Beti ere, orokortu gabe; nekazal eremuetako edota herri txikietako emakume guztiek ez baitzieten utzi euskara erabiltzeari.

Ikerketa honen baitan ere, arrazoi honek pisu nabarmena izan du noketaren galerari buruzko erantzunetan. Adibidez, Elexpuruk hitanoaren beraren galera, euskararen galerarik gabe ezin dela ulertu azpimarratzen du; nahiz eta ondoren aztertuko ditugun beste aldagai batzuk ere zerikusi nabarmena izan zezaketela aitortu:

“Ba hori eh, ya nik uste jonat euskeraren galerarekin lotuta. Kontuan euki... O sea da... Beste faktore batzupe hika galtzeko eon leizke ba eztakitt erlijioak, apaizak eta abadiiei ta etxakuela gehixegi gustatzen... Baina igual die bigarren mailako faktoriak. Zuek eztozue ezautu hori, baina guk 15-20 urte geunzkunian euskera oso galzorian zegoen. Bergaran kalian etzan euskeraik entzuten. Eta bakarrik eh, auzuetako jentia itten zeban berba. Emakumiak... oso, oso gutxi!”.

Beraz, euskararen galerarekin lotu liteke hitanoaren beraren galera ere, Elexpuru Bergarako hizkuntzalariaren ustetan. Baina uler liteke, euskararen galera honek emakumeei ezberdin eragin ziela. Hau da, galera hau emakumeengan nabarmenagoa izan zela.

Antzuola ere, herri txikia izaki eta “nahiko” nekazal eremukoa, elkarrizketatutako emakume batzuk aitortzen dute beraien gaztaroan gaztelerak presentzia nabarmena zeukala euren bizitzako egunerokotasunean. Nahiz eta, ondorengo aipu hauek

adierazten dituzten pertsonak, Antzuolako euskalgintzarekin urte batzuk geroago lotura estua eduki:

“Guk kalia be dana erderaz. Eskolan dana erderaz, ta etxian be bai... Gurasuak gurekin euskeraz eta gu erderaz (...) Mutilak etxian euskeraz itten zeben, baina guk han be erderaz” (Maria Jesús, 67. Hitanorik ez).

*“18 urte arte etxian eta lagunen artian be ba karo... lagunape ba eskolakuak zianez ba ehh gehixenak ginan euskaldunak... adibidez 11 nesketatik, familia erdeldunekua bakarra usteot. Baina erderiak indar asko zeukan kuadrilan ehh.**Gaztelaniak orduan eskolatik kanpo be presentzia asko ez? Bai, bai, bai...**”* (Maripi, 54. Hitanorik ez).

Errealitate honen harira, noketaren galerari buruz galdetuta honako erantzuna eman zuen Liernik (59, Toka-Noka):

“Ba igual hori? Ba igual izen leiken hori gutxiao berba itten zala nesken artian euskeria? Eta orduan... horrekin lotuta? Ze karo hitanua be azkenian, zenbat eta gutxiao in ba gutxiao erabiltzen don”.

Dena den, esan liteke Antzuolan errealitate bat zela gaztelaniaren presentziarena emakumeen artean. Haratago joanez, elkarrizketatu baten hitzetan, beraiek mutilekin batera irteten hasi zirenean hasi omen ziren euskaraz hitz egiten.

“Gu lehenengo neskak ibiltzen ginuztanan, baina hori izengo zonan 14-15 urtekin ero, diskoteketara ta hola ehh... Ta hor erderaz. Ta hor ba erderaz ingo ginunan. Eta gero ni mondrauen hasi nitzanian eskolan, etxakinat zeatik gu... Eta gero ba hori, gu hasi ginuztanan ba honekin, Txanbolin, Fernando idalatorrekua, Loixeta... Ta horrekin euskeraz beti (...) Uste jonat tipiko samarra zala emakumiak erderaz ittia, ta karo ba horrekin noka be...” (Lierni, 59. Toka-Noka).

Baina 50-60 urte bitarte dauzkaten eta elkarrizketatuak izan diren emakumeez gain, hau da, bizi esperientzia hori lehen pertsonan kontatu dutenak, Toka eta Nokaz mintzo diren gizonak ere, egitate hau jotzen dute nokaren galeraren errudunetako bat. Are gehiago, nokara trantsitatu duten gazteen ahotan ere, entzun izan da noketaren galerak, eta emakumeek gaztelaniaz hitz egiteak zerikusia izan zezaketela:

“Zeatik uste don emakume ta gizonen artian holako aldia daola? Etxakinat. Hori etxaukanat pentzauta. Baina realidadia don, hor apurketa bat eon dala ez? Orduan, eon dala generazino bat... Eske adibidez be bai, oin inbentatzen ehh... Erderaz berba itten dabenak be gehixenak emakumiak dittun.. Etxaon hainbeste gizonetzko, aber bajaerzen

ehh... Holako erderazko zea daukenik, eta hori be izen zeikien...” (Ane, 25. Nokara trantsizioa).

Honen harira, eta goian atal teorikoan jorratu den gisara, ikusi dugu 60. hamarkadan aipatutako fenomeno hau azaltzeko, ikerketa edota hausnarketa askotan emakumeen “berezko ahultasunari” egiten zitzaiola erreferentzia; edota berau jotzen zela egitatea emateko zergati nagusitzat. Joxe Azurmendik 1964. urtean idatzi zuen artikuluan adibidez, emakumearen izaera naturala omen den “ispilu-zaletasunarekin” lotzen zuen euskaraz ez hitz egitea. Idazlearen arabera, emakumearen pertsonalitate ahulagoak, hauek kanpoko moda eta hizkuntza ohiturei atxikitzea dakar (Azurmendi, 1964: 66).

Era honetara, urteetan Azurmendik aipatzen duen “ispilu zaletasunaren” eta emakumeek hizkuntza aldatzeko duten joeraren azalpen gisara, “prestigioaren” teoria ageri zaigu. Hau da, gurean zein atzerrian sarri esan izan da, emakumeek gizonezkoek baino errazago islatzen dituztela gizartean indarrean eta prestigioa duten baloreak. Baina Hernández eta Altunak (2017: 135) prestigioaren teoria horri, sustraiak harrotu eta praktika ezberdinen muinean dagoen arrazoiak ohartarazten gaituzte:

“Arreta gutxi jarri dugu dinamika honetan azaleratzen den beste fenomeno batean: emakumeak dira gehienetan mugitu, aldatu, mudatzera prest agertzen direnak. Hau, gure ustez, detaile inportantea litzateke. Izan ere egoera horretan topatu dezakegu “prestigioaren” teoria hauek funtsean ezkututzen dutena: Boterearen banaketa desorekatua, hau da – Penelope Eckerten hitzetan-, botere eza”.

Beraz, eta Hernández eta Altunak iradokitzen duten gisara, gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza erabileran edota hitanoaren erabileran kasu honetan, dagoen aldea azaltzeko unean, prestigioaren teoria baino haratago begiratu beharko dugu. Hau da, emakumezkoen kasuan hizkuntza erabilerak prestigioarekin nolabaiteko lotura bat izango du, baina jarrera horren arrazoia, muina, hauen botere eza izango litzateke.

Bestalde, eta goiko orrietan aztertu ditugun aipuei berriz ere helduz, harrigarria da nola noketaren galera soilik emakumeen hizkuntza portaeren gain erortzen den. Hau da, noketa ez da soilik emakumezkoek hitz egiten duten hitanoaren tratamendua. Honen bestez, momenturen batean gizonezkoek ere berau hitz egiteari utzi ziotela iradoki genezake. Nahiz eta honetarako arrazoiak ezberdinak izan litezkeen; edota arrazoi hauek, emakumeen hizkuntza portaeren aldaketari loturik egon litezkeen. Baina

errealitate bat da, eta nahiko ezkutuan dagoena gainera – ez baita elkarrizketa batean ere azaldu- gizonezkoek noka hitz egiteari ere, utzi ziotela.

8.3. EREMU PUBLIKO ETA PRIBATUAREN ARTEKO BANAKETA

Orain artean, transmisioaren eta euskararen galeraren argumentuak jorratu dira. Atal honetan ordea, espazio publiko eta pribatuaren arteko banaketak, zer nolako eragina izan zezakeen noketaren galeran aztertuko dugu. Argudio hau ez da elkarrizketa askotan jaso, baina interesgarria iruditu zait hona ekartzea. Nolabait esateko noketaren galera, genero sistemaren ondorioetako baten gisara islatzen baitu.

Hasteko garrantzitsua litzateke zehaztea, eremu edo espazio publikotzat zer jotzen dugun eta pribatuan zer gelditzen den; baita espazio edo eremu hauen banaketa nondik sortzen den ere.

Esan genezake, bizitza soziala bi esfera hauen artean bana genezakeela, hau da, alde batetik bizitza publikoa legoke eta bestetik, pribatua. Bi esfera hauek antagoniko gisa irudikatuak eta ulertuak izan diren arren, elkar elikatzen diren bi espazio gisa hautematea komeni da. Hala nola, mundu publikoa, gizonek gizonentzat sortutako espazioa izango da. Non arriskua, independentzia, lehiakortasuna eta oldarkortasuna ezin bestekoak izango diren, mundu horretan harremantzen jakiteko. Espazio honen baitan izango genituzke, adibidez, enplegua, politikagintza, tabernak... Mundu pribatua bestalde, mundu publiko horretatik kanpo gelditu direnek osatuko dute, alegia, emakumeek. Eta espazio pribatua etxeak irudikatuko luke. Etxeko lanek, zaintza lanek... Hau horrela, espazio publikoa gehiago baloratuko da, bertan hartu behar diren arrisku eta bizi irauteko estrategiak direla eta. Beraz, esfera publikoan balioesten diren abilezia edo ezaugarriek pisu eta balio sozial handiagoa izango dute. Hau da, balore eta gaitasun maskulinoak izango dira jendartean – gurean behintzat- balio gehien izango duten ezaugarriak (Lorente, 2006).

Honen harira, eta eskualdean egin den beste ikerketa bati erreparatuz, hau da, Eskoriatzako gazteek hitanoaren inguruan dituzte uste eta baloreen gaineko ikerlana, honela erantzuten du Iñigo Beitia antropologo Eskoriatzarrak ondorengo galdera; Nola iritsi da noka puntu honetaraino?. Beitiaren arabera, honakoa galdera zaila litzateke erantzuteko, baina emakumeen sozializazio esparruetan egon litekeela gakoaz azpimarratzen du:

“Emakumeek sozializazio esparru gutxiago izan dituztela eta zituztenak mundu pribatuan direla esan daiteke. Gizonen sozializazio esparruak aldiz, gehiago izateaz gain publikoak dira, kalean ematen dira. Beraz, noka mundu pribatuan gelditu zela esan daiteke, eta tokak mundu publikoa hartu zuela. Modu honetan, nahiz eta noka galdurik ez egon, hori dirudi; kalean ez baita entzuten” (Beitia, 2017:159).

Antzuolan egindako elkarrizketetan ere jaso ahal izan dira emakumeen edota zehazkiago esanda, gizonen sozializazio esparruen inguruko gogoetak:

*“**Ta zeatik uste don alde hori daola hain haundixa (Gizon eta emakumeen hitano erabileraren inguruan)?** Etxakinat. Ze gaur egun ya igual etxaukan zentzuik. Ze lehen igual tabernan da gizonak gehixao ibiltzen zittunan, ta horreatik hori mantendu zonan... Etxakinat hola dan ehhe... Holako zeoze izen leike? Etxakinat” (Maialen, 30. Noka trantsizioa).*

Maialenen arabera, toketa eremu publikoan mantentzea, garrantzizkoa izan da gizonen hitanoari eusteko. Goiko ataletan ikusi dugu, toketak Antzuolako kaleetan presentzia nabaria izateak, mutil gazteen hizkuntza mudantza ahalbidetzen duela; nahiz eta, mutil gazte hauek hitanoaren transmisioa era informal batean ez jaso. Hau da, toketa kalean egoteak, hitanoaren transmisioa horizontala ahalbidetzen du.

Bestalde, oso adierazgarriak dira, Maria Luisak (90, toka-noka) behin elkarrizketa bukatuta, baina oraindik grabagailua martxan zegoela adierazitako hitzak:

“Eske baakin zer? Gero juteittun seme alabak eta etxetik, eta gizonakin ez haiz hasiko hika berriketan... Orduan ba ohittu itte haiz zura. Erak igual ba ertetze zittunan gehixuao ero, baina gu...”.

Esaldi honen baitan hainbat datu aurki genitzake. Batetik, eta nahiz eta hitanoaren arau esplizitu bat ez izan, bi pertsonen soilik adierazi dute beraien gurasoek, edota beraiek bikotearekin hitanoz hitz egiten dutela. Hau da, badirudi nahiz eta hitanoak konfiantza eta gertutasun bat adierazi, intimitaterako ez dela hizkuntz tratamendu egokia. Bestetik, esaldi honek argi eta garbi erakusten digu, bizitza sozialaren banaketa dikotomiko honek, hau da, espazio publiko eta pribatuaren arteko bereizketa honek, noketaren galeran izan zuela eraginik. Nahiz eta emakume askok noketa eta baita toketa egiteko soltura eduki, behin ezkondu eta seme-alabak hasitakoan zukarako trantsizio moduko bat hasi zitekeen. Behin hizkuntz ohitura hori hartuta, nahiko logikoa dirudi hitanoa praktikatzeko ohitura hori galtzea. Gizonen ordea, eremu

publikoan egin izan dute bizimodua, izan lantokia, izan taberna... Beraz, garai bateko gizonek aldatu zuten hizkuntz ohitura bakarra emaztearekin izan zen. Honi zu ematea izaten baitzen ohikoena, baina tokak oso presente jarraitzen zuen egunerokoan.

Badakit pertsona soil batek egin duela ezpal honetako komentarioa, eta aipu batetik orokortasunera badela bidea. Baina susmoa daukat, adin horretako emakumeek antzerako bizipenak bizi izan zituztela. Beti ere, salbuspenak eta bizi eredu apur bat desberdinak, egon zitezkeela ulertuta.

9. HIZKUNTZ SOZIALIZAZIOA

Noketaren galera bat egon dela ezin ukatuzkoa da; baita bien bitartean toketak bizirik iraun duela esatea ere, errealitatearen isla litzateke. Hau horrela, aurreko puntuan ikusi ahal izan dugu, zer nolako argumentuak edota zioak ematen dituzten elkarrizketatuek noketaren galeraren inguruan. Baina marko teorikoan azaldutako “hizkuntza sozializazioaren” ideia ekartzea gustatuko litzaidake honako atal honetan. Hau da, noketaren galera honetan eta toketaren biziraupenean zer nolako eragina izan du hizkuntzaren – kasu honetan hitanoaren- inguruan eman den sozializazioak?

Hizkuntza sozializazioaren paradigma honetatik, ikertzaileek haurrek beraien eguneroko bizitzan egoki parte hartzeko, zer nolako hizkuntza portaerak dituzten ikertu izan dituzte. Hizkuntza sozializazio honen ikuspegitik, eta Kasaresen hitzetan (2012: 21).

“Haurrak hizkuntzaren erabilerarako araez jabetzen dira hizkuntza gizarte jardueretan nola erabiltzen den ikusita eta egoera horietan parte hartuta. Beraz, haurrek hizkuntza —kodea— ez ezik hizkuntza erabiltzeko arau sozialak, hizkuntzen arteko hierarkia eta halakoak ere barneratzen dituzte. Sozializazio elebiduna izan duten haurrek bi hizkuntzak ikastearekin batera bi kodeak nola erabili, non, norekin eta zertarako, bi kodeak noiz bereizi eta noiz nahasi ere ikasten dute”.

Beraz, esan liteke hizkuntza bat, edota gure kasuan, hizkuntz tratamendu bat ikasterakoan, haurrak honen inguruko araez gain, hizkuntza edota hizkuntz tratamendu horren inguruko uste, balore edota pertzepzio batzuk ere hautematen eta nolabait esateko “ikasten” dituela.

Marko teorikoan ikusi dugun gisara, hitanoak bere baitan erabilerari lotutako hainbat aldagai edota arau barnebiltzen ditu. Honetaz gain, urteetan zehar, hitanoaren inguruan nolabaiteko “ideologia” edota uste negatibo batzuk ere sortu dira. Ondorengo bi ataletan, hitanoaren arauen inguruan eta hauen apurketen inguruan hausnartuko da batetik. Eta bestetik, sozializazio honen eraginez barneratutako uste edota balio negatibo hauek zeintzuk diren analizatuko da. Eta uste eta balio hauen inguruko irakurketa bat egiten saiatuko da; generoaren aldagaia erdigunean jarriz.

9.1. HITANOAREN ERABILERA ARAUAK ETA HAUEN APURKETAK

Hitanoaren erabilerari loturik, aldagairik garrantzitsuenetakoa adinarena dela esan liteke. Hau horrela, urte luzezko hitanoaren baitako urrezko erregela adinez zaharragokoei hitanoz ez hitz egitea izan da. Hau da, Roger Brown eta Albert Gilman ikerlari Estatu Batuarren ideia ekarriz, esan liteke hitanoa berez berdinen arteko hizkuntza izango litzatekeela, elkartasunezko semantika deritzona. Baina adinaren arau honekin, begirunea edota errespetua erakutsi nahi izango zaio zaharragoari; beraz, botere semantikaren zantzu nabarmenak ere izango ditu (Alberdi, 1993).

Adin batetik gorakoek, eta hitanoa etxean jaso izan dutenek, arau honi behin baino gehiagotan egin izan diote erreferentzia elkarrizketetan. Harrigarriena da, arau hau nolabaiteko “kontzientzia ez” batekin aplikatzen dutela elkarrizketatu gehienek. Tankera honetako esaldiak entzun ahal izan dira elkarrizketetan, “inkontzientzia” hori islatzen dutenak:

“Baina igual bajaukanau transmitiuta zelabaitt edadian kontu hori. Nahiz eta ez esan inok ez ittekoik ba igual geuk jaukanau hori...” (Lierni, 59. Toka-Noka).

“Etxian noizbaitten prohibiu zotzuen hika ittia ero? Ez, ez, ez... Sekula bez. Zaharrauei ta? Anai arrebei ez, oin persona zaharrei bai. Ta hori amak ero aittak ero esaten zotzuen o zela? Ez ba, ez ba.... Eztakitt. Ni behintzet sekula ez naiz akordatzen hola ehh persona, geu baino nausixauei zea ingo gontzenik... Hika in gontzenik” (Maria Luisa, 90. Toka-Noka).

Baina hori baten batek transmitiu in dotzue? Bai... Eztakitt, baleike, baleike... Nik hori eztoz igarri nundik etorri dan. Nik bai etxian ta bai kanpuan beti persona nausixauei eta

emakumiei ixa, ixa beti zu ingo jet nik. Baina hori zetaik dan nik ezin dotzut esan, ze hori neri berez etorri jat... (Jesus, 67. Toka-Noka).

Argi eta garbi adierazten digute honako aipu hauek, hizkuntza sozializazio baten bidez nola ikasi duten hikatzaile hauek, adinaren aldagaia nola eta noiz aplikatu. Inongo agindu edota debeku espezifikorik jaso gabe.

Bestetik adierazgarria da, adin batetik gorako gizon eta emakumeen hitzetan jaso izan direla, arau honen barneratze “inkontziente” baten inguruko gogoetak. Hau da, kasu honetan ez genuke generoen arteko talkarik izango; ez behintzat nik elkarrizketatutako pertsonen kasuan.

Hala ere, aipagarria da Jesusek dioena: *Nik bai etxian ta bai kanpuan beti persona nausixauei eta emakumiei ixa, ixa beti zu ingo jet nik*. Adinaren aldagaia ez ezik, Jesusek sexuarena ere sartzan du hizkuntz tratamendu bat edo bestea aukeratzeko orduan – nahiz eta elkarrizketan zehar, behin baino gehiagotan aipatzen duen, emakume zehatz batzuekin noketan ere hitz egin ohi duela-. Elkarrizketatu honi, inork ez dio inongo zehaztapenik eman emakumeekin hitanoz ez aritzeko. Baina ondorengo atalean jorratuko ditugun uste eta balioek zerikusia dutelakoan nago. Hau da, behin baino gehiagotan aipatu den gisara, hiketa ikasterakoan, bere baitan dakartzan arauak ez ezik, honen inguruko uste eta balio batzuk ere barneratzen dira. Hau honela, hitanoari atxikitzen zaizkion uste eta balio ezberdinek, emakumeei hitanoa ez egitea lekarke. Alberdiren hitzak berreskuratuz: *badirudi mutiko mozolo, azkar eta okerrari hobeto doakiola hitanoa* (1993: 438). Hala eta guztiz ere, hitanoaren uste eta baloreek, honen erabileran izan duten eragina, hurrengo atalean jorratuko da xeheago.

Beraz, esan liteke adinaren aldagaia edota norbera baino zaharragoi hitanoz ez hitz egitearen araua, 50 bat urtetik gorako pertsonen oro har, errespetatzen dutela. Baina gaur egungo errealitatea ezagutzeko garrantzitsua da Kasaresek sozializazio prozesuaren inguruan egiten duen gogoeta:

“Sozializazioa ez da prozesu mekaniko determinatua, gizon-emakumeak aldaketetarako gai baitira. Ildo horretatik, sozializazio kontzeptuak egitura sozialen “erreprodukzio” (edo ugalketa) hutsaren ideia gainditu, eta ingurura doitzeko prozesuan gerta daitezkeen “desbideratzeak” ere kontuan hartzeko bide ematen du. Hori horrela, hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloak jarraipen eta aldaketa soziokulturala, biak, ditu aztergai” (Kasares, 2012: 21).

Sozializazioaren ildo hau azpimarratuta, komeni da aipatzea adinaren aldagaiari dagokionean, aldaketa nabarmenak egon direla azken belaunaldi hikatzailean – batez ere, tokatzailean-.

Beste herri batzuetako gisara³⁶, Antzuolan ere adinaren aldagaiari, edota adinez zaharragoak direnei, hitanoz ez hitz egitearen araua geroz eta gehiago apurtzen da. Gazte gehienek apurtzen dute berau:

“Ja adinan kontu hori, uste dok ya ezjala errespetatzen? Nik etxonat aplikatzen! Jajajajajajaja! Hori bajakinat, nik ezotela hori aplikatzen. Eta etxian eztozte ezer esan? Ez... ez... Egixa esan sekula etxatan tokau, inok esatia, hi, hi, hi nei ez idak hika in. Sekula etxatan tokau. Ez etxian ta ez beste inun” (Jon, 37. Toka-Noka).

Aurreko ataletan ere sumatu dugu fenomeno hau, esaterako lan munduari lotutako hizkuntza-praktiketan ez da errespetatzen adinaren aldagaia. Honekin lotuta, eta goiko aipuan aipatzen den gisara, geroz eta gutxiago dira adinaren araua haustean errespetu falta zantzuak hartzen dituztenak – egon badauden arren-. Jesusen (67, Toka-Noka) arabera, berak ez die inoiz nagusiagoei hitanorik eman, baina ez du gaizki ikusten berari gazteek hi egitea:

*“Oin gaztiak errezaio itten jaola zaharrauai hika lehen baino. Lehen guri nausixauei hika ittia kosta itte jakun. Hori oin aldatu in dala esango nuke, lantokixan nik asko ikusi dot hori. Ta gero museko txapelketia antolatzen eta, eta mutikuape hi itten dozte neri. Baina bueno... **Zuri eztoztu holako inportaik?** Ez, ez, ez... Gainea gustoa sentitzen naiz, pixkat neupe gaztetasuna ero... Jajajajajaja! Ni gustoa gelditzen naiz. Ba horrek zu esango balozte... ba pentsauko nuke, ezta kott honek zertaz nauken ero... Ni tipo normala naiz, eta kalia ibili naiz beti, eta harreman sanuak nahi danekin...”*

Beraz, kasu honetan arau apurketa bat eman dela esan liteke. Gakoa arau apurketa honen zergatian egongo litzateke. Zaila da esaten, honengatik edo bestearengatik etorri dela fenomeno hau, eta dezente gehiago ikertu beharko litzateke arau apurketen kontua, nik lan honetan analizatu dudana baino.

Baina hipotesi gisara, esan liteke hierarkia sozialek nolabaiteko haustura edo ahultze bat bizi izan dutela azken belaunaldiaren baitan. Gizartean urte luzez eta frankismo garaian esaterako higiezinak ziren botereek, gaur egun ez dute horrenbesteko

³⁶ Ikusi esaterako Ozaita (2014: 93).

zeresanik gizartean. Hala nola, eliza geroz eta botere gutxiagorekin aurkitzen da; irakasle eta gurasoek jada ez dute autoritarismo bidez funtzionatzen; medikuek ere ez dute jada egi absolutua edota alkatea herriko pertsona “arrunt” bat izan ohi da. Esan liteke, garai bateko botere faktikoek ez dutela gizartean aurreko garaietan izan duten botere eta pisurik.

Honekin batera, eta gizartean berdintasuna balio positibotzat hartzen den garai honetan, esan genezake euskaraz hiru tratamendu izatetik, ia bakarra eduki – edo erabiltzera- pasa garela; zuka alegia. Hierarkia sozialen apurketa edo haustura honek beraz, hizkuntzan izugarritzko eragina izan du. Honela zioen Pruentxik (94, Toka-Noka) naturaltasun osoz, gazte garaian hitanoz aritzen ote ziren galdetuta:

“Hik eta zuk eta danea izengo zan orduan be. Beori be bai, zeoze gehixao zana, ba beori”.

Gaur egungo gazte baten ahotan, imajinaezina litzateke ondoko esaldi hau entzutea. Haatik, elkarrizketa ezberdinetan arbuatu izan dira adinari eta errespetuari lotutako begirunezko arau horiek. Badirudi, botere semantikak jada ez duela lekurik Antzuolako hikatzailen ahotan, edo solasaldietan.

9.2. HITANOAREN INGURUKO USTE ETA BALIOAK

Aurreko puntuan aipatu bezala beraz, hizkuntza sozializazioan ematen den prozesuaren bidez, hitanoak barnebiltzen dituen erabilera arauak hiztunak atxikitzen ditu. Baina jada azpimarratu dugun gisara, hizkuntza edo erabilera arauak ez ezik, hizkuntzari lotutako uste, balio edota pertzepzio batzuk ere barneratzen dira. Atal honetan, uste eta balio horien inguruan hitz egitea da helburua. Hauek ezagutu, eta honako uste eta balioek hitanoaren erabileran – edota erabilera ezean- izan duten eragina analizatuko delarik.

Hitanoaren inguruko uste eta baloreen inguruan sakon sartu aurretik, komenigarria litzateke aipatzea oraindik ere euskararen inguruan egon litezkeen uste batzuk. Euskara urte luzez zilegitasun ezaren baitan murgilduta egon izan da. Hizkuntzak jasan izan dituen erabilera eta ezagutza debekuak medio; euskararen inguruan sortu den “erabilgarritasun ezaren” ideiatatik, edota euskara prestigiorik gabeko hizkuntza gisa aurkeztu izanagatik... Euskararen zilegitasun ez honen zergatiak andanak izan baldin

badaitezke ere, egitate erreal bat da, euskarak poliki-poliki berreskuratu duela legitimitatea azken hamarkadetan. Euskarari atxiki zaion legitimitate ez honen adibide litzateke, elkarrizketan behin baino gehiagotan Pruentxik (94, Toka-Noka) emandako gomendioa:

“Baina euskeriakin bakarrik ezin leike geatu eh? Erderaz o frantzesez o lo ke sea... Ilobia honutz etortzen da, hemengo enpresa baten dabil... Baina inglesa eta frantzes eta dauzkalako... Euskeriakin noa jungo za ba?”.

Argi ikusten da esaldi honetan, Pruentxirentzat euskara ez dela erabilgarria; edota beste hizkuntza batzuk hau baino erabilgarriagoak direla. Are gehiago, norbait izateko kanpoko hizkuntzaren bat behintzat ikasi beharko duzula. Garrantzitsua iruditzen zait honako ideia hau presente izatea, ondoren hitanoaren inguruko uste eta balioek, euskararen beraren zilegitasun edota erabilgarritasun ez honekin zerikusia izango baitute. Hau da, goiko ataletan jada aipatu dugu euskaren galeraren baitan kokatu beharko dela hitanoaren galera ere. Beraz, hitanoari atxikitzen zaizkion, edota atxiki izan zaizkion uste eta balio hauek, euskarari berari ere lotu izan zaizkio urte luzez. Nahiz eta, euskararen galeran eragina izan zuten usteak, jada, eta normalizazio prozesu eraginkor baten bidez, badirudien pixka bat aldatu direla; hitanoaren inguruan sortu ziren uste eta balio horiek, esan liteke oraindik ere eta hizkuntza sozializazio baten bidez, bizirik daudela. Nahiz eta ondorengo puntuan ikusiko dugun bezala, hitanoaren inguruko pertzepzioa aldaketa sakon baten baitan murgilduta egon.

Hala nola, marko teorikoan ikusi dugun bezala, hitanoari lotutako uste eta pertzepzioen inguruan hitz egin denean, hizkuntza-tratamenduari lotu izan zaion kategoria “Baserritartasunarena” izan da. Antzuolan ere, eta elkarrizketa ezberdinetan gainera, baserriarekin lotu izan da hitanoa. Gainera, harrigarria da, baina adin ezberdinetako pertsonak lotu izan dute baserriarekin, edota nolabaiteko nekazal ingurune – herri txikiak errealitate- batekin hitanoa.

Maialeni (30. Nokara trantsizioa) adibidez, hitanoa jendeak zerekin lotzen duen galdetuta, ondorengo erantzun zuen: *“Pueblerino total, bai. Ba herri txiki bateko gauza bat mouan!”*.

Bestetik, Mikelek (22. Toka) hitanoaren erabileraren erdigunean “baserria” jartzen du. Hau da, bere ustetan baserriarekin nolabaiteko lotura edo harreman bat duten pertsonak errazago egiten dute hitanoz. Adibidez, bera txirindularitzan aritzen da, eta

Eibarko talde bateko partaide ere bada. Honen harira, eta Eibarren ea taldean hitanoz hitz egiten duten galdetuta, honako erantzuna eman zuen Mikelek:

“Baina eske gu justo bastante, bakoitza alde batekoa... baina justo eibarkuak daenak, ba euskera bastante politta dauke. O sea, eibarkuak izeteko... Euskaldunak die. Eta direktoria be da eibarkue barren! Jajajajaja! Baina justo direktoria be basarrikua, basarritik bizi da ta... Ta hori el loco de la colina. Herrira etzalako asko bajau, ze bestela igual haura be... Ba hori... Nik uste bastante, mantentzen dala”.

Aipu honen bidez, ikus genezake Mikelek nola euskara maila, eta baita hitanoaren erabilera ere, baserriarekin eta baserritartasunarekin lotzen duen. Baserritarra izateak, nolabaiteko hikatzaile zigilu bat emango balu bezala; nahiz eta egia den, hitanoa baserri inguruneetan askoz ere osasuntsuago dagoela beste leku batzuetan baino.

Hitanoa baserriarekin lotzeak printzipioz ez luke ezer “txarrik” ekarri beharko hitanoaren legitimizazioan edota honen erabileran. Baina, baserriaren eta baserritarren inguruan hainbat gutxiespeneko estereotipo izan dira, oraindik ere bizirik jarraitzen dutenak³⁷. Baserritarrak ez du izan Euskal Herrian aparteko estatus sozialik. Hala nola, eta estereotipo eta kategoria baxuko pertzepzio hauek hitanora ekarriz, berriz ere Pruentxiren (94, Toka-Noka) elkarrizketa zatitxo bat aipatu beharrea gaude. Lehen aipatu bezala, elkarrizketa hau Aretxabaletan egin zen, eta bere iloba batekin joan nintzen kafetegi batera elkarrizketa egitera. Hitanoa zerekin erlazionatzen zen galdetuta, ondorengo erantzun zuten biek:

“Iloba (65, Toka-Noka): Hi dao relazionauta basarritarrakin gehixao... Pruentxi: Eske hi oso tristia zan... Baju itten zan. Baju? Bai!”

Beraz, hitanoa baserritartasunarekin erlazionatzean, hizkera “baxu” edo “triste” gisara ikusten du Pruentxik. Hau da, kategoria edo estatus gutxiko pertsonen hizkeratzat dauka; nahiz eta, bera oso hikatzailea izan.

Bestetik, “baserritartasunaz” gain, sarri elkarrizketetan azaldu den beste hitz bat “zakartasuna” izan da:

“Zeekin lotzen dozu hika? Ba igual pixkat hizketa zakarra da, ez?” (Mikel, 22. Toka).

³⁷ Estereotipo hauen arabera, baserritarra beti izan da arlotea, zakarra, indartsua edota inozo zamarra.

Baina zakartasun kontzeptu edota pertzepzio honen inguruan, badira emakumeen eta gizonen erabileraren arteko pertzepzio ezberdinak. Honela jaso ahal izan nuen nire koadernoan, taberna batean hitanoz hitz egiten ez duen 54 urteko emakume baten pertzepzioa:

“Ze neska batekin hika da, ba hola takarra bezela ero. Mutil bat ba bueno... baina neskia ba takarra bezela... Eztakitt...”

Esaldi honetan beraz, argi ikusten da hitanoarenganako uste eta balore hauek ez direla neutroak. Hau da, hitanoari atxikitzen zaizkion baserritartasun edota zakartasun hau, gizonezko bati hobeto joaten zaiola, emakumezko bati baino.

Bestetik, eta toka-noka binomioa gaitzat hartuz, badirudi toka eta nokaren artean ere ezberdintasun nabarmena dagoela. Honela dio Maialenek (30. Nokarako trantsizioa) ea toka hitz egiten duen galdetuta:

“De hecho gainea toka ittiana planteau in bijonat, ze oso basta ikusten non”.

Pertsona bakar batek esandako aipua da, baina aurretik dauzkagun datuak kontutan hartuz, eta Antzuolako mutil gazteek toka soilik hitz egiten duten garai honetan, badirudi tokak maskulinitatea errepresentatuko lukeela herrian. Hau da, Maialenek adibidez, nokarako saltoa eman du; bera eta beste bi lagun direlarik neska gazte bakarrenetarikoak noka mintzo direnak. Hau horrela, tokarako saltorako badirudi beste era bateko barrera bat ere badaukala. Noketan ez bezala, toketan oso “basta” edo zakar ikusten baitu bere burua. Hau da, lehen ikusi dugu haurtzarotik gaztetasunerako saltoan ematen dela mutilen hizkuntza-mudantza hori; toka nolabaiteko gizontasunerako ate moduko bat bihurtzen delarik. Hori horrela hipotesi gisara esan genezake, guztiz maskulinizatuta dagoen hizkuntz eremu batera sartzean, Maialenek bere burua “basta” gisara ikusten duela; tokarako saltoa nahiko zail egiten zaiolarik.

Honekin lotuta, Anek (25. Nokarako trantsizioa) hitanoa eta maskulinitatearen arteko harreman zuzen bat aipatzen du, Antzuolan hitanoa zerekin lotzen den galdetuta:

“Zeekin lotzen don antzuolan hika? Nik nere hika? Ez, hik hire hika ez. Bestela herrixan, generalian... Hombre ba maskulinua Antzuolan. Baina hori adibidez Bergan be, Antzuolako hikan bisinua maskulinua jaukane, hor ehhe: Guaztan moxea! Ta moxian najaok eta... Holako kontuak imitatzen ibiltzen dienian mokoluak, beti maskulinitik da. Orduan esango nuke, proiektatzen dana hika maskulinua dala, por lo cual maskulinidadia”.

Berak oso argi ikusten du bien arteko lotura hori. Eta egia esan, baliteke Maialenek tokaren inguruan egin duen baieztapen horren atzean ere maskulinitateari lotutako nolabaiteko ideia bat egotea. Baita, emakumeak hika entzutean, takar sentrazioa ematen diola aitortzen duen tabernako emakumeak ere; posible litzateke gizontasunaren ideiarekin lotzea hitanoa. Hizkuntza erabat maskulinizatu batekin alegia. Hori horrela, emakumeei “okerrago” joango zaie hitanoz aritzea; feminitatearekin talka egingo lukeelako tratamenduak.

Bestalde, hitanoarekin sarri lotu izan den beste balio bat “errespetuarena” izan da. Hitanoa pertsona batzuentzat errespetu ezaren, sinonimo izango litzateke. Honela dio Maripik (54. Hitanorik ez), bere etxean hitanoaren inguruan zegoen pertzepzioaz galdetuta:

*“**Eta zerekin lotzen dabe zure etxian hitanua?** Amak beti esaten zeban, beari etxakola gustatzen, errespeto faltia eta... Eliziak ero abadiak ero esandakua izengo zan? Eztakitt zer... Baina... Ez, ez... Gu eh. Gero beape ez ahiztekin eta anaiekin eta be ez, keba... **Eta zuen artan erabiltzia ero be gaizki ikusten zeban?** Baiii, baaaaii...”*

Hau horrela, eta behin baino gehiagotan aipatutako guraso kontserbadore eta eliz giroko pertsonen hitanoarenganako uste eta pertzepzioak azter genitzake esaldi honen bidez. Errespetu falta gisara ikusten zuten hauek hitanoka mintzatzea. Honen harira, etxeetan eta eremu pribatuan, aurretik aipatu dugun transmisio informalaren eten bat etorriko litzatekeelarik.

Esan liteke errespetuaren kontua, konfiantza eta gertutasunarekin disputan eta tentsioan egongo litzatekeela, eta honen ondorioz gizarteko sektore kontserbadoreenak ez zuela begi onez ikusten hitanoa. Konfiantza eta gertutasuna baitira, hitanoz mintza ohi direnek, berau deskribatzeko erabiltzen dituzten hitz ohikoenak. Hau da, bi hitz hauen bidez erantzun izan dute gehienetan elkarriketatutako hikatzaileek, beraiei hikak zer eskaintzen dien galdera.

*“**Ta zuk zeekin lotzen dozu hika?** Ez! neri ondo pentzatzen jat. Konfiantziakin! Nik uste dot baietz. Baten bat gertukua ero? Hori da...”* (Maria Luisa, 90. Toka-Noka).

*“**Zeekin lotzen don hik hika?** Jo ba super gertukua bezela ez?”* (Maialen, 30. Nokara trantsizioa).

Konfiantza eta gertutasun hori, hitanoak eskaintzen duen faktore guztiz positibo gisara ikusten dute beraz hitanoz aritzen diren pertsonak. Hau da, zukari formaltasuna atxikiko liokete elkarriketatu gehienek eta hitanoari berriz, informaltasuna, konfiantza edota gertutasuna. Hikatzailleek, hitanoa euskarak eskaintzen duen hizkuntza erregistro informal gisa ikusten dutela esan genezake.

Baina puntu honetantxe aurki genezake emakume eta gizonen arteko hitano erabileraren aldearen zergatietako bat. Hitanoak eskaintzen duen gertutasuna edota konfiantza, askoren ustez gehiegizkoa litzateke. Hau da, errespetuaren marra gorria pasako luke:

“Nik Errezilgo lagun (emakume) batzui in izen jet hika. Ta esan izen dozte ez itteko erei hi. Ta zeatik usteozu etxakuela gustatzen? Ba igual gertukuegixa pentsauko jakue? Ero, errespetu faltia ero?” (Jesus, 67. Toka-Noka).

Ezinbestean fenomeno hau ulertzeko berriz ere, Lakoff hizkuntzalari Estatu Batuarraren lana ekarri beharko dugu gogora. Hizkuntzalari estatu batuarrak garrantzi nabarmena ematen dio kortesiaren aldagaiari:

“El lenguaje de la mujer se distingue del lenguaje del hombre en que las mujeres son más corteses, que es precisamente lo que debe ser, porque la mujer es la depositaria de la moralidad y del civismo; y cuando estamos entre mujeres hablamos, como compensación, de manera especialmente cortés, puliendo la brusquedad del bastardo lenguaje masculino: sin jerga, sin blasfemias, sin insinuaciones fuera de tono” (Lakoff, 1981:84).

Beraz, emakumea litzateke moralitatearen gordetzailea. Honek, eta guraso moralista eta elizgizonen diskurtsoek lagunduta, hau da, gehiegizko konfiantza eta gertutasunak errespetu falta eta bekatuak bideak zabaltzen dituenaren ideiak, emakumeek poliki-poliki hitanoz mintzatzeari uztea ekarriko luke. Berriz ere, Lakoffen hitzak erabiliz, ondorengo dio bi hizkuntza tratamendu bereizten dituzten hizkuntzen inguruan:

“La regla de cortesía la encontramos por ejemplo en las lenguas que distinguen entre tú y usted; cuando se emplea el usted, el efecto es crear distancia entre el hablante y el oyente” (Lakoff, 1981: 102).

Distantzia markatzearen arau hau, emakumeek gehiago erabiliko dute gizonetakoekin baino; nahiz eta, gizonetakoekin emakumeetakoekin eta estatus sozial ezberdin bat duten beste gizon batzuekin ere, erabiliko duten.

Baina bada Lakoffek bere lanean jasotzen duen kortesiazko beste arau bat ere; adiskidetasunarena, arau hau sinpatiaren adierazle litzateke. Honen arabera, gizonen hizketaldietan adiskidetasunezko arau honek pisu nabarmena dauka. Hau da, gizonek “anaitasunezko” harremanak eraikiko dituzte beraien artean (*Ibid.*: 123). Hau horrela, esan genezake tokaren biziraupenak Lakoffek aipatzen duen arau honekin ere zerikusia izatea. Gizonezkoek “anaitasunezko” harremanak eraikitzeke, hitanoak eskaintzen duen konfiantza eta gertutasuna aparteko osagaiak bailirateke.

Beraz, hitanoak berez eskaintzen duen konfiantza eta gertutasun honek, gizon eta emakumeen erabileran aldea markatuko luke. Baita honen inguruan, eta hizkuntza sozializazio baten bidez, gehienbat emakumeek barneratu dituzten errespetu marken uste eta pertzepzioek ere.

Laburbilduz, eta emakume eta gizonen hitano erabileraren aldearekin jarraituz, esan genezake, hitanoari lotu izan zaizkion balio edota usteek, baserritartasuna, zakartasuna... feminitatearekin eta “emakume on” izaera horrekin talka egiten dutela. Honela lotzen ditu Anek (25, Nokara trantsizioa) hitanoari lotu izan zaizkion uste eta balore hauek, emakume eta gizonen erabileran dagoen aldearekin:

“Nik bai uste dot rolo jente askok paletismuakin ero lotzen dabela ... herri txiki... ba oñatirrak bezela ez? Ba oñatirrak lotzen dittun bezela salbajismo horrekin ero.. ba igual pixkat horrekin ez? Basarri giro, inzibilizau... gauza inzibilizau batekin. Eta igual zentzu hortan, hika lotu dalako, gauza inzibilizau batekin, o basarriko munduakin... oin igual ez, por que eztakitt jentia zenbaiteainoko kontzientzia daukan, baina bai sasoe baten baserrixak hainbeste konpleju sortzen zeban garaixan, izen leike emakumien galeria be hortik etortzia... Zibilizadak izetia nahi, izete horreatik... Eta korrektak, eta edukadak... Igual erderara jotia, o zukara... ero igual hortik jun leike, etxakinat”.

Esan genezake beraz, hizkuntz sozializazio baten bidez barneratzen ditugun hizkuntza baten gaineko uste eta balioek emakume zein gizonen hitanoaren erabileran eragin nabarmena dutela. Eta are gehiago, uste eta balio hauek emakume zein gizonen ezberdin eragiten diela.

Hitanoarekin ez ezik, beste hizkuntza batzuetan ere fenomeno berdina gertatu dela esan genezake. Ondorengo dio María Reimóndezek adibidez, galegoaren eta emakumeen erabilera baxuagoaren inguruan:

“Galegoaren kasuan, argi dago hizkuntzaren estereotipoak –hizkuntza basatia, landugabea- emakumeak beren hizkuntza uztera presionatzen dituen aliantza bat eragiten duela; izan ere, emakume horiek finak izan daitezten espero da, eta gizonek baino zigor handiagoa pairatzen dute hizkuntza hori hitz egiten badute” (Reimóndez, 2017: 76).

Galegoaren kasuan ez ezik, India eta Pakistan artean aurkitzen den Panjab eskualdeko Panjabi hizkuntzaren inguruan ere, ondorengo adierazten du Imanol Larrea soziolinguistak:

“Els panjabis del Pakistan atribueixen característiques de ruralitat, baixa categoria, rudeses... al panjabi, especialment les dones joves. Consideren el panjabi una llengua masculina i deixen de parlar-la” (Larrea, 2016: 257).

Hau horrela, argi eta garbi gelditzen da beraz, hizkuntza sozializazioaren bidez barneratutako, hizkuntza baten gaineko praktika, jokaerak; uste eta balioek emakume zein gizonei modu ezberdinean eragiten diela. Are gehiago, esan liteke, emakume zein gizonei ezarritako genero rolek badutela eraginik hizkuntza baten erabileran; gure kasuan hitanoaren erabileran, edota honen erabilera ezean. Baserritartasuna edota zakartasuna egoki ezkontzen baitira maskulinitate hegemonikoarekin; baina ez dira feminitate hegemoniko batentzat adjektibo egokienak.

10. HITANOAREN INGURUKO PARADIGMA BERRIA

Uste eta balio negatiboez gain, badirudi gaur egungo Antzuolako gazteriak hitanoari beste balio batzuk atxikitzen dizkiola. Hori dela eta, analisiko azken atal honetan, hitanoaren inguruko paradigma edota diskurtso berriez hitz egingo da. Hauek sakon aztertu eta analizatzeko asmoz, atala bi puntu ezberdinetan banatua izan da. Batetik, hitanoa “label” edota “pedigri” adierazle izan litekeela Antzuolako gazte batzuentzat, suma genezake lehen puntuaren bidez. Eta bestetik, hitanoa emakumeentzat, ahalduntzeko tresna baliagarri bat izan litekeen edo ez aztertuko da bigarren puntuan.

10.1. HITANOA “PEDIGRI” ADIERAZLE

Marko teorikoan, nahiz analisiko hirugarren atalean, hau da, aurreko puntuan, ikusi ahal izan dugu historikoki, edota azken 60 bat urtean bederen, hitanoaren inguruko diskurtso edota uste eta balio negatibo asko hedatu direla Euskal Herrian, eta baita

Antzuolan ere. Uste eta balio negatibo hauek, hitanoaren erabilera ezean izugarrizko eragina izan dutelarik. Batez ere, noketaren galeran.

Baina nire harridurarako, badirudi Antzuolako gazteen artean, beste era bateko diskurtsoek geroz eta pisu handiagoa dutela. Antzuolan ez ezik, eta hitanoaren inguruan egin diren lanak kontutan izanik, esan liteke hitanoaren balioespenari dagokionean, beste diskurtso batzuek indarra hartu dutela. Tolosaldeako gazte batzuen hitzetan, hitanoa harrotasunezko bereizgarria izan liteke (Ozaita, 2014: 88). Era berean, Eskoriatzako gazteen arabera, hitanoak “desberdintasun” bat markatzen du; nolabaiteko “caché” bat (Beitia, 2017: 149).

Zentzu honetan eta Antzuolara itzuliz, elkarrizketatutako bi mutil tokatzaileek eta nokarako trantsizioa egin duten bi emakumezkoek³⁸, nortasunarekin eta nolabaiteko euskal “pedigri” batekin lotu izan dute hitanoa beraien elkarrizketetan. Hitanoak “benetakotasun” zigilu gisako bat, eskaintzen duelarik neska zein mutil gazte hauentzat.

*“Antzuolan hola zeekin lotzen dala hika esango zinue? Pixkat igual, en plan... Antzuolakua naiz! O sea sentimendu horrekin, o sea hikan in biot... **Herriko nortasuna bezela? Bai**”* (Mikel, 22. Toka).

*“**Ze emuten dotzu zuri hikak?** Nei hikak emuten dostan gehixena da nere nortasuna ero, identifikatzen naben gauza bat dala. Eske azkenian eh, guk eukitzeitu gure burua bilatzia ta eztakitt ze... Ta hori da gauza bat txiki txikittatik jaso dotena, nahi dotena nere semiak jasotzia, nahi dotena Antzuolan eh erabilera haundixaua eotia... eta, eta nere nortasunan parte dala pentsatze jat hika”* (Erik, 33. Toka).

Goiko lerroetan aipatu bezala, badirudi hitanoaren inguruko diskurtso edota ideologia berri hau, mutil zein neska gazteek konpartitzen dutela:

*“**Eta hik zeekin lotzen don hitanua?** Nik jatortasunakin. Euskal jatortasuna. Hau da, euskeria... O sea, euskeria ez hurrengua. Tipo ba “matricula de honor” euskeraz bezela. **O sea lotzen don hizkuntza erabilera maila altu batekin?** Bai, hori don. Igual eh, berorika baten batek dominatzen bajon ba friki bat don, oso ondo... ba iguala, o sea, ez friki estiloa baina bai. Asko dominatzen don hizkuntzia, asko”* (Maialen, 30. Nokara trantsizioa).

³⁸ Lau pertsona hauek izan dira elkarrizketatutako gazteak.

Ane (25, nokara trantsizioa) aldiz haratago doa hitanoaren galeraren inguruan galdetuta. Aspaldidanik Euskal Herrian aski ezaguna den hizkeren arteko antagonismo bat ere plazaratzen du bere hitzetan:

“Ze suposauko luke hika galtziak? Nik uste dot gure nortasunan parte haundi bat galdu ingo litzakiela. Gure... ezot esan nahi danok kaletarrak... baina bai, homogeneousau ingo ginake eta nortasunan zati bat galduko ginuke eta... Ta bebai uste dot, hika galtzia izengo litzakiela ba hor... euskera formalak, ero batuak, oh neetako nortasun baekua dan herri horrek, ba konkistauko lukien beste eremu bat”.

60. hamarkada inguruan euskara batua sortu zenetik, Anek aipatzen duen antagonismo horrek presentzia nabarmena izan du Euskal Herrian. Hau da, euskara batua “liburuko hizkeratzat”, “plastikozko hizkeratzat” edota “benetakoa” ez den mintzairatzat hartua izan da. Euskalkiak aldiz, edota herri hizkerak, nolabaiteko “benetakotasun” batekin lotu izan dira (Ortega et al., 2016: 154). Badirudi gaur egun Antzuolako gazteek, hitanoa ere bigarren multzo honetan sartuko luketela, “benetakotasun” izaera bat, edota herri identitate bat eraikitzen lagunduko lukeelarik.

Zentzu honetan, gai honi buruz asko teorizatu duen ikerlari bat Kathryn Woolard antropologo Estatu Batuarra litzateke. Autore honen arabera, Mendebaldeko mundu modernoan hizkuntzen boterea sostengatzen duten bi hizkuntza ideologia nagusi aurki genitzake: Anonimotasuna oinarri duen sistema ideologikoa, eta “benetakotasunarena”:

Quan mirem en conjunt els estudis sobre ideologia lingüística, podem distingir dues ideologies que normalment sostenen l'autoritat lingüística al món modern de l'Oest. Em refereixo als sistemes ideològics que hem descrit com l'Anonimat, i l'Autenticitat (Woolard, 2008: 180).

Ikerlariaren hitzei jarraiki, honela deskribatzen du Woolardek “anonimatuaren” ideologia:

“Dins una ideologia de l'anonimat, l'autoritat lingüística d'una llengua estàndard comuna no és localitzada, sinó desarrelada i universalista. D'acord amb aquest raonament, les llengües públiques poden representar tothom i ser usades igualment per tothom, precisament perquè no pertanyen a ningú en particular. Les llengües públiques es posicionen com a universalment obertes i disponibles per a tothom” (ídem,.).

Honen bestez esan liteke Batuaren kasuan, sorreratik dela “anonimotasun” balioz jantzitako aldaera. Denen hizkuntza izateko eta ez inorena bereziki, denon euskararen eta hizkuntza ofizialaren funtzioak hartzeko diseinatua izan baitzen (Ortega et al., 2016: 152).

Anonimotasunaren ideia honi kontrajarririk, eta Aneren (25. Nokarako trantsizioa) hitzetan argi eta garbi islatzen zen gisara, “benetakotasunaren” – *Autenticitat*- hizkuntz ideologia legoke:

“La ideologia de l'autenticitat ara s'associa característicament amb llengües minoritàries i varietats no estàndards, les quals tenen un valor altament local. En contrast amb la veu pública i anònima, la veu autèntica és sentida com a profundament arrelada, ja sigui en els reductes muntanyosos on es troba la puresa rural o en els carrers plens de sentiment del gueto urbà, on la gent autèntica està ocupada vivint amb autenticitat, keepin' it real, com diuen als Estats Units. En contrast amb la koiné anònima o estàndard, els parlants són ben conscients que les varietats minoritàries són “d'algun lloc”. Si no es pot identificar com a arrelada en un territori social i geogràfic, li manca valor” (Woolard, 2008: 183).

Beraz, Woolardek egiten duen banaketa honen arabera, argi eta garbi ikus genezake, Antzuolako gazte hikatzailen diskurtsoak “benetakotasunaren” ideologia honetatik eratorriak liratekeela. Hau da, elkarrizketatutako gazte hauen aipuetan, nahiz eta, goiko atalean aipatu ditugun uste eta balio negatibo batzuk presente egon, orokorrean hitanoa, nolabaiteko nortasun edota euskalduntasun “benetako” batekin lotzen da. Badirudi, identitatea eraikitzen laguntzen dien pieza garrantzitsuetako bat dela hitanoa Antzuolako gazteentzat.

Baina, generoaren aldagaiari erreparatuz, esan genezake egitate, ideologia edota sentipen honen aurrean, emakume eta gizonezkoek bizi dituzten sentipenek ez dutela batere antzekotasunik. Emakumeen kasuan, “benetakotasun” sentipen honek, azaltzen nahiko zaila den ondorez antzerako bat eragiten du; noketaren erabileran eragin zuzena izango duena. Ondoko hitzetan atzeman genezake, emakume gazteen nolabaiteko sentipen negatibo hori:

“Zeen arabera aukeratzen don zeinekin in eta zeinekin ez? Ba eske etxonat..., nik era natural baten ertetzen jatenakin (...) Eske askotan pentzatzen jaten ba Ainhoa bat ez tala komodo sentiu biher nik itten bot hika beakin... Hori igual konplejua don be bai, baina

bueno. Ze hire konplejua? Bai. Joe ba hik baten bati euskeraz berba itten jananain mouan ta ikusten don ezin donala segidu, ba iguala. Dominixo bat daukanakin? Bai. Zuek zatela kasu honatn bakarrik” (Maialen, 30. Nokarako trantsizioa).

“Ze emuten don nokan hitz ittiak?Aber askotan be bai produzitzen joztan sentimentu bat negatibua dana, ta don superioridadia. Ta hori etxaten gustatzen. Ta hori don pixkat ainhon kontua eta... Osea ni jutia Amaia jauregina, eta nik AmaiaJauregiri, justo ingo notzake...Bere perfilaatik. Baina pentzatzen jaten, jutia superioridadetik, eta orduan ba hori be etxaten gustatzen. Eta hori be produzitzen joztan... usten dot neurtu in bidala... Etxakinat ehh... igual norbean konplejuak dittun ehheh... Zaindu in bidala inor gaizki ez sentitzeko bez... Por que horrek azkenian kontraproduzentzia... Baina zeatik uste don baten bat gaizki senti leikiela hikan berba ittearren? Ba eztaukalako dominixoik, eta... igual bere kontzientziak esaten jaolako hika in biko nuke baina eztakitt... Eta ba zuka in biot, eta zu zabitz hika eta ni zuka, eta...Tonto bezela. Como que zu eskaloe bat gorao zare...” (Ane, 25. Nokarako trantsizioa).

Beraz, goiko aipuetan islatzen den gisara, emakumeei hitanoz aritzeak sentipen kontrajarriak eragiten dizkiete. Hau da, esan genezake ekintza berberaren aurrean – hitanoz hitz egitea-, emakume zein gizonek ez dituztela sentsazio edota bizipen berberak. Zentzu honetan, azpimarra genezake generoak izan litekeela nolabaiteko zerikusirik egitate honetan.

Nahiz eta bi elkarrizketetatik soilik eskuratutako datuak izan, uste dut nahiko adierazgarria dela bi elkarrizketetan ondoez berdinari, bi emakume ezberdinek aipamena egitea. Hau horrela, eta hitanoaren “benetakotasun” honen eraginaren aurrean, bi emakume gazte hauek asko zaintzen dute beste solaskidearen “gainetik” egotearen kontua. Edota hitanoz aritzeagatik bestea nolabait mintzea ere; garrantzitsutzat jotzen baitute, hizketa-lagunaren aurrean nagusitasunik ez erakustea. Hala nola, eta Sandra Bem-ek (1974: 158-159) egindako rol femeninoen zerrendaren arabera, emakumeak beste hainbat gauzaren artean, gupidatsuak, ulerkorrek, adeitsuak eta besteen nahietara egokitzen direnak izan beharko dute. Horren bestez, eta aipatutako emakumezkoen ezaugarri horiek kontuan hartuz, esan genezake emakumeek hitanoz aritzean sentitzen den “harrotasun” horren baitan sentipen molestoak ere aurkitzen dituztela. Beraiek asko zaintzen dutelarik, bestearen aurrean nagusitasunez ez aritzearen kontua.

Gizonen edo mutilen kasuan berriz, ez da inungo momentutan nostasunarekin lotutako harrotasun horren aipamen negatiborik egin. Honekin ulertu dugularik, hitanoa

norbaiti ematerakoan, honek ez duela emakumeengan bezainbeste pisu izango. Hau da, uler liteke gizonak ez dutela neurri batean behintzat, emakumeen haina solaskidearen ongizatean pentsatzen. Edota harrotasun sentimendu horrek, ez diela inongo “kulpabilitate” sentipenik eragiten bederen.

Honen harira aipatu beharra dago, gizonezkoentzat arruntena/ohikoena dela tokaz aritzea. Hau da, beraiek, eta beraien artean modu “natural” batean egiten baitute hitanoz. Emakumeen kasuan aldiz, kontzientzia batetik abiatutako kontua da, eta hiru lau lagunen artekoa. Hau da, hizkuntz araua zuka da emakumeen artean. Baliteke beraz, genero rolez gain, nokak antzuolako gazteen artean duen presentzia urriak, eta tokak duen bizimailak ere eragina izatea.

10.2. HITANOA EMAKUMEAK AHALDUNTZEKO TRESNA?

Analisisiko azken puntu honetan, hitanoak emakumeentzat eta Antzuolako testuinguruan, ahalduntzeko mekanismo edo tresna gisa baliotsua litekeen edo ez aztertuko dut. Goian aipatu dugu, gaur egungo noketaren egoera dela eta, emakumeek tentu handiz eta kontzienteki erabakitzen dutela berau; norekin eta noiz erabili ondo pentsatuta. Horrela, pertsona batzuekin nokan aritzeak nolabaiteko nagusitasun sententzio negatibo bat eragiten dielarik.

Baina, hiketaren eremua guztiz maskulinoa den honetan, eta toketak nagusitasun (ia) osoa hartzen duelarik espazio publikoan, nokarako saltoa egin duten emakumeei, hitanoa tresna baliagarria izan zaie hainbat alorretan.

Lehenik eta behin, eta hainbatetan aipatu den noketaren kasi guztizko galera eman den honetan, nokarako saltoa egin dutenak, hiztun aktibo bihurtzen direla azpimarratu nahiko nuke. Hau da, emakume hauek beraien hizkuntza ohiturak aldatuz, zenbaitetan emakumeei galarazi zaien agentzia bat badutela erakusten dute.

Beraz, badirudi egoerari nolabaiteko buelta bat emango lioketela emakume hauek beraien hizkuntza ohiturak aldatuta. Jada emakumeena – gazteena behintzat- ez den hitanoan muturra sartzen dutenean, nolabaiteko boteretze bat emango bailitzateke. Hau da, Antzuolaren kasuan, gizonen artean eta aipatu dugun gisara, badirudi hitanoa – toka-prestigio hizkuntza dela; eta hitanorako saltoa eman duten neska gazte hauek prestigio

hizkuntza hori berreskuratzeko jauzia eman dute. Esan liteke beraz, ekintza subalterno baten bidez, boteretu direla.

“Ta hiri ze emuten don noka ibiltziak konfiantziaz gain? Ba pentzatzen jaten euskeria reforzitzen naola bezela. Bueno euskeria ez, noka klaro. Ta beste emakume batzukin ibiltzian ze sensazio o zer? Ba sensazio ona, etxakinat. Zeoze ba... Hik euskeraz berba itten baldin bon Bilbon be, ba ondo sentitzen haiz. Ba hika berba itten baldin bon noka ondio hobeto” (Maialen, 30. Nokarako trantsizioa).

Ez dago bibliografiarik gai honen inguruan, nik behintzat ez dut aurkitu, baina Maialenen esaldia “euskaldun berriei” buruz egin diren ikerketa ezberdinetan ageri den kontu batekin lotu genezake. Maialenek komentatzen du, Bilbon – hau da, hiri ez euskaldun batean- euskaraz hitz eginda ondo sentitzen dela bera, eta Antzuolan noketan jardunda sensazio antzerakoa bizi duela. Honen harira, Ane Ortegak, Estibaliz Amorrortuk, Jone Goirigolzarrik eta Jacqueline Urlak egindako ikerketa batean, euskal hiztun berriek eta batez ere, erdalguneeetan euskara ikasi dutenek, ahalduntze baten inguruan hitz egiten dute. Lortu izanaren sensazioa edota asebetetzea, direlarik elkarrizketatu askok aipatzen dituzten sentimenetako batzuk (Ortega et al., 2016: 61).

Elkarrizketatutako bi emakumeek aipatzen dute harrotasuna; zerbait aldatzeko lanean ari zarean sentitzen den harrotasun hori. Zentzu honetan, ondorengoa aitortzen du Anek (25, Nokara trantsizioa) publikoki noka erabiltzeak sortzen dion sensazioei buruz galdetuta:

“Nik bai lotzen dotela ahalduntze prozesu batekin ez? Azkenian ehh... ba esparru... kasu hontan, kasu hontan esparru linguistiko bat ero, recuperatziakin... bai (...) Etxakinat, ba botere sensazinua bezela ez? Zeoze oso positibua”.

Anek esparru linguistiko baten errekupeazioaz hitz egiten du, eta baita errekupeazio honetarako bidean, berak sentitzen duen ahalduntze prozesu batekin ere. Azken finean, guztiz maskulinizatutako esparru linguistiko batera sartzean, norberak badaki “bera” ez den eremu batean sartu dela; gainera berau konkistatzeko asmoz. Hasierako sensazioei buruz galdetuta, biek ala biek hasiera batean lotsa sensazioa aipatzen dute. Batez ere, tabernan edota eremu publiko batean nokaz aritzeak, “apuro” pixka bat ematen ziela aitortu baitute biek.

“En plan ba lotzia ero... Tipo jentiaak pentsauko jonan ze jabitzen honek?” (Maialen, 30. Nokarako trantsizioa).

Esan genezake beraz, emakumeentzako ahalduntze prozesu baten baitan kokatu litekeela noketarako mudantza. Azken finean, hasiera bateko lotsa horiek gainditzeak, eta galdutako esparru linguistiko baten errekupeazioaren alde modu kontziente eta aktibo batean aritzeak, hein batean pertsona boteretzen baitu.

Bestetik, jada analisisiko puntu batean aipatu dudana toka eta anaitasunaren ideia uzartu nahiko nituzke. Lakoffek (1981: 123) adierazi zuen bere lanean, gizonen artean nagusitzen den kortesiazko araua adiskidetasunarena edota anaitasuna adieraztearena dela. Hitanora ekarrita, Begoña Echeverriak planteatzen du, hika formaren erabilera mutilen arteko solidaritatearen marka dela (Echeverria, 2001: 357). Ikerketa honetan ere, ikusi ahal izan da toketa anaitasunaren seinale izan zitekeela antzuola mailan.

Baina lan honetan elkarrizketatu ditudan pertsona batzuen arabera, emakumeak nokan entzutean, hauen arteko konplizitate bat sumatzen dutela adierazi izan dute:

“Emakume nausixak noka entzuteittutenian, eren artian... Ba igual basarrittako ahiztak eta, ezta? Ba sentitzen dot konplizidadia ero... Eren artian konplizidade haundixa daola” (Maripi, 54. Hitanorik ez).

Maialene (30. Nokarako trantsizioa) ere, zentzu honetan antzerako aitortza bat egiten du:

“Sentitzen jonat, konfiantzazko giro baten bezela naola beste emakume batzuekin”.

Honen harira, eta hipotesi gisara esan liteke nolabaiteko emakumeen arteko elkartasun moduko bat sortzen dela noketaren erabileraz. Oso momentu berezian aurkitzen gara gaur egun, kalean noketarik apenas entzuten ez den honetan, esan liteke noketan aritzeak edota emakumeak hitanoan sartzeak gizonen arteko anaitasun hori ahulduko lukeela. Edota haratago joanez, emakume koadrila bat noketaz komunikatzean, badirudi zelanbaiteko “ahizpatasun” sare bat edo sortzen dela. Zentzu horretan interpretatzen ditut nik behintzat goian aipatutako aipuak.

11. ONDORIOAK

Hizkuntzak gauza anitz adierazteko balio digu egunerokotasunean. Hizkuntzaren beraren helburu nagusia komunikazioa baita. Gizatalde bateko kideek elkarrekin komunikatzeko duten hitzezko adierazpidea bailitzateke hizkuntza. Baina lan honetan zehar ikusi ahal izan dugu hizkuntza bera, komunikazioaz gain, beste era bateko tresna, botere eta ezberdintasunen adierazle ere badela. Hizkuntza gizarte logika orokorrez zeharkatuta dago, eta horrela gizarteko ispilu gisa ere funtziona lezake.

Zentzu honetan, eta generoaren gaia mahai gainean jarritz, gizon eta emakumeek hizkuntzaren bidez lor dezaketan boterea ezberdina da eta gainera honek, hierarkiak sortzen ditu. Baina aldi berean, gizon eta emakumeen sozializazio ezberdinak, eta sozializazio honen ondorioz atxikitako genero rolek, hizkuntza praktika ezberdinak sortzen dituzte. Hau da, elkarren artean ezberdin gisa eraikitzen diren subjektuen (gizonen eta emakumeen) hizkuntzaren erabileran, generoak eragina du.

Historikoki, eta mendebaldeko literaturari erreparatuz gero adibidez, mende luzez hizkuntza eta generoa parez pare jarri direnetan, hizkuntza maskulino eta femeninoari buruz hitz egin izan da. Baina aipagarria da, Espainiar Estatuan gai honen inguruan idatzi diren testu gehienetan transmititzen den feminitate eredu, isiltasunarekin lotuta dagoela. Esan genezake gaur egun ere, isiltasuna eta feminitate eredu jakin bat maiz elkarlotzen direla.

Historikoki gure herrian, emakumea eta euskara lotu izan direnean, beste era batera lotu izan dira. Hau da, emakumearen papera euskararen zaintzarena izan da; transmisioarena. Eta bestetik, euskararen galera orokor bat egon den une historiko batean – 60/70. hamarkadetan-, hizkuntzaren galeraren errua honen gain jarri da. Honetaz gain, eta gure herriko historia gehiago ezagutu ahala, konturatu naiz azkeneko bi mendeetan Euskal Herrian hizkuntza-ordezkapen prozesua eta emakumeen bazterketa era paraleloan gertatu direla. Euskara zein emakumeak arlo publikotik kanpo geratu ziren, eta azken hamarkadetan “etxetik ateratzeko” ahalegina handia egin bada ere, oraindik, bai euskararen biziberritze prozesuan, bai emakumearen askapenean ere, bide luzea geratzen dela esan daiteke.

Hala nola, euskarak etxetik ateratzeko, eta espazio pribatutik kanpo erabilgarria dela frogatzeko lanak izan baldin baditu, zer esanik ez hitanoak. Hitanoa gaur arte “cacherik”

gabeko euskararen tratamendua izan da. Beroriren itzalean, eta elegantziarik gabe egon izan dena alegia. Eta jakina, honek besteak beste, izan du eraginik tratamendu honen erabileran.

Honen bestez, hitanoaren erabilera herri txiki eta euskaldunetara mugatua izan da. Horrela, eta Deba Goieneko testuinguruan, esan genezake Antzuola bere herritarren %65,5 euskaraz mintzo delarik kalean, hikatzailea dela. Bueno, hikatzailea baino tokatzailea. Hala nola, nolabaiteko Antzuolako hitano erabiltzaileen profil bat marrazte aldera, bi bereizgarri aipa genitzake. Batetik, toka-noka, hitanoaren bi aldaerak indartsuen dauden adin tartea, 55-60 urtetik gorakoa dela. Eta bestetik, gizonezkoak gehiago izango lirateke erabiltzen dutenak –eta gehien bat toka- emakumezkoak baino. Bestalde, tokatzaile gazteen fenomenoak genduke. Hau da, ibarreko herri gehienetan – Oñatin izan ezik- gazteen artean ez genduke hitanorik entzungo. Antzuolan aldiz, mutil gazteek tokaz hitz egiten dute. Hikatzaile gazte hau, elkarrizketatutako pertsona batzuek nahiz eta baserri giroarekin edota euskaldun jatorriarekin lotzen duten, behaketen bidez aztertu ahal izan da ez dela horrela. Esan liteke, genero maskulinoaren aldagaiak duela berebiziko garrantzia honen perfil bat trazatzerako orduan. Hau da, jatorriak baino, generoak markatuko luke gaur egungo Antzuolan hikazaletasuna.

Honetaz gain, azpimarragarria da hikazaletasunaren hasiera gisara, hau da, hizkuntza mudantzako une gisara lau une bereiz genitzakela: haurtzarotik gaztetasunerako saltoa; institurakoa; unibertsitatea eta maila pribatuko aldaketak. Nire ustetan eta lan honetan aztertu denaren arabera, haurtzarotik gaztetasunerako mudantza una izango litzateke esanguratsuen. Batez ere, maizen ematen dena delako eta genero rolek mudantza honetan duten garrantziagatik.

Hau horrela, orokorrean hitanorako mudantza eman dadin, adinak badu garrantzirik Antzuolako mutil gazteen artean batez ere. Nahiz eta aztertutakoaren arabera, elkarrizketatutako emakume batzuek ere une hau hartzen duten mudantzarako une esanguratsu gisara. Baina gazte tokatzaileak hizpide hartuz, mutil kuadrilak askoz ere zabalagoak eta handiagoak izaten dira neskenak baino, eta normalean hiru jaioturte ezberdinetako mutilak elkarrekin ibiltzen dira. Hala nola, adin ezberdinetakoen elkartzeko horretan egon ohi da mudantza moduko bat. Normalean aisialdi ohiturak ere aldatu egiten dira, eta mutil kuadrilak – neskak ez-, jada behin baino gehiagotan aipatu den Mox tabernan biltzen hasten dira. Esan liteke, “gizontze bat” ematen dela une honetan.

Tabernan beste koadrila eta adin batzuetako pertsonekin ere nahasten baitira, eta toka da bertako hizkuntza-tratamendu ohikoena.

Haurtzarotik gaztetasunera ematen den hizkuntza-mudantza honek, argi adierazten digu, gertakari honen atzean hizkuntza-ideologia bat dagoela. Hau da, elkarrizketa askotan agertu den “koxkortutakuan” horrek, adierazten digu gazteak jada heldutasunaren atarian sentitzen dutela beraien burua. Batez ere mutilen kasuan, eta Antzuolako testuinguruan, gizonen artean prestigioa duen hizkuntza tratamendua hitanoa da. Beraz, neurri batean gizontasunerako saltoa tokaz aritzearekin lotua dago.

Bestetik, eta hipotesi espezifikokoetako bat baieztatuz, hau da, hitanoari lotutako hizkuntza-praktikek, emakume zein gizonen hitanoaren erabilera baldintzatuko dutela, hiru eszenatoki ageri zaizkigu hitanoa gehien erabiltzen den gune gisara: Aisialdia, lana eta eskola.

Aisialdiari erreparatuz, tabernak izan dira ikerlanean zehar hitanoaren gotorleku gisara ageri izan zaizkigun guneak. Sarritan entzun izan da tokaz tabernetan zein kalean, eta dezente gutxiago nokaz. Tokaz entzun izan diren elkarrizketa horiek askotan, elkarrizketa motz eta azkarrak izan dira. Elkarrizketetan ere, ageri izan zaizkigu azkartasunari eta bizitasunari lotutako aipuak, hitanoa zerekin lotzen duten galdetuta.

Honetaz gain, baina kontu honekin loturik, emakume eta gizonen arteko gorputz dinamikak ere ezberdinak direla aztertu ahal izan da. Hau da, gizonek mugikortasun gehiago adierazten dute espazio publikoan, eta espazio fisiko gehiago ere okupatzen dute emakumeek baino. Horrela, eta ikertzaile ezberdinen hitzetan ikusi dugun gisara, esan liteke gorputzaren erabilerak eta hizkuntzarenak harreman estua daukatela. Beraz, eta hitanoak eskaintzen duen azkartasun eta bizitasun hori, gizon edo mutilen gorputz dinamikekin lotuz gero, badirudi gizakumeei hobeki etortzen zaiela hitanoa. Hau da, toka maskulinitatearen performanzean arma erabilgarria izan liteke.

Bestalde, eta aisialdian ematen diren hitanozko hizkuntza praktikekin loturik, badirudi emakumeek sozializazio eremu gutxiago edota, espazio pribatuko sozializazio esparruak izateak eragina izan duela noketaren galeran, eta emakumeek hitano gutxiago praktikatzean. Azkenean taberna baita hiketa gehientsuen entzuten den lekua. Eta dakigun gisara, taberna historikoki eremu guztiz maskulinizatua izan da. Neurri honetan, ikerlanean aztertu ahal izan dugun gisara, Antzuolan azken urteetan eta nahiz

eta transmisio informalean eten bat egon, toketaren sozializazio bat eman da. Hau da, gizonek espazio publikoaren jabetza izan duten neurrian, toketa bizirik mantendu da kalean, eta hizkuntza sozializazio baten bidez mutil gazteek berari ikasi ahal izan dute. Aldi berean, noketak ez du espazio publikoan txertatzeko aukerarik izan; edo gutxiago bederen. Halaber, neska gazteek eta etxeetako goitik beherako transmisioaren etena gertatzean, ezin izan dute kalean eta tokarekin gertatzen den bezala, nokeaz ikasi.

Espazio publikoan gizonek izan duten beste gune garrantzitsuetako bat enpleguarena litzateke. Zentzu honetan, lan arloa ere sarri ageri izan zaigu hitanoko hizkuntza praktiken gune gisara. Hau horrela, hiru taldetan bereiz litezke hitanoa gehien entzuten den lan eremuak: Baserriari lotutako lana, euskararen inguruko lana eta lantegi industrialak. Baserriari lotutako lanei dagokienean eta ikusi dugun gisara, lan berdinen aurrean, esaterako etxeko produktuen salmenta, emakume eta gizonen hizkuntza ohiturak ezberdinak izango dira. Emakumeek zuka erabiliko dute kasu hauetan, eroslearengandik distantzia bat mantentze aldera; gizonek ordea sarritan hika. Ondoriozta genezake, lan honetan behin baino gehiagotan aipatu diren kortesiazko legeek ez dutela efektu berbera emakumeengan edota gizonengan. Emakumeek askoz ere gehiago eta zukaren bitartez, markatzen dutelako kortesiazko distantzia bat.

Hizkuntza praktikei jarraiki, eskola litzateke hitano –toka- asko entzun litekeen beste lekuetako bat. Baina harrigarria da esparru honetan zein nolako aldea dagoen gizon eta emakumeen hitanoaren erabileran. Elkarrizketatutako emakume guztiek adierazi baitute eskolan hitanorik ez dutela sekula hitz egin. Horren bestez, esan daiteke genero rolek egitate honetan ere izango dutela eraginik. Hau da, euskararen erabilerarekin gertatzen den bezala, genero rolek eragin nabarmena izango dute arauak errespetatu edota hauek errefusatzeko unean. Honela neskek eta eskolan ematen diren garai ezberdinetako hizkuntza arauak betetzen dituzten bitartean – izan gaztelania, edota zuka-; mutilek, eta mutil gisa jokatu, arau hori puskatu egingo dute.

Beraz, baieztatu daiteke, hitanoari lotutako hizkuntza praktikek, emakume zein gizonen hitanoaren erabilera baldintzatuko dutela.

Bestalde, baieztatu liteke hitanoa hein handi batean zakartasun eta baserriartasunarekin lotua izan dela Antzuolan. Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezalaxe. Bestetik, konfiantza, gertutasun eta errespetu falta batekin ere uztartu izan da. Eta honek, hau da, hitanoari lotu izan zaizkion uste eta balio hauek hizkuntza

tratamenduaren erabileran eragina izan dute, batez ere, noketaren galeran zerikusi nabarmena izan dutelarik; eta baita emakumeen erabilera baxuago batean ere. Zakartasun eta baserritartasun adjektibo hauek, maskulinitatea indartzeko balio lezakete, baina feminitatearekin guztizko talka izango lukete.

Hala nola, esan liteke errespetuaren kontua, konfiantza eta gertutasunarekin disputan eta tentsioan egongo litzatekeela. Horrela, puntu honetan ere aurki genezake emakume eta gizonen arteko hitano erabileraren aldearen zergatietako bat. Hitanoak eskaintzen duen gertutasuna edota konfiantza, askoren ustez gehiegizkoa litzateke. Hau da, errespetuaren marra gorria pasako luke. Emakumeak eta hauei atxikitzen zaizkien genero rolei jarraiki, moralaren gordetzaileak izan beharko dute. Honen bestez, hizkuntza tresna ona izango da, beste kasu batzuetan ikusi dugun bezala distantzia markatzeko. Eta hori, zukaren eskutik letorke. Bestetik, hitanoak eskaintzen duen gertutasun eta konfiantza hori, egokia litzateke gizonezkoen hain bereizgarri diren anaitasunezko harremanak eraikitzeke. Beraz, hitanoak eskaintzen duen konfiantza eta gertutasun honek, gizon eta emakumeen erabileran aldea markatuko luke. Baita honen inguruan, eta hizkuntza sozializazio baten bidez, gehienbat emakumeek barneratu dituzten errespetu marken uste eta pertzepzioek ere.

Horren bestez, berretsi daiteke, hizkuntz sozializazio baten bidez barneratzen ditugun hizkuntza baten gaineko uste eta balioek emakume zein gizonen hitanoaren erabileran eragin nabarmena dutela. Eta are gehiago, uste eta balio hauek emakume zein gizonei ezberdin eragiten diela.

Baina badirudi orain hamarkada batzuetako uste eta balio negatibo horiek atzean utzi dituela hitanoak. Gaur egun Antzuolako gazteen artean, neska zein mutilek, nolabaiteko nortasun, pedigri edota euskal “label” batekin lotzen baitute hitanoa. Egia esan ikerketarekin hasi nintzen momentuan, ez zitzaidan burutik pasa ere egin hitanoa “labeltasun” edo nortasunarekin lotzearen kontua. Baina behin ikerketan ikusita, guztiz logikoa egiten zait. Hau da, geroz eta globalizatuago eta homogeneousasun nabarmenagoa dagoen mundu honetan, ezberdintasunak nolabaiteko caché edota identitate bat ematen baitizu. Bestetik, eta euskararen ezagutza nabarmen gora dioan honetan, hitanoak “benetako” euskaldun jator gisara presentatzen zaitu gizartean.

Hala ere, eta pedigri sentsazio honek harritu baldin baninduen, are gehiago harritu ninduen “labeltasun” honek emakume eta gizonezkoengan sentsazio ezberdinak

sortzeak. Ikerketa ildo polita litzateke, sentsazio ezberdindu honen ikerlan bat burutzea. Nik hipotesi gisara, esan nezake uste dudala genero rolek badutela eraginik “labeltasunaren” nolabaiteko emakumeen errefus honetan. Emakumeak gupidatsuak izan behar dugu, eta ez gara munduratu inor baino hobeak izateko. Bestetik, ezberdintzearena ere ez da oso femeninoa. Hau da, hitanoak nolabaiteko pedigri hau eskaintzeak ezberdindu egiten zaitu, pertsona berezi egiten zaitu; batzuen begietara eurak baino “autentikoago”. Eta sentsazio hori ez doa bat feminitatearekin, oharkabean pasatzearekin.

Azkeneko hipotesia baieztatuz, esan liteke nokarako trantsizioa egin duten emakumeek, ahalduntze prozesu bat bizi izan dutela honen poderioz. Hizkuntza ohiturak aldatzea, emakumeei sarri kitatzen zaien agentziaren izugarritzko erakustaldi bat litzateke. Hasierako lotsa eta zeresanak gainditzea ere, izugarritzko asebetetze pertsonalaren seinale litzateke. Azken finean, badirudi egoerari nolabaiteko buelta bat emango lioketela emakume hauek beraien hizkuntza ohiturak aldatuta. Jada emakumeena – gazteena behintzat- ez den hitanoan muturra sartzen dutenean, nolabaiteko boteretze bat emango bailitzateke. Hau da, Antzuolaren kasuan, gizonen artean eta aipatu dugun gisara, badirudi hitanoa – toka- prestigio hizkuntza dela; eta hitanorako saltoa eman duten neska gazte hauek prestigio hizkuntza hori berreskuratzeko jauzia eman dute. Esan liteke beraz, ekintza subalterno baten bidez, boteretu direla. Gaur egun, Antzuolako herriaren errealitate bat da gizonen bi hizkuntza tratamendu dituzten bitartean, emakumezkoek – gehienek- bakarria daukatela.

Hori horrela eta proposamen bat egitera ausartuz, eta euskalgintza eta feminismoa uztartzen hasi diren garai hauetan, posible litzateke hiketaren suspertzea feminismitik etortzea. Hitanoa hizkera binarioa da guztiz, eta bi kategorien baitan – neska/mutil- kokatu nahi ez duten pertsonentzat ez da izango baliagarria. Baliteke, norbait hiketaren aurka ere egotea; binarismoaren aldarrikapen linguistiko gisara interpretatu daitekeelako. Baina errealitate bat da, gaur egun eta Euskal Herriko feminismoaren baitan, “emakume” kontzeptua, kategoria politiko gisara erabili, eta honekin identifikatzen den pertsona asko dagoela. Hau horrela, eta genero rolek noketaren galeran – eta emakumeek hitanoz ez hitz egitean- izan duten eragina kontuan izanda, feminismoa tresna polita litzateke noketaren berreskurapenerako. Toketak Antzuolan behintzat, larri baina biziraungo du; bien bitartean emakumeak hizkuntza tratamendu bakarria izango dute soilik solasteko.

Bestetik, komenigarria da aipatzea, noketa ez dela soilik emakumeentzako erabilgarria. Hau da, noketa emakumeei zuzentzeko tratamendua da, baina pertsona oro mintza daiteke nokaz. Hau horrela, emakume zein gizonezkoak gerturatu beharko lirateke noketara; baita, emakumezkoak toketara ere. Hizkuntzak daukan sinbolismoarekin bederen, badirudi harreman berdinzaleagoak eraikitze bidea ere izan litekeela hitanoa; konfiantza eta gertutasuna adierazten duen hizkuntza tratamendua izaki.

Kontuak kontu eta laburbilduz, hipotesi nagusia baieztatu beharrez gaudela uste dut. Hizkuntza eta generoa elkarloturik dauden bi adierazpide dira. Ikusi dugun gisara, hizkuntza norberaren generoa performatzeko tresna bikaina izan liteke. Hori horrela, genero rolek noketaren galeran eta toketaren biziraupenean eragin nabarmena izan dutela azpimarratu liteke. Are gehiago, genero rolek emakumeek hitano gutxiago egitean ere eragina izango lukete; baita gizonek gehiago mintzatzean ere.

12. BIBLIOGRAFIA

- Acosta, A. (2013). El rol de las mujeres vascas en la transmisión del euskera: el idioma en las dinámicas de género e identidad. 2018ko Apirilaren 10ean berreskuratua. Kontsultatu: <http://www.euskonews.com/0655zkb/kosmo65501es.html>
- Acuña, V., & Álvarez, S. (2003). Un enfoque interdisciplinario de la relación entre lengua y xénero. *Estudios de sociolingüística*, 4(2), 9-16.
- Alberdi, X. (1993). Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 25(64), 425-442.
- Alberdi, X. (1994). Hitanoa non eta nork erabiltzen duen. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 39(3), 983-993.
- Alberdi, X. (1996). *Euskareren tratamenduak: Erabilera*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Alberdi, X. (2003). Hitanoa non eta nork erabiltzen duen. 2018ko Maiatzaren 14an berreskuratua. Kontsultatu: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1055937391
- Alonso, I. (1820). «*Diccionario filosófico portátil*» de Voltaire, en la adaptación de un anónimo chileno. Santiago de Chile: Biblioteca americana.
- Altuna, J. (2016). Euskara generoaren ispiluan barrena. Hizkuntza praktikak, bizipenak eta gogoetak Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen artean. 2018ko Otsailaren 25ean berreskuratua. Kontsultatu: <http://hdl.handle.net/10810/19898>
- Altuna, J. (2017). Genero-identitatearen hizkuntza jokia. Hurbiltze etnografikoa nerabeen hizkuntza-praktiketara. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 3(104), 139-159.
- Alvarez, A. (2004a). Euskara eta diskriminazio sexuala. *JAKIN aldizkaria*, (142), 47-61.

- Alvarez, A. (2004b). Euskara hizkuntza sexista al da? 2018ko Maiatzaren 2an berreskuratua. Kotsultatu: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1078235452/
- Alvarez, N. (2015). La moral, los roles, los estereotipos femeninos y la violencia simbólica. *Revista Humanidades*, 1(6), 1-32.
- Amonarriz, K. (1995). Euskararen erabilpenaren feminizazioa. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, (15), 89-96.
- Antzuolako Udala. (2018). Antzuola.com. 2018ko Maiatzaren 25ean berreskuratua. Kotsultatu: http://www.antzuola.com/index.php?option=com_content&view=article&id=2&Itemid=2&lang=eu
- Arana, A. (1993). Sexismoa sinbolo eta arketipoetan. In *Emakumea: Sexu ala generoa?* (25-47). Bilbao: UEU eta Emakunde.
- Arana, A. (2000). Euskarazko hitz generodunak eta ahoko tradizioa. In *Mito hurbilak: Euskal mitologia jendeen bizitzan*. Baiona: Gatzuzain.
- Arbaiza, M. (2017). *Feminismo, sujeto y modernidad*. Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra (Feminismo, sujeto y modernidad ikasgaiaren apunteak) UPV/EHU.
- Arbelaitz, L. (2012). Munduan hizkuntza baten alde egiten den ekimenik handiena Euskal Herrian: Korrika. 2018ko Apirilaren 20an berreskuratua. Kotsultatu: <http://www.argia.eus/albistea/munduan-hizkuntza-baten-alde-egiten-den-ekimenik-handiena-euskal-herrian-korrika>
- Aresti, N. (2000). El ángel del hogar y sus demonios. Ciencia, Religión y Género en la España del s.XIX. *Historia Contemporanea*, 2(21), 363-394.

- Aresti, N. (2006). Género e identidad en la sociedad del siglo XVII. *Vasconia*, (35), 49-62.
- Aretxabaleta, J. (1994). Lehengo andereñoak. *Emakunde*, (16), 38-41.
- ARGIA.eus. (2018). ARGIA Kazetaritza independentea. Txikitik eragiten. 2018ko Apirilaren 16an berreskuratua. Kontsultatu: <http://www.argia.eus>
- Auñamendiko Eusko Entziklopedia. (2018). Emakume Abertzale Batza - Auñamendi Eusko Entziklopedia. 2018ko Apirilaren 18an berreskuratua. Kontsultatu: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/emakume-abertzale-batza/ar-47346/>
- Azkarate, M. (1993). Emakumea eta Euskara. In *Emakumea: Sexu ala generoa?* (69-78). Bilbao: UEU eta Emakunde.
- Azkue, X. (1998). *Hitanoa Zumaian*. Zarautz: Zumaiako Udala.
- Azurmendi, J. (1964). Neskatzak ez dute euskeraz itzegin nai. *JAKIN aldizkaria*, (16), 62-68.
- Barquin, A. (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Gasteiz: EMAKUNDE.
- Barquin, A. (2018). *Nola erabili euskara modu ez-sexista batean?* Euskaltzaletasuna eta feminismoa: zer ikasi, hura elikatu, Gasteizen aurkeztua: UEU, Jakin aldizkaria eta Oihaneder Euskararen Etxea.
- Beauvoir, S. (2005). *El segundo sexo*. Madrid: Cátedra.
- Beitia, I. (2017). Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 2(103), 139-166.
- Bem, S. (1974). The measurement of psychological androgyny. *Journal of Consulting and Clinical Psychology*, (42), 155-162.
- Bourdieu, P. (1985). *¿Que significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madrid: Akal.

- Buedo, P. (2016). La influencia de los roles de género en la delincuencia femenina desde la perspectiva de género. *Equidad International Welfare Polices and Social Work Journal*, (5), 145-178.
- Butler, J. (1990). Variaciones sobre sexo y género. Beauvoir, Wittig y Foucault. In *Teoría feminista y teoría crítica*. Valencia: Alfons el Magnánim.
- Castiglione, B. (2008). *El cortesano*. Madrid: Alianza editorial.
- De Iriarte, T. (1978). *La señorita malcriada. Comedia moral en tres actos*. Madrid: Castalia.
- Del Valle, T. (1985). *Mujer vasca: imagen y realidad*. Barcelona: Anthropos.
- Del Valle, T. (1987). Contradicciones en torno a la actividad lingüística de la mujer vasca y su reflejo en Korrika. *Kobie Antropología Cultural*, (2), 14-21.
- Echeverria, B. (2004). Salvar las almas, hablar en los idiomas: conflicto religioso, cambio de género en euskera. 2018ko Maiatzaren 15ean berreskuratua. Kontsultatu: http://www.euskara.euskadi.eus/r59-bpeduki/es/contenidos/informacion/artik30_1_euskara_09_02/es_euskara/artik30_1_euskara_09_02.html
- Echeverria, B. (2001). Privileging masculinity in the social construction of Basque identity. *Nations and Nationalism*, 3(7), 339-363.
- Elexpuru, J. M. (2018). Guk hitano, hik zergatik ez. 2018ko Maiatzaren 15ean berreskuratua. Kontsultatu: https://www.berria.eus/paperekoa/1832/016/003/2018-01-11/guk_hitano_hik_zergatik_ez.htm
- Esnaola, E. (2006). Hitz batean, komunikatzailea. 2018ko Maiatzaren 15ean berreskuratua. Kontsultatu: http://uztarria.eus/herri_aldizkaria/2006/78/04/index.html

- Euskaltzaindia. (2018). Euskaltzaindiaren Hiztegia. 2018ko Maiatzaren 3an berreskuratua. Kontsultatu: http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=gizon&option=com_hiztegia_bilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu&bila=bai
- Garcia, O. (2016). Hizkuntza-transmisioaren kate-begi isilak. 2018ko Apirilaren 13an berreskuratua. Kontsultatu: <http://komunitatea.elhuyar.eus/eraldaketa-elhuyar-da/2016/02/22/hizkuntza-transmisioaren-kate-begi-isilak>
- Gartzia, J. (2016). Hiri berorika egingo dizut. 2018ko Maiatzaren 15ean berreskuratua. Kontsultatu: https://www.berria.eus/paperekoa/1955/019/001/2016-03-12/hiri_berorika_egingo_dizut.htm
- Goddard, A. (2005). *Lenguaje y género*. Ciudad Real: Universidad de Castilla-La Mancha.
- Gramatika Batzordea. (1997). *Euskal gramatika: Lehen urratsak-II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa. (2018). 2018ko Maiatzaren 11an berreskuratua. Kontsultatu: <http://www1.euskadi.net/harluxet/>
- Hernández, J., & Altuna, J. (2017). %2,7- Euskara, geneoaz mintzo? *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 2(103), 121-150.
- Hernández, J. M. (2002). Kale Neurketa: Sexuaren Araberako Erabileraren Emaitzak Eta Horien Inguruan Sortutako Galderak. 2018ko Apirilaren 24an berreskuratua. Kontsultatu: <http://www.soziolinguistika.eus/node/940>
- Hernández, J. M. (2004). Euskara dela eta... neskek zer diote? *BAT Soziolinguista aldizkaria*, (53), 79-95.
- Hernández, J. M. (2005). *Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Eusko Jaurlaritza: Soziologiako Euskal Kuadernoak 16.

- Hernández, J. M. (2011). Baina gu ere gazteak izan ginen. Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur. *Euskera*, 2(55), 579-607.
- Igartua, I., & Zabaltza, X. (2012). *Euskararen historia laburra*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.
- Jakin.eus. (2018). 2018ko Apirilaren 16an berreskuratua. Kontsultatu: <https://www.jakin.eus/aldizkaria>
- Jespersen, O. (1922). *Language: its nature, development, and origin*. New York: H.Holt.
- Juanena, A. (1991). Hizkuntz sexismoa eta euskara. *JAKIN aldizkaria*, (65), 97-110.
- Kasares, P. (2012). Euskararen belaunez belauneko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmatik. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 1(82), 15-52.
- Kasares, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Euskaltzaindia.
- Kasares, P. (2015). Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 1(94), 13-45.
- Lakoff, R. (1981). *El lenguaje y el lugar de la mujer*. Barcelona: Hacer.
- Larrañaga, J. (1998). *Antzuolako hizkera*. Antzuola: Antzuolako Udala.
- Lizartza, R. (2015). Hitanoa eta generoa. 2018ko Maiatzaren 15ean berreskuratua. Kontsultatu: <https://zuzeu.eus/euskara/hitanoa/>
- Llona, M. (2002). *Entre señorita y garçonne. Historia oral de las mujeres bilbaínas de clase media (1919-1939)*. Málaga: Universidad de Malaga.
- Lorente, M. (2006). Masculinidad y violencia: implicaciones y explicaciones. Presentado en Gizonezkoak genero indarkeriaren aurrean, Donostia.

Lozano. (2015). Bi koloreren diktadurapean. 2018ko Martsoaren 18an berreskuratua.

Kontsultatu: https://www.berria.eus/paperekoa/1939/004/001/2015-12-13/bi_koloreren_diktadurapean.htm

Lozano, I. (1995). *Lenguaje Femenino, Lenguaje Masculino: ¿Condiciona nuestro sexo la forma de hablar?* Madrid: Minerva.

Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., & Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: Esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

Ortner, S. (1979). ¿Es la mujer con respecto al hombre lo que la naturaleza con respecto a la cultura?. En *Antropología y feminismo*. Barcelona: Anagrama.

Ozaita, J. (2014). Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 2(91), 83-103.

Pujolar, J., Gonzalez, I., Font, A., & Martinez, R. (2014). *Llengua i joves Usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana*. Barcelona: Generalitat de Catalunya.

Pujolar, J., Gonzalez, I., & Martinez, R. (2010). Les mudes lingüístiques dels joves catalans. *Llengua i ús. Revista Tecnica de Política Lingüística*, (48), 65-75.

Ramirez de Okariz, I. (2003). *Antzuolako ohitura zaharrak*. Antzuola: Antzuolako Udala.

Reimóndez, M. (2017). Deszentratzen duten hizkuntzak. *JAKIN aldizkaria*, (221-222), 73-90.

Rodriguez, T. (2016). Pasilloetan galduta. *JAKIN aldizkaria*, (214), 141-143.

Rodó de Zárata, M., & Estivill i Cantany, J. (2016). ¿La calle es mia? Poder, miedo y estrategias de empodeamiento de mujees jóvenes en un espacio público hostil. **EMAKUNDE**.

- Rousseau, J.-J. (1762). Libro quinto. Sofia o la mujer. In *Emilio o la educación*. Madrid: elaleph.
- Rubin, G. (1986). Tráfico de mujeres. Notas sobre la «economía política» del sexo. *Nueva Antropología*, 8(30), 95-145.
- Sanchez Carrión, J. M. (1981). La Navarra Cantábrica. *Fontes Linguae Vasconum*, (37), 19-99.
- Soziolinguistika Klusterra. (2016a). Antzuolako hizkuntza-erabileraren kale-neurketa.
- Soziolinguistika Klusterra. (2016b). Hizkuntzen erabileraren VII. kale neurketa.
- Soziolinguistika Klusterra. (2017a). Azpeitiko hitanoaren kale-erabileraren azterketa.
- Soziolinguistika Klusterra. (2017b). Usurbilgo hitanoaren kale-erabileraren azterketa.
- Tannen, D. (1991). *Tú no me entiendes ¿Por qué es tan difícil el diálogo hombre-mujer?* Buenos Aires: Javier Vergara.
- Thurén, B. M. (1992). Del sexo al género-un desarrollo teórico, 1970-1990. *Antropología*, (2), 31-55.
- Woolard, K. (2008). Les ideologies lingüístiques: una visió general d'un camp des de l'antropologia lingüística. *Revista de Llengua i Dret*, (49), 179-199.
- Zarraga, A. (2010). Soziolinguistikari sarrera. In *Soziolinguistika eskuliburua* (21-85). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Zinkunegi, J. F. (1995). Euskararen transmisioa euskal Autonomi Elkartean. *BAT Soziolinguista aldizkaria*, (15), 75-88.

13. ERANSKINAK: ELKARRIZKETA GIDOIAK

NOKA-TOKA MANTENTZEN DUTENEN ARGUDIOAK JASOTZEKO:

1. Pixka bat azal zenezake nolakoa izan zen zure bizitza haurtzaroan?
 - Non jaio zinen? (Ze etxetan?)
 - Zenbat lagun bizi zineten etxean?
 - Orduko ze oroitzapen dituzu?
2. Ikasketa ibilbidea:
 - Non ibili zinen eskolan?
 - Zenbat denboran?
 - Zer nolako gauzak ikasten zenituzten?
 - Zein hizkuntza hitz egiten zenuten eskolan?
 - Irakasleekin
 - Ikaskideekin
 - Eskolan erabiltzen zenuten hitanoa? Norekin?
3. Etxean euskaraz hitz egiten al zen?
4. Eta Antzuolan orokorrean?
5. Gurasoek beraien artean hitanoa erabiltzen al zuten?
 - Non ikasi zenuen hitanoz hitz egiten? Ze adinekin?
 - Eta zuk etxean norekin erabiltzen zenuen hitanoa?
 - Etxean galarazi zizuten inoiz hitanoka hitz egitea?
6. Garai hartako Antzuolan hitanoak gaur egun baino presentzia handiagoa al zuen?
 - Gizon zein emakumeen erabilera antzekoa al zen?
 - Zergatik?
 - Noiz erabiltzen zen hitanoa? Zein egoeretan? (Testuingurua, praktikak, zeinekin...?)
7. Nola ikusita zegoen/dago hikaz hitz egitea?
8. Zuk zerekin lotzen duzu?
9. Ze ezberdintasun dagoela esango zenuke hika eta zukaren artean?
 - Zein ezaugarri edo bereizgarri batean eta bestean?
10. Zuk gaur egun norekin hitz egiten duzu hika?
 - Noiz hitz egin duzu azkeneko aldiz hikan?
 - Zeren arabera hitz egiten duzu hika edo zuka? Ze egoerea eta ze unetan, ze itten zabituela?
 - Neurri berdinean erabiltzen dituzu toka eta noka? Zergatik?
 - Zer ematen dizu hikak, zukak ematen ez dizuna?
 - Transmititu al diezu zure seme alabei hitanoa?
11. Gaur egun nork uste duzu erabiltzen duela hika antzuolan?
 - Osasuntsu dagoela esango zenuke?
 - Ze iritzi duela jendeak hitanoaren inguruan esango zenuke?

- Emakumeen artean gutxiago hitz egiten dela esango zenuke? Zergatik?
12. Zer suposatuko luke zuretzat hika galtzeak?
- Eta zehazki noka galtzeak?

NOKA GALDU EDO BAZTERTU DUTENEN ARGUDIOAK JASOTZEKO:

1. Pixka bat azal zenezake nolakoa izan zen zure bizitza haurtzaroan?
 - Non jaio zinen? (Ze etxetan?)
 - Zenbat lagun bizi zineten etxean?
 - Orduko ze oroitzapen dituzu?
2. Ikasketa ibilbidea:
 - Non ibili zinen eskolan?
 - Zenbat denboran?
 - Zer nolako gauzak ikasten zenituzten?
 - Zein hizkuntza hitz egiten zenuten eskolan?
 - Irakasleekin
 - Ikaskideekin
 - Ze presentzia zuen hitanoak eskolan?
 - Nortzuk hitz egiten zuten?
 - Ze pertzepzio zegoen hitz egiten zuten horien inguruan?
3. Etxean euskaraz hitz egiten al zen?
4. Eta antzuolan orokorrean?
 - Kanean lagunekin euskaraz hitz egiten al zenuten?
 - Zeren arabera erabakitzen zenuten ze hizkuntzetan hitz egin?
5. Gurasoek beraien artean hitanoa erabiltzen al zuten?
 - Eta beste norbaitekin?
 - Etxean galarazi zizuten inoiz hitanoka hitz egitea?
6. Garai hartako Antzuolan hitanoak gaur egun baino presentzia handiagoa al zuen?
 - Gizon zein emakumeen erabilera antzekoa al zen?
 - Zergatik?
7. Ba al dakizu hitanoka hitz egiten?
 - Non ikasita?
8. Inoiz hitz egin al duzu norbaitekin hika?
 - Ze egoeretan (ze praktikekin lotuta?)
 - Zeinekin?
9. *Hika momentun baten alboan laga zinu ala esan zeinke?*
 - Zergatik?
10. Ze ezberdintasun dagoela esango zenuke hika eta zukaren artean?
 - Zein ezaugarri edo bereizgarri ditu batak edo besteak?
11. Zerekin lotzen duzu hitanoa?
12. Hitanoa pertsona batzuentzat erabilgarria izan liteke?
 - Zer eman lezake hitanoak?

13. Gaur egun nork uste duzu erabiltzen duela hika antzuolan?
 - Osasuntsu dagoela esango zenuke?
 - Ze iritzi duela jendeak hitanoaren inguruan esango zenuke?
 - Emakumeen artean gutxiago hitz egiten dela esango zenuke? Zergatik?
14. Berdin ikusten duzu gizonak toka hitz egitea edo emakumeek noka?
15. Zer suposatuko luke zuretzat hika galtzeak?
 - Eta zehazki noka galtzeak?

TOKA ERABILTZEN DUTEN GAZTEEN ARGUDIOAK JASOTZEKO:

1. Pixka bat azal zenezake nolakoa izan zen zure bizitza haurtzaroan?
 - Non jaio zinen? (Ze etxetan?)
 - Zenbat lagun bizi zineten etxean?
 - Orduko ze orotzapen dituzu?
2. Ikasketa ibilbidea:
 - Non ibili zinen eskolan?
 - Zer ikasketa egin dituzu?
 - Zein hizkuntza hitz egiten zenuten eskolan?
 - Irakasleekin
 - Ikaskideekin
 - Eskolan erabiltzen zenuten hitanoa? Norekin?
 - *Zer sumatzen zenuen Bergaran hikaz hitz egiterakoan?*
3. Etxean euskaraz hitz egiten al zen/da?
4. Gurasoek beraien artean hitanoa erabiltzen al dute?
 - Non ikasi zenuen hitanoz hitz egiten? Ze adinekin?
 - Etxean inork egiten al dizu hika? Eta zuk norbaiti? (*Arrebarik izan ezkerro galde liteke ea berari norbaitek etxean hika hitz egiten dion*)
Noiztik?
5. Uste duzu hitanoak presentzia handia daukala Antzuolan?
 - Zeintzuk erabiltzen dute hika orokorrean? (Adina, euskaldun/jatorri erdaldun...)
 - Ze egoeretan entzuten dozu hitano gehixen zure inguruan? Zeozekin lotuta (praktikak)?
 - Gizon zein emakumeen erabilera antzekoa al da?
 - Zergatik?
6. Antzuolan zerekin lotzen dela hika esango zenuke?
 - Nonbaiten sentitu duzu inolako jarrera berezirik hika hitz egin duzunean?
7. Zuk gaur egun norekin hitz egiten duzu hika?
 - Noiz hasi zineten hika hitz egiten lagun artean?
 - Gogoan duzu trantsizio hori? Kontatu pixka bat, hasierako sentipenak, zailtasunak...
 - Zeren arabera hitz egiten duzu hika edo zuka?
 - Ze egoeratan gehien? Norekin? (Ze tipotako jentekin?)

- Sekula hitz egin al duzu nokaz? Ba al dakizu?
8. Zerekin lotzen duzu hika?
 9. Ze ezberdintasun dagoela esango zenuke hika eta zukaren artean?
 - Zein ezaugarri edo bereizgarri batean edo bestean? (Pertsonala, ze ematen dizun batak eta besteak...)
 - Zer ematen dizu hitanoak?
 10. Gaur egun nork uste duzu erabiltzen duela hika antzuolan?
 - Osasuntsu dagoela esango zenuke?
 - Ze iritzi duela jendeak hitanoaren inguruan esango zenuke?
 - Emakumeen artean gutxiago hitz egiten dela esango zenuke? Zergatik?
 11. Zer suposatuko luke zuretzat hika galtzeak?
 - Eta zehazki noka galtzeak?

NOKA ERABILTZEKO TRANTSIZIOA EGITEN ARI DIRENEN ARGUDIOAK JASOTZEKO:

1. Pixka bat azal zenezake nolakoa izan zen zure bizitza haurtzaroan?
 - Non jaio zinen? (Ze etxetan?)
 - Zenbat lagun bizi zineten etxean?
 - Orduko ze oroitzapen dituzu?
2. Ikasketa ibilbidea:
 - Non ibili zinen eskolan?
 - Zer ikasketa egin dituzu?
 - Zein hizkuntza hitz egiten zenuten eskolan?
 - Irakasleekin
 - Ikaskideekin
3. Etxean euskaraz hitz egiten al zen?
4. Gurasoek beraien artean hitanoa erabiltzen al dute?
 - Non ikasi zenuen hitanoz hitz egiten? Ze adinekin?
 - Etxean inork egiten al dizu hika? Eta zuk norbaiti?
 - Etxean edo kalean ikasi duzu hitanoz hitz egiten?
5. Uste duzu hitanoak presentzia handia daukala Antzuolan?
 - Zeintzuk erabiltzen dute hika orokorrean? (Adina, euskaldun/erdeldun...)
 - Gizon zein emakumeen erabilera antzekoa al da?
 - Zergatik?
6. Antzuolan zerekin lotzen dela hika esango zenuke?
7. Noiz erabaki zenuen hizarako trantsizioa hastea?
 - Zerk bultzatuta?
 - Lotzen duzu trantsizio hau, zure bizitzan eman zen beste aldaketaren batekin?
8. Zerekin lotu izan duzu hitanoa zuk?
 - Eta gaur egun trantsitatu eta gero zerekin lotzen duzu?
9. Norekin erabiltzen duzu hika?

- Zeren arabera erabakitzen duzu hika hitz egitea edo ez?
 - Ze egoeratan, testuingurutan eta ze tipotako jentiaekin erabiltzen dozu hika?
10. Toka erabiltzen al duzu?
- Zergatik?
11. Zer izan zen hitanorako saltoan gehien kostatzen zizaitzuna?
- Zailtasunak, lotsak...
12. Zer sentazio izan duzu publikoan noka hitz egiterakoan?
- Erreakziorik eragin al du?
13. Ze ezberdintasun dagoela esango zenuke hika eta zukaren artean?
- Zein ezaugarri edo bereizgarri batean edo bestean? (Pertsonala, ze ematen dizun batak eta besteak...)
14. Zer ematen dizu noka aritzeak?
- Zer sentitzen duzu beste emakume batzuekin noka ari zarenean?
15. Gaur egun nork uste duzu erabiltzen duela hika antzulan?
- Osasuntsu dagoela esango zenuke?
 - Ze iritzi duela jendeak hitanoaren inguruan esango zenuke?
 - Emakumeen artean gutxiago hitz egiten dela esango zenuke? Zergatik?
16. Zer suposatuko luke zuretzat hika galtzeak?
- Eta zehazki noka galtzeak?